

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

# senez

"OBABAKOAK" EN ITZULPENAZ  
ITZULPENA AUZITARA



6 urtea

1-2 zenbakiak

1990



# **Senez**

## **Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria**

**9**

**VI urtea  
1 - 2 zenbakiak**

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

**E.I.Z.I.E**

Azala: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-266-9

Legezko gordailua: S.S. 748/90

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz



# Senez

## Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

### **Erredakzio Batzordea:**

Zuzendaria:

Koldo Biguri

Hizkuntz arduraduna:

Koldo Biguri

Batzordekideak:

Jose I. Berasategi

Iñaki Ibañez

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

Gaztelera-ko laburpenak:

Koldo Biguri

Imanol Zurutuza

Ingelese-ko itzulpenak:

Brian Webster

### **Maketa eta konposizioa:**

Jesus M. Zabaleta

### **Helbidea:**

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66

**E.I.Z.I.E**



## Aurkibidea

Ale honetan .....	7
-------------------	---

### Gaiak

<i>Obabakoaken</i> itzulpenaz. <i>Juan Garzia</i> .....	13
Euskal interpretaritzaren errealitate mingotsa.	
<i>Lurdes Auzmendi - Koldo Tapia</i> .....	25
Euskal erakunde publikoak eta itzulpengintza: Eusko Legebiltzarra. <i>Mikel Garmendia</i> .....	35
Auzitegietakako interpretaritza. <i>Alberto Amorrortu</i> .....	45
Itzulpena auzitara. <i>Aintzane Ibarzabal</i> .....	55

### Puntuz puntu

Arrue eta bere garaia. <i>Yoana Iguaran</i> .....	77
Komaren erabilera. <i>Igone Zabala - J.C. Odriozola</i> .....	101
Irudizko hizkera itzulpenean. <i>Koldo Biguri</i> .....	117
Testu itzuliaren organikotasuna. <i>Xabier Mendiguren</i> ..	131
Baltasar Céspedes maisuaren itzulpen teoria. <i>Francisco Calero</i> .....	143

### Iruzkinak

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	155
Bibliografia .....	171
– CHUQUET, H. - PAILLARD, M.: <i>Approche Linguistique des Problèmes de Traduction (Anglais-Français)</i>	
– NEWMARK, P.: <i>A Text Book of Translation</i>	
– ZIMMER R.: <i>Probleme dek Übersetzung formbetonter Sprache (Ein Beitrag zur Übersetzungskritik)</i>	
– DEDECIUS, Karl: <i>Vom Übersetzen</i>	

- LARSON, M.L.: *La traducción basada en el significado. Un manual para el descubrimiento de equivalencias entre lenguas*

### **Berri eta albiste**

Expolingua 1990. <i>Dionisio Amundarain</i> .....	179
Euskarak badu zinpeko itzultzaileak. <i>Koldo Biguri</i> ....	181
Bedita Larrakoetxea hil zaigu .....	183

## **Ale honetan**

Euskal itzulpengintzaren esparruan gero eta pisu handiagoa hartzen ari da azken garaiotan gaztelerarako itzulpena, eta horrenbestez interesgarria iruditu zaigu SENEZ aldizkariaren zenbaki honetan aparteko plaza ematea, plaza txikia bada ere, bereak eta bi konta ditzan. Gainera, gure lanbideak bereganatu duen alor berri honek euskaldunontzat duen garrantzia ez da inondik ere gutxiestekoa, non-bait esan bait daiteke euskararen normalkuntzarekin eta osasun onarekin estu-estuki lotua dagoela. Esaterako, har dezagun interpreta-ritza, ahozko itzulpena, bezalako alorra, gero eta zabalagotzen ari dena: gizarte elebidun batek ezin du bazter utzi, bere espresabiderako eta bere hiztun-taldeen arteko orekarako ezinbestekoa bait da. Gaur egun aukera badago edozein ospakizunetan, «nazioarteko maila»rik gorenekoetan ere, euskaraz hitz egin eta euskaraz entzun ahal izateko, interpretariak euskarara bezala gaztelerara ere emango bait diote hizlariak esandakoaren islada hizkuntza batean edo bestean entzun nahi duenari, edota mintzatu nahi duenari ere. Hori erre-alitate bat da orain, une honetan, eta ez bakarrik Legebiltzar, Batzar Nagusi eta Udaletan, edo auzitegietan eta unibertsitatean, baita hitzaldi, lan-bilera, kongresu eta abarretan ere, nahiz eta horrek ez duen esan nahi sendotu eta hobetu beharko ez duenik. Horiek hala

izanik, aldizkariaren zenbaki honetan hiru artikulu eskeintzen zaizkio gure artean egiten den interpretaritzari; batetik Eusko Legebiltzarrean, eta bestetik auzitegietan egiten den interpretaritza —gehienetan euskaratik gaztelerara egiten dena— izango dugu mintzagai; eta hirugarrenik, kongresu eta halakoetan egiten den moetaren inguruan gorpuztuta ere, interpretaritzari oro har halako atze-begirada bat emango zaio, interpretari batzuen eskutik beren errealitatearen mingotsa ezagutuko dugularik.

Bestetik, baina ildo beretik jarraituz, azkenaldi honetan izandako bi gertakizun aipagarri ere ekarri ditugu orriotara, gai honen barnean sartzen bait dira bete-betean:

Batetik, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren itzulpena. Euskara eta euskal literatura hegalak zabaltzen ari direlako adierazgarritzat hartu du inork; horretan sartu gabe, bai ikutuko da, ordea, itzulpenak aiereratze horretan duen zeresana. Elkarrizketan izango dugu Atxaga bere liburuaren itzulpenaz eta, gai orokorragoari heldurik, Euskal Herrian egiten den itzulpengintzaz.

Eta bestetik, euskaraz idatzitako artikulu baten egileak jasan behar izan duen auziperatzea, gaztelerarako itzulpena tarteko. Izan ere, gure hizkuntz egoera onbidean jartzen den heinean euskarak gero eta tarte gehiago izango du auzi sisteman, eta ondorioz itzulpenak ere bai, erdaratik euskararakoak eta alderantzizkoak ere, gertakari horrek erakutsi bezala. Auziperatze horri eskeinitako artikulu bereziaz gainera, hemen ere sartu behar gorago, interpretaritzaren aipamenean, Euskal Herriko auzitegietakoaren ikuspegi orokorra ematen duen beste artikulua ere. Hari honetatik, ez da ahaztu behar gure artean zinpeko itzulpena ere errealitate izango dela aurki, auzi munduan zereginik izango bait du. Baina hori beste baterako utziko dugu.

Bost artikulu hauekin irakurleak hausnartzeko —oso modan jartzen ari den denborapasa horretarako— aski gai izango duelakoan gaude, eta eztabaidarako grina piztuko zaiolako esperantzatxoa ere ez genuke baztertu nahi. Izan ere, euskara eta erdararen —erdaren— arteko harremanek edo tirabirek normaltzera jo ahala, euskal itzul-

tzaileok euskaratzen badakigula ez ezik, erdaratzen ere badakigula erakutsi beharko dugu, eta inor ez da harrituko esaten badugu askorentzat ikasbide edo ikasbehar berria izango dela. Hasiak gara eta hasiko dira besteak, eta orain arteko arazo gaitz ezagunen buelta, oraindik ezezaguna, etorriko zaigu. Atxagaren liburuaren itzulezintasunaz elkarrizketan esaten denak, eta auzipean jarritako artikulua-  
ren itzulpenari buruzkoak emango digute bide horretarako; enbidoa hor dago: ezinezkoa al da euskaratik itzultzea?; bestek beste toki batzuetan, beste errealitate batzuetan aspaldi egindako —eta erantzundako— galdera baten oihartzuna da hau, baina beharbada galderak bestelakoa behar zuen izan: euskaratik itzultzeko gauza al gara? Eztabaida aipatu dugu lehenago, «ezina ekinez egina» esaten bait du atsotitzak, eta inolako aukerari ezin diogu ihes egiten utzi, baina *Obabakoaken* itzulpenak egin digu, ez bakarrik gaztelerara, baizik eta beste zenbait hizkuntzatarara ere euskaratik nola itzuli ikas-  
teko edo aztertzeko aukera galdu bat izango delako —beste bat esan beharko, SENEZ aldizkari beronen 1989ko zenbaki bikoitzean Koldo Izagirrek idatzitako artikulua gogoan hartuz gero—.

Bestalde, puntuz puntuko lanen artean ere izango da zer irakurri: Baltasar Céspedes humanista espainiarraren itzulpen teoria, Gregorio Arrue, «lehen itzultzaile profesionala»ren heriotzaren mendeurrena dela eta haren bizitzaz eta lanaz diharduen artikulua bat, komaren erabileraren gorabeherak, testu idatzien organikotasuna, eta irudizko hizkera itzultzean zeinen joera kontrajarriak erabiltzen ditugun itzultzaileok, erdaratik euskarara ala euskaratik erdarara ari garen.

Honenbestez, gure aldizkaria irakurtzen dutenei zer pentsa ematen badiegu pozik egongo gara. Are pozikago zer esana ere ematen badiegu; zabalik izango dituzte aldizkari honen ateak halakorik lortzen badugu.





**GAI AK**



## Atxagarekin **OBABAKOAK**en itzulpenaz

Elkarrizketari: Juan Garzia Garmendia

Bizpahiru hilabete neraman Atxagaren atzetik SENEZerako elkarrizketa hau egitea pentsatu eta hark baiezkoa eman zidanetik. Izan ere, ez du ia egunik libratzen hitzaldi, bidaia edo halakorik gabe. Azken boladan Amerika aldean ibili zaigu: Cuban aurrena eta New York eta Chicagon hurrena... Arrakastaren morrontzak. "Ni idazlea nintzen, orain errepresentatea. Sari hori eman zidatenetik, ez daukat ezertarako ere astirik, beti hara eta hona. Eskerrak lehendik bost urteko epea emana nion neure buruari hurrengo liburua idazteko..."

Asteasuko Irazune bere jaiotetxean hartu nau, eta solasaldi librean hasten gara, berritsu, galdesortari ekin baino lehen ere hona ekartzea mereziko duten zenbait kontuz enteratzen garelarik. Katalanerazko edizioa mahai gainean ikusten dut, eta horrek ematen dit bide jakiteko aurki, urtearen azken alderako edo, frantses, aleman eta italierazkoak argitaratuko direla. Editoriale bakoitzaren xehetasunak ematen dizkit; berak hasieran uste ez zuen mailakoak omen dira, eta harrিতuta —eta guztiz kontentu— agertzen da. Ingelesezko itzulpena ere egina dute, baina ez omen du editorerik: anglosaxoiak autosufizienteak dira nonbait, literaturan ere.

Argitaratzeko dauden bertzioak gaztelerazkotik eginak izanik, jarraian datozen galde-erantzunon garrantzia areagotu egiten da, noski. Besteak beste, **Jose Francisco**, liburuko bigarren ipuineko pertsonaiak Obabako txoko euskaldunetik mundu zabalera atera gabe geratuko dira: “Hurbilegi nuen; hitz bakoitza konotazio itzulezinez josia dago; nik normalean tarte bat, distantzia bat markatzen dut, eta pertsonaiak bere kasa mintzo dira... Baina hor... Nik ez baitakit nola izan litezkeen erregistro horiek erdaraz...”

Komentatzen diot ez dudala dudarik egiten, hori irakurtzean, batek baino gehiagok desafiotzat hartu duela, eta bertatik ekingo diola itzultzeari; eta ea ez ote den izan itzulezintasuna bainoago gaztelerazko bertzioa goitik beheraino berak kontrolatu beharra itzulpena inoren esku uztea eragotzi diona. Eta hala aitortzen du, berak guztiz kontrolatu nahi izan duela gazteleraz argitaratu den testua.

Horretan, eta ezustean gaian bete-betean sartzen hasiak ginela konturaturik, klasikotik ekin diot:

\* \* \* \* \*

— *Noiz sortu zen **Obabakoak** itzultzeko asmoa, eta nola burutu da lana?*

Hasierako nire asmoa zen neronek itzultzekoa. Eta banuen proposamena ere argitaratzekoa, gazteleraz argitaratzeko proposamena. Baina gerotik gerora ibili nintzen. Halako batean, Literatur Sari Nazionala zela eta, deitu zidaten Madriletik esanez lau hilabetera Sari hori epaituko da eta lehenbailehen itzulpena egin beharra daukazu, eta gainera, zati bat itzuli orduko, bidali, epaimahaikoez irakurtzeko modua izateko.

Kontua zen nik hasiera hartan oso urruti ikusten nuela; iruditzen zitzaidan beti bezala, ezta?, testigantza moduko bat edo: “han bada-go euskaldun bat”... eta ez nuen pentsatzen sekula hori aurrera joango zenik. Baina zer gertatu zen? ba, bialdu nuela aurreneko zatia —

neronek itzulitakoa— **Esteban Werfell**, batez ere, eta beste pare bat, eta orduan epaimahaiko batzuk esan zuten gehiago bialtzeko... Kontua da **Esteban Werfell** oso ondo ikusi zutela. Eta orduan, hiru hilabete aurrean, eta nik ezin nuela hura bukatu. Orduan hasi nintzen itzultzaile bila ero moduan...

Eta hiru itzultzaile aurkitu nituen. Bakoitzak hartu zuen zati bat, esate baterako, **Villamedianakoa** batek, beste batek **Azken hitza-ren bilaren** tarteko zerak, besteak bertako ipuin bakanak. Nik banatu nuen liburua tonuaren arauera, alegia, jendeak itzul zezala tonu berdinean zegoen testua. Eta hala osatu genuen hirurehun eta hogeiren bat orrialde, oso-osorik ez, beraz. Horiek izan ziren epaimahai-koek irakurri zutena. Nik pixka bat txukundu nituen gainetik...

Gero etorri zen argitaratu beharra. Eta argitaratzeko orduan ni sartu nintzen Barcelonako hotel batean, hantxe egon nintzen bi hilabete atera gabe... Izan zen bene-benetan nire bizitzan pasa dudana bolarik okerreana. Bai gorputzarentzat eta bai buruarentzat xipoi bat, baina-baina... seguru asko nozitu dudana noizpait, zeren lan egin nuen hamasei ordutatik hogeitara egunero-egunero-egunero... Pentsa ze lana izan zen. Desesperagarria!... Eskerrak sekulako agoatea izan dudana betidanik —ez dakit hemendik aurrera edukiko dudana, baina—, ni, ikasle garaietatik gaur arte, gauza naiz egoteko mahaiian eserita berrogei ordu nahi badut... eta, zera, lo egin gabe eta sustantziarik hartu gabe, alegia. Horretarako beti eduki dut sekulako erresistentzia.

— *Lehendik ere bazenuen esperientziarik itzulpenarekin, ezta?*

Baina oso gutxi, oso gutxi.

— *Eta, zer iruditu zaizu?, zailagoa al da idaztea baino?*

Bai, dudarik gabe, askoz ere zailagoa da itzultzea idaztea baino (*hiru aldiz errepikatzen du*).

— *Eta norberarena izanda?*

Norberarena izanda, are eta gehiago. Nik oso argi ikusi dut itzulpenean —edo behintzat euskaldunok egin beharko ditugun itzulpenen—

tan— bi arlo berezi behar direla oso garbi, eta bata da geure bi hizkuntzen artekoa, esan nahi dut, frantses-euskara batzuentzat eta besteentzat gaztelera-euskara: hori da arlo bat, eta oso desberdina da beste arloekin. Nik ikusten dut jendea ingelesetik euskarara edo itzultzen, eta hori beste era bateko arazoa da. Kasu honetan, arazoa aurreneko arlo horretakoa da; hau da, itzuli oso ondo —beno, bestea bezain ondo— menderatzen den hizkuntza batera. Horrek planteatzen ditu arazo... oso zailak, oso zailak.

— *Beraz, zuk orraztu egin zenuen itzulpen guztia...*

Berridatzi egin nuen. Orraztu nuen Sari aurretik, baina gero berriro den-dena goitik behera berriro egin nuen. Orduan konturatu nintzen ezinezkoa dela ohizko itzulpen hori: guk normalean itzulpena esaten dugunean zera ulertzen dugu: hemen testu bat, hemen bestea; ahalik eta paralelotasun gehiena, eta abar. Eta orduan, bi hizkuntzak ondo menderatzen badira, maila berean edukiz gero, paralelotasun hori ezinezkoa da, edo ez da komeni, nire eritzirako. Literalasuna eta jatorrizko testuarekiko errespetua, hori segituan konturatzen zara, hasi orduko konturatzen zara, ezinezkoa dela. Hain zuzen ere, errazagoa delako idaztea, itzultzea baino; askatasun gehiago daukazu eta orduan errazagoa da... Hemen daukazu arazo bat (*paperean marrazten hasten da*) ia soluziorik ez daukana ohizko itzulpenaren arauera, ezta? ba, erlatibo bat oso trakets gelditzen dena kasu honetan. Askoz errazagoa da, fuit!, beste alde batetik joan, eta orduan bertsio bat egiten duzu...

*(Honetantxe zetzan nire kezketako bat, askori entzuna baitiot—eta neure irudipena halaxe zen— ezin zela guztiz itzulpentzat jo **Obabakoakena**, bertsiotzat baizik. Elkarrizketariak ez du, hala ere, oraingo honetan bere ausardia frogatzeko aukerarik izan, berak aipatu baitu hitza. Badaezpada ere, haatik, ea hala den galdetzen diot, eta Atxagak baietz, zati batzu itzulpen alderago eta beste batzu bertsio librerago egiten dutela, baina orohar bertsio izena dagokiola).*

— *Ur handitan sartzea izango da, baina ez al dugu gauza bera egiten itzulpenez kanpo ere, arazoei ihes egin, alegia, zeure adibideko erlatibo horren kasuan, adibidez, zehaztasunari traizio egin nahiago dugula molde jakinak zabaldu baino?*

Bai, nik uste dut halaxe gertatzen dela, eta urte askotan hala gertatu beharko duela, ez dagoelako —nire ustez— beste irtenbiderik. Niretzat, arazo nagusia —ez dakit lehenago hitzeginak garen honetaz— lexikoarena da. Lexikoak aldatzen du dena, euskara-erdarara, beste edozein hizkuntzarekiko harremana lexikoak aldatzen du. Lexikoa ajedreza bezala da: ajedrezean bi pieza aldatzen badituzu, dena aldatu beharra daukazu. Ea, hitz gutxitan eta eskema moduan esateko —gainera, nik hau irakurria daukat, nahiz eta ez jakin non—: badago liburu bat... *Hizkuntzaren bilakaera Errenazimendutik gaur arte...* eta hor sartzen da, ba, kontzeptu baten inguruan —nik multzo bat bezala ikusten dut (marraztu egiten du), zuk multzo bat daukazu eta ideia bat, ezta?... Ba, ideia horren inguruan, kultur hizkuntza izan direnek hamaika hitz daukate. Zergatik hamaika hitz? ba, beharbada, aristokraziak ez zuelako erabili nahi burgesek erabiltzen zuten hitza, bereizteko, eta orduan hitz bat gehitzen ziotelako ideia horri, eta burgesek ez zutelako nahi herri xehearen hitz berdina erabili, eta beste hitz bat sortzen zutelako. Gero literatura, edo Gorteko poetak edo, hasi zirelako... Hartu edozein hitz, esate baterako, erdaraz "abandonar"... eta "dejar"... eta "hacer dejación" —abokatuek ere bere ikuttua eman diote—... Kultur gizarte horretan dauden talde guztiek nolabait beren hitza ekarri dute ideia edo kontzeptu horren inguruan.

Orduan euskaraz zer gertatzen da? Nik honelaxe ikusten dut (marrazkiaz ilustratzen du): hau izango litzateke, multzo handi hau, kultur hizkuntza batetik datorrena, eta hona, euskararen multzo txiki-kira, pasatzerakoan, nola, eman dezagun ez dela izan kultur hizkuntza, behintzat besteen tamainan, eta nolaz ez baiten hor egon talde askorik hitzegiten —ia esango genuke herri xeheak eta Elizak bakarrik hitzegin dutela—... orduan hau askoz ere txikiagoa da, ezta?, niri hau iruditzen zait dela, ez dakit ba... tuboetan bezala ikusten dut nik. Imajinatu hau dela ubide bat zabala, sekulako ur pila dakarrena, eta bapatean egin beharra daukazu hemen halako —fst!— estualdi bat, eta sartu beharra daukazu daukazun bi edo hiru molde horietan. Ez dakit adibidea ona den, baina "dejar" "utzi" da, eta "abandonar" ere "utzi", eta "hacer dejación" ere "utzi", eta dena da "utzi". Horregatik da hain erraza itzulpena beste hizkuntza batetik gurera

egiten denean, ze beti dauzkazu bi edo hiru hitz edo zaku, eta zaku horretan sartzen dituzu hor dauden matizazio guztiak, ezta?

— *Erraza bai, baina hor galdu egiten dela izugarri...*

Hori da.

— *Eta batez ere literaturan. Adibide horretan bertan, gainera, garbizale izanez gero, "abandonatu" ere onartzen ez bada...*

Hori da. Hain zuzen, hori da —nik uste— arazo nagusia. Orduan, idazterakoan bezala itzultzerakoan, niretzat, indar guztiek eta ahalegin guztiek horretara joan beharko lukete: nola edo hala lexikoaren zaborkeria hori, edo lexikoaren *holgura* hori, hori nolabait lotu eta zehaztu, eta prezisioz idatzi. Batzutan baliatuko haiz sintaxiaz... Esate baterako, zergatik erabili dut nik liburuan hainbeste gidoi arteko zera?: ba, gidoi arteko horrek nola komentatu egiten duen aurretik datorrena, zehaztu egiten du. Euskaraz erabili dudana puntuazio guztia horren zerbitzuan jarri dut: testua zehazteko. Esate baterako, nire puntu eta komaren erabilera horrekin doa erabat lotua, ze horrek bideratzen dit hemen jartzea halako perpaus nagusi bat eta abar; hemen jartzen dut puntu eta koma, eta hala, atzetik datorren guztia da aurrekoaren zehaztapena. Eta baita batzutan perifrasiaren bitartez... metaforen bitartez, eta abar.

— *Eskema oso argigarria da, baina ateratzen diren konklusioak zera dira: lexiko mailan ez da ikusten modurik beste kultur hizkuntza maiuskulazko horien mailara iristeko, eta, beraz, batetik bestera pasatzerakoan, hori beste bide batzuetatik konpentsatu egin behar da, hizkuntza bakoitzaren estatus egoera edo dena delakora egokitzeko...*

Hori da (*hiru aldiz*).

— *Eta hori ikusten da adjetibazioan, nominalizazioetan... lexikoaren maila guztietan...*

Eta horrek, nik uste, badu beste ondorio niretzat oso garbia, eta da hemen inon baino garrantzi gehiago duela komunitate literarioak, edo irakurle, idazle... horien arteko harremanak. Esan nahi dut: behin Ares-



tik erabili bazuen "bilau" hitza, adibidez, halako zehaztasun batekin, hurrengo idazleak hartu eta erabili behar du zehaztasun berdinarekin, eta zentzu berdinean, eta abar. Eta hor, nolabait, hogeitertan, lortuko genuke finkapen bat... Alegia, ni hasten banaiz "abandonar" horren inguruan "lagazio" eta halako gauzak esaten, nik bakarrik erabiltzen badut, inora ez doa. Lortu beharra dago halako —ez dakit ba nola esan— akordio bat, eta elkarrenak aintzat hartzeko konpromezu bat. Horren ondorioa da talde lana ikaragarria behar dela.

— *Horrek esan nahi du, hala ere, berez, hau nolabaiteko estrategia probisional bat dela... eta pentsatzen dut mistoa ere izan beharko duela, zenbait gauza egokitu egin beharko direla, aitortzen dugun eskastasun horren erosotasunean hogeitert horiek ez pasatzeko...*

Dudarik gabe. Nik uste dut hau dela, nolabait, pasarte moduko bat. Mende erdi bat eduki dugu, nire eritzirako, egokitzeko, beste kultur-erako hizkuntzen maila hori hartzeko, berrogeitamar urte, gutxi gora-behera. Hori da gure Damaskoko bidea, bide hori egin beharra dago nola edo hala, eta, ondo egiten bada, gero ez da prolemarik egongo. Nik uste dut prolema hau soluzio xamurrekoa dela, ez da hain zaila hau soluzionatzea, baina behar du komunitate bat, eta behar du kontzientzia bat, oso —bide batez esana— oso gutxi ikusten dena. Zera gertatzen ari zaigu: hau gure arteko itzultzaile, idazle eta abarren arteko entente bat izango balitz, nik uste dut horrek oso ondo funtzionatuko lukeela. Baina idazle eta itzultzaileen artean joera dexente daude euskararen aldetik, igoal bost edo sei joera hizkuntzari buruz. Elkarriz hartzen badiogu beretik... hor guk sortuko genuke entente bat. Baina guk, gizarte guztietan bezala, oso pisu gutxi dugu. Zeren pisu gehiena dutenak dira —gaizki esanda— gazte muturzikin batzuk, karrera batzu bukatu erdizka, titulu errax bat lortu, eta hortxe mass-medieta daudenak. Eta euskara espantagarri bat erabiltzen duen jendea... jeneralean behintzat (*adibide batez ilustratzen du: "erantsi"ren erabilera okerra*). Hitzak lanean jartzeko, egin beharra dago halako planifikazio errusiar baten arauera. Ba (*barrea ateratzen zaio*)... kinkenioz, ezta? Nik hala uste dut.

— *Batasunik ez hori arrazoi askorengatik izango da, baina oso zaila da, esate baterako, literatur itzultzaile batek eta idazle batek*

*bide beretik jotzea. Idazleak duen askatasuna—ihes egiteko askatasuna, eta beti-betiko moldeetan aritzeko— itzultzaileak ez du, laurdenik ere; hark jatorrizkoaren ildotik ekin behar dio nahitaez, lexikoan, sintaxian... Eta naturaltasun berdina eskatzen zaio, euskara goxoa eta abar...*

Nik uste dut arazorik larriena, dudarik gabe, —lehen esan dudan bezala— itzultzaileak duela. Zeren eta idazleak, esate baterako, puntuazioarekin berarekin, alde batera, arazoaren ertz bat edo alde bat betetzen du. Pieza guztiakin jokatu behar du, baina badauzka pieza batzu... Itzultzailea, berriz, nola lotuta dagoen, nik uste dut dela kasu... bai, benetan erdiragarria, dudarik gabe. Gero, esan beharra dago, horregatik, gizarte honetan oso jende gutxi konturatzen dela ze garrantzi duen itzultzaileak, eta ze garrantzi duen, beraz, itzultzaileen heziketak. Nik uste dut gaur egun euskararen arazo guztiaren inguruan dagoen elementurik funtsezkoena itzultzailea dela. Gero eta bere gainean zama gehiago daukana. Imajinen bitartez esanda, etxe hau dago bi edo hiru zutaberen gainean; ba, itzultzailea da zutabe bat, dudarik gabe pisu gehiena bere gainean hartzen duena. Eta horiek horrela, harrigarria da, hemen... niri barregura ematen dit beti hemen ze alde dagoen programatik errealitatera, ezta?, esaten dena eta egiten dena. Baina da tarte bat... baina ikaragarria, ezta? Zeinek ez du hitzegiten gaur egun euskararen alde, eta euskara asko maite duela eta abar, eta abar... Baina gero —hori oso ondo dago, baina— horrek ze ondorio dakartza zure beste bizitzako kontuetara, ezta? Eta ikusten da, ba, esate baterako hemengo talde politiko guztiak euskararen alde daudela; orain, talde horietatik zeinek dauka itzultzaile eskola... baina... Bilboko injeniero eskola baino oraindik eskola zailagoa eta gogorragoa izan beharko lukeen eskola bat sortzeko kezka? Eta inork ez dauka. Ez dago eskolarik...

*(Komentatzen diot itzultzaile eskolak zertan diren eta proiektuetan ere —bestela ere konponbide handirik ekartzeko itxurarik duenik ez ikusteaz gain— ez dela ikusten lekurik literatur itzulpenarentzat, eta Bernardok kasu egiten dit, bai, bai eta bere obsesioetako bat dena berriro errepikatu, ez dagoela, alegia, eskubiderik inork irakurtzen ez dituen testu ofizialak (“inoren kontzientzia zuritzeko” ak) itzultze-*

*ko halako gastua egin eta... baina berehala berak nahi lukeenari heltzen dio berriro:)*

Itzultzaileek beharko lukete izan talde oso mimatua, ikasi beharko lukete zazpi urtez, bekak izan beharko lituzkete... kultura bat eduki beharko lukete... Nik konprobatu dudana da zenbat eta literatura gehiago jakin itzultzaile literarioak askoz ere itzulpen hobeak egiten dituela, askoz ere hobeak. Ez da hainbeste gaitasun teknikoa, nola gaitasun kulturala edo.

Eta horrexek kezkatzen nau, hain arazo larria izan, eta ez zaiola erantzuten. Pentsa zenbat itzultzen den ETBn, adibidez, eta nola; eta nolako erantzukizuna duten. Edota euskarazko egunkariaren hori: orain arte erabili duten euskara maila bera baldin badu...

— *Urruti samar joan gara, baina itzultzaile nahiz idazleak hemen pairatzen duen egoeraz ari ginen. Zure eskema horren arauera, zer egin behar da?: testuak estatus apaleko hizkuntzatik beste nagusira pasatzerakoan, bigarren hizkuntza horri dagokion maila bertsio bidez eman? Izan ere, komentario hori dabil, ezta?, eta konparatze-ko lana hartu duenak halako aldea ikusten du, adibidez, **Camilo Lizardi** bera...*

Jendeak esaten zuten oso zaila izan behar zuela **Camilo Lizardi** itzultzea, baina justu kontrakoa gertatzen da, zeren hor badago erreferentzia bat bi hizkuntzetan landuta dagoena, berdintsua dena, Elizaren inguruko hori. Orduan, hartu Fray Luis de Granada bat, eta haren gainean marraztea bezala da, badago hizkera molde bat egina. Erraza da, era berean, *Plajio*arena, ze hor Dante eta abar daude... Baina zer gertatzen da **Klaus Hanhnen** kasuan, adibidez? Testu bat azpimarrakirik ez daukana; edo, baldin badauka, oso modernoa, edo behintzat mende honetako hizkera daukana, filme hizkera... Ba, hor oso zaila dela asmatzen...

— *Jarri duzu adibide bat oso modernoa den hizkera batena; eta kontrako kasua? Alegia, mundu rural berezi hori erdaratzeak ez al du arazorik sortzen?*

Beno, hortxe dago **Jose Franciscoren** kasua. Nik hori, esan dizut, oso barrutik ikusten dut, teatralizatu ere egin nezake; eta ez zait posible

iruditzen erdaraz ematea... Hitz bakoitza mundu bat da. Nola itzuliko duzu gizon batek esaten badu: "Bai, guk lehenago tierra asko genituen..." Ez dakit, nire mailarik arkaikoena da, nire arkeologia...

— *Eskerrak ez duzun zure obra guztia hurbiltasunezko estilo horretan idatzi...*

Bai... (*Barre egiten du*) Bai, bai, dudarik gabe. Bai, bai, bai; orduan litzatekeelako... itzulezina.

— *Eta euskarazko literatura askotan bide horretatik abiatu da, "jatortasun" bila...*

Hala ere, itzulezintasunaren kontu hori, pasaeran, jende askori entzun diot. Orain gogoratzen naiz poeta japoniar batek, Kenzaburu Oe-k, bere poemak alemanierara itzuli zituztenean, halako zerbait esaten zuela...

— *Zuk beti eraman duzu halako erreflesio eta teorizazio hari bat zeure praktikarekin batera. Aurrikusia al zenuen arazo hori gerta zitekeela **Jose Franciscoren** bidetik joz gero?*

Egia da nik teoria batekin jokatzeko dudala beti, aurrena teoria hori da, eta gero forma literarioa hartzen du. Zentzu horretan, nire literatura nire teoriaren plasmazioa dela, etsenpluak, hasi puntu eta komaren erabilera horretatik eta bizitzaren ikuspegiaraino, teknikatik filosofiaraino... **Jose Franciscorenak**, hala ere, beste arrazoi teoriko bat du: barru-barrutiko erregistro horietan egindako literaturak bide laburra du, berehala agortzen da. Bat egin liteke —eta niretzako sekulako esperientzia izan zen ipuin hori idaztearena— baina... Nik uste dut tarte bat behar dela, distantzia bat pertsonaiekiko... Itzulezintasunarena orain planteatu zait.

\* \* \* \* \*

Horraino, beraz, galde-erantzunek eman dutena. Esan beharrak asko geratuko ziren, noski. Guk, magnetofonia itzali, eta igande goiz asteasuarrak eskaintzen zuen giroan berriketan segitu genuen honetaz eta hartaz, baina "hortik aurrerakoa guk bestek ez daki".

## La traducción de *Obabakoak*. Entrevista con Bernardo Atxaga

Desde una fecha muy concreta, Joseba Irazu-Bernardo Atxaga, desdoblamiento inicial de una persona, ha sufrido una múltiple división que le ha llevado a ser a la vez persona, escritor, conferenciante, objeto de entrevistas, viajero, representante, etc. Tras un viaje por Cuba y Estados Unidos ha encontrado tiempo para charlar con Juan Garzia sobre la causa de tal geminación: su libro *Obabakoak*, o, más concretamente, sobre su traducción. Sin embargo, la charla no se agota en ese punto, y da un repaso al propio hecho de la traducción en general, y de la traducción al euskara y del euskara, así como al papel y las condiciones que cumple y que debería cumplir el traductor vasco.

En cuanto a la traducción de *Obabakoak*, además de la inicial castellana, se ha realizado también la catalana, y están en preparación otras al inglés, francés, italiano y alemán, aunque no del original vasco, sino de la versión más que traducción — como él mismo admite — castellana.

El proyecto de traducir este libro al castellano era anterior a la concesión del Premio Nacional de Literatura, y era el mismo Atxaga quien iba a encargarse de la labor. Sin embargo, al presentarse al premio se vio en la necesidad de colaborar con otras personas y de supervisar personalmente todo el proceso, para lo cual tuvo que encerrarse en un hotel de Barcelona. Atxaga vio entonces claramente la imposibilidad de hacer una traducción al uso, y la necesidad de reescribir la obra. Como él mismo confiesa, es más sencillo escribir que traducir, dado que al traductor no se le admiten licencias que puede tomarse el escritor.

Posteriormente, la charla pasa a hacer una reflexión sobre los problemas que plantea verter al euskara el desbordante nivel cultural de otros idiomas, y en este sentido defiende la necesidad de una toma de conciencia de comunidad entre traductores y escritores, una especie de entente o de acuerdo para unificar tendencias ahora dispares.

La traducción es para Atxaga un pilar importante en el mundo del euskara, y por ello se lamenta de la poca importancia que se le concede a la formación del traductor en nuestro país. En su opinión, una escuela de traductores debería ser aún más dura y exigente que una de ingenieros, y aquí ni siquiera tenemos una sola en condiciones. Menciona en este punto el enorme gasto que está suponiendo la traducción de textos oficiales que nadie lee, pero que sirven para «lavar conciencias». El traductor, para Bernardo Atxaga, debería estar mimado, debería pasar previamente por una larga etapa de formación, contar con becas para su perfeccionamiento y adquisición de una amplia cultura, que en su opinión es la base principal de un buen traductor, más importante incluso que la propia capacidad técnica.

La entrevista finaliza volviendo a las dificultades de traducir algunos textos que componen *Obabakoak*, debidas al especial ambiente en que se desenvuelven y al modelo de lenguaje que utilizan.

## *The translations of Obabakoak. Interview with Bernardo Atxaga*

*From a very specific date, Joseba Irazu—Bernardo Atxaga, the initial division of the same person, has undergone a multiple division which has led him to being, at the same time, a person, writer, lecturer, the subject of interviews, a traveller, representative, etc. After a trip through Cuba and the United States he has found time to talk with Juan Garzia on the cause of such a division: his book Obabakoak or more specifically, on its translation. Nevertheless, the talk does not stop there, and he reviews the fact of translation in general, and of the translation to Euskara and from Euskara, as well as the role and the conditions which Basque translators should and do comply with.*

*With regard to the translation of Obabakoak, besides the original Spanish version, it has also been translated into Catalan, and others are being prepared into English, French, Italian and German, although not from the original Basque but from the version, more than translation—as he himself admits—in Spanish.*

*The project to translate this book into Spanish arose before the awarding of the National Literary Prize, and it was Atxaga himself who was going to do the work. Nevertheless, on presenting his work to the organisation he realised the need to collaborate with other persons and personally supervise the complete process, and so he had to lock himself into his room at a hotel in Barcelona. Atxaga then realised clearly the impossibility of doing a normal translation and the need to re-write the work. As he himself confesses, it is easier to write than to translate, as the translator is not allowed so much liberty as the writer.*

*Later, he went on to reflect upon the problems posed by translating into Euskara the overwhelming cultural level of other languages and in this sense he defended the need for translators and writers to reach an agreement, a kind of entente cordiale or agreement to unify tendencies which currently are so divergent.*

*For Atxaga, translation is an important pillar in the world of Euskara, and for this he regrets the little importance which is given to training translators in this country. In his opinion, a translators school should be even harder and more demanding than an engineers' school, and here we do not have single school of sufficient standard. In this regard, he mentions the enormous expense that the translation of official texts that no one reads represents, but which are used for "having a clear conscience". The translator, for Bernardo Atxaga, should be treated with great reverence, should go through a long period of training, receive scholarships in order to perfect his skills and acquire a wide-ranging culture, which in his opinion is the main basis of a good translator, even more important than his technical capacity.*

*The interview concludes by returning to the difficulties of translating some of the texts which form a part of Obabakoak, due to the special environment in which they develop and the language model they use.*

## **Euskal interpretaritzaren errealitate mingotsa**

Lurdes Auzmendi  
Koldo Tapia

### **Hizkuntza normalizatzeko bidea ala tresna politikoa ote?**

Askorentzat hain disdiragarria den lanbide hau aztertzen hastera-koan bi planteamendu azaltzeko aukera daude, lanbidearen berezko errealitatea agertzea, egin dena eta egiten dena kontatuz, edo beste-la lanbideak euskal interpretarioi sortzen dizkigun arazo, neke eta frustrazio ugarien nondik norakoaz hitzegitea. Eta izenburuak ongi adierazten duen eran, bigarren aukerari heldu diogu.

Badakigu euskal hiritar arruntarentzat nahiko lanbide ezezaguna dela hau, baina ezezaguna da baita beretaz baliatu behar direnentzat ere, eta arazoak, bigarren maila honetako hutsegitetik datozkigu.

Baina bete betean gaira sartu aurretik, eta euskal interpretaritzak bizi duen egoera ulertzeko, egin dezagun euskal interpretaritzak duen bizitzaren eta errealitatearen historia labur bat. Joan den hamarkadaren haseran egin ziren euskal interpretaritzako lehen jardunak Donostian. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta Donostiako Epaitegian eman ziren lehen pausoak aldibereko interpretaritzan eta gaztelera eta alemana izan ziren lehen ihardun haue-



tako sorburu hizkuntzak. Ondoren etorri ziren Administrazio Publikoaren sailekoak eta hemen Gipuzkoako Foru Diputazioan egiten ziren Batzar Nagusien Bilerak dauzkagu esate baterako. Esanostekotik oso agudo pasa zen aldiberekora, baliatzaileek ikusi bait zuten askoz bizi eta bizkorragoa zela bigarren hau. Euskaltzaindiak 87an Leioan egin zituen Hizkuntz Jardunaldietan salto handi bat eman zen maila honetan, baina egiazko salto kuantitatiboa Mundu Biltzarrenaren eskutik etorri zen.

1988a bitartean, Eusko Legebiltzarrean, Euskal Herriko Unibertsitateko Klaustroan eta fakultateren bateko Gobernu Juntan, Epia-tegiren batean, eta Administrazio Publikoan udaletxeren bat edo bestetan eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan egiten ziren oso aldizkako saioak kenduta kongresu, hitzaldi eta maila bere-tsuko jardunetan ia erabat ezezaguna zen euskal interpretarien beharra. Aldiz, 88an egin zen II. Mundu Biltzarrean, hau Eusko Jaur-laritzak antolatzen zuela kontutan izanik, legediak hizkuntza ofizialen erabileraz ziona errespetatu eta hizlari nahiz entzuleen aldetik euskaraz hitzegin zitekeela pentsatuz, kongresu askotxotan euskarazko interpretaritza ere jarri zen. Egia esan, hizlariak euskaraz egiten zuten kasuetan salbu gure iharduna testimonio hutsean geratu zen. Geroztik, kongresuetara hedatzen ari da euskal interpretaritza, baina esan behar da Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak zuzenean edo bere partaidetzarekin antolatutako kongresuetan erabiltzen dela nagusiki euskara ere.

Euskal interpretaritzaz baliatzen diren erakunde edo kolektiboez hitzegiterakoan aipatzekoak dira Ikastolak eta nekazariak. Ikastolen eta Euskal Nekazarien biltzarretan praktika arrunt bilakatu da euskal interpretaritza; lehenengo kasuan euskararen erabileraren printzipioa bera errespetatzeko egiten dela esango genuke, bigarrenean aldiz ezinbestez, euskal nekazari askok arazoak bait dituzte gaztele-raz hitzegiteko eta beste askok berriz euskaraz ez dakite. Beste mutur batean Euskal Telebistako lehen katea jarri beharko genuke, izan ere bi urtetan teknika honetaz baliatzen jardun ondoren iaz kendu egin bait zuten kostu ekonomikoa handia zelako edo. Eta gero, beste multzo handi bat osatu dezakegu inizatiba pribatuare-



kin, kolegio profesionalek, erakunde finantzieroek, etabarrek protokolozko ekintzetan «euskara testimoniala» ondo ikusten bait dute. Euskal interpretaritza arma politiko bezala erabilia izateko lehen sintomak direla ez ezik lur ongarrtua ere pronto dagoela esango genuke.

### **Erabilera hedatzen doa, baina kalitatea?**

Euskal interpretaritza lanak egiten jarduten garenon kezka izan da beti gure lanaren kalitatea neurtzea. Gu garbi ohartzen gara ematen dugun kalitateaz eta ez daukagu hori askotan kaskarra dela esateko erreparo txikiarik ere. Itzulpenaren mundutik interpretaritza egitera pasatu gara euskal interpretari guztiok eta lanbide honek eskatzen duen teknikez ezer jakin gabe, intuizio eta ausardi dosi handiarekin egin dugu salto hondarrera eta aurrez aurre azaldu zaigun zezenak indar guztiarekin adarkatu gaitu sarritan. Honek lanbidea errespeto handiagoarekin tratatzera eraman gaitu eta, inportanteagoa dena, autodidaktismoaren arriskutik ikasteko bidean jarri gaitu.

1987an Herri Arduralaritzarako Euskal Erakundeak eratu zuen interpretaritzako lehen ikastaroan zazpi pertsona aritu ginen bi hila-betez lanbidearen hurbilketa teoriko eta praktikoa egiten. Ondoren, ikastaro honetan ibilitako batzuk Administrazio Publikoan interpretaritza lanak egiten zituzten edo egin beharko zituztenei irakasten edo bide ilun honetan argi piskabat bilatzeko laguntza ematen aritu gara. Lan honetarako balio handikoa izan zaigu Gasteizen egindako lehen ikastaro hura, baina ez dira garrantzi txikiagokoak izan 88ko eka-inen Itzultzaileen Elkarteak antolatuta John Matthews interpretari profesional eta Bartzelonako EUTI-ko irakasleak eman zigan mintegia eta eskuratu dugun bibliografiaren irakurketa eta azterketa.

Aurreratu dugu eta asko gainera, baina ikasteko eta eskuratzeko daukagunarekin konparatuta hasi besterik ez gara egin. Euskal interpretaritza beste hizkuntzetakoak duen mailara igo nahi eta behar dugu. Honetarako bidea hasi besterik ez dugu egin eta orain artekoa zaila izan bada, aurrean daukaguna ez da errazagoa izango, hori frogatu bait digu eskuratu dugun esperientziak.

## **Aurkitzen ditugun zailtasunak**

Euskal interpretarion artean beti egiten dugu euskaratik edo euskarara egin behar izaten dugun lana. Euskaratik itzultzen dugunean askoz arduratuagoak sentitzen gara, aldiz euskarara itzuli behar dugunean batez ere gaztelertatik, beti esaten dugu herri elebidun batean gaudela eta euskararekin gertatzen ez den bezala, denok dakigula gaztelera. Egia da, baita ere, gaztelera ez den beste hizkuntza batetik euskaratu behar dugunean, gero eta euskaldun gehiagok jarraitzen dutela mintzaldia euskaraz eta hor gu mugatuta gaude, frantseseko mintzaldi errazetan eta kasu batzutan ingelesekoetan salbu euskarara zuzenean itzultzeko gaitasunik ez daukagulako eta horietan jatorrizkotik gaztelerrara egiten den itzulpenaz baliatu behar izaten gara aldi berean euskaratzeko. Hizkuntzak ikasteko edo sakontzeko premia, beraz, begibistakoa da.

Esaten ari ginenera itzuliz, mintzaldia jatorrizko hizkuntzan jarraitu badaiteke askoz hobe da itzulpena jarraitzea baino, eta askotan gaztelertatik euskarara itzultzen dugunean eta euskal entzulegoaren eskubidea aitortu arren demagogia usaina ere hartzen diogu.

Baina hori ez da arazoa, arazoak beste maila batekoak dira eta hori da jarraian aztertu nahi duguna. Gure jarduna berez zaila bada, badira beste hizkuntzetako interpretariak normalean jasan behar izaten ez dituzten eta guri lanbidea jasangaitza bilakatu arazten diguten arazoak.

Euskal interpretaritzaz baliatu behar izaten diren instituzio, talde eta kolektiboek ez dute lanbide honen oinarrizko berririk. Esate baterako, eztabaidak sortzen direnean, hizlariak bata bestearen gainetik hitzegiten dute interpretariak erabat ahaztuta eta honek ezin du etenik egin eta beraz askotan bere azalpenak ulergaitzak gertatzen dira. Moderatzaileak, lokutoreak eta hizlariak, denak jarduten dira interpretariarekiko eta ondorioz entzuleekiko ardurarik gabe.

Euskal hizlari gehiegi ez daude jendaurrean hitzegiten ohituta, beren buruei hitzegiten diete eta honen ondorioak hauek izaten dira: abiadura handiegian hitzegitea, abstrakzio maila altuegia erabiltzea, hizkuntza maila korapilotsua, etab.

Eta beste arazo larria hitzaldietako testu ezarena izaten da. Gure hizlariak hitzaldia hasi baino ordu erdi bat lehenago beren testuak ezin taxaturik ibiltzen dira eta interpretarioi bost minutu lehenago pasatzen zaigu pasatzen zaigunean, sarritan ikusi ere ez bait dugu egiten. Testu idatzien eta ahozko azalpenen arteko aldea erabatekoa da gure jardunerako, ez baita berdina maila batean eta bestean erabiltzen den hizkuntza maila, ez lexikoari eta ezta estrukturari dago-kienean ere.

Beraz, kontuan izanik idatzizko itzulpenak egiten ditugunean testuaren zailtasunak direla medio askotan testuaren azterketak berak denbora lasai hartzea eskatzen digula, pentsa hori bapatean egin behar denean zer gertatzen zaigun. Euskarara edo euskaratik itzultzen denean hitzez hitzezko itzulpena erabat ezinezkoa bada, al- diberean estruktura moldaketa egitea ezinezkoa da eta horren ondorioz mezua gaizki eman dezakegu edo eman gabe utzi.

Bada, baita ere, interpretaritza zertan datzan gehiegi ez jakin eta, kasu gehienetan jatorrizko hizkuntzan mezuak duen edertasuna galdu egiten duela esaten duenik. Hemen esan behar da, interpreta- ritzaren helburu nagusia mezua ematea dela ahalik eta formarik egokienean, baina forma ez da ezinbesteko helburua.

### **Funtzio praktikoa ala funtzio politikoa?**

Azaldu dugun egoera aintzakotzat harturik eta euskal interpreta- ritza egiten dela jakinik, galdera hau egiten diogu geure buruari: funtzio praktikoaaren sustraietan murgiltzen ez badira erabiltzaileak, zein interesek bultzatuta ezartzen dute aldibereko interpretaritza? Askotan ohartu gara tamalez gure funtzioaren edertasunaz, euskal interpretariak badaude, baina edo ez dira errespetatzen (hizlariek ez gaituzte aintzakotzat hartzen eta egongo ez bagina bezala hitzegiten dute) edo han gaude, baina erderaz hitzegiten dute.

Euskal interpretaritzaren instrumentalizazio politikoa frogatzeko chundaka adibide dauzkagu eta gertatu zaigun azkenekoetako bat azalduko dizuegu frogia gisa. Joan den otsailean Gasteizen egin zen

Pirineoetako Lan Komunitatearen Osoko Bilkura. Lan Komunitate honen lehendakaritza Ardantza Jaunaren eskuetan dago azken urte honetan eta horregatik egin zen bilera Gasteizen. Pirineoetako bi aldeetako lurralde ordezkariak zeuden bertan eta lan hizkuntzak beraz katalana, frantsesa, gaztelera eta euskara ziren. Frantsesek frantsesez hitzegiten zuten noski, katalanek katalanez eta Euskal Lurralde Autonomoko, Nafarroako eta Aragoiko ordezkariak gaztelerez. Euskaraz kultura batzordearen azalpena egin zen, Euskaltzaindiko Presidenteak eta Hizkuntz Idazkari Nagusiak ere euskaraz egin zuten; eta gehiago? Ardantza lehendakariak azken agurrean hiru minutuz hitzegin zuen euskaraz eta kito; moderatzaile lanetan etengabe erderaz jardun zen eta gainera, biltzarkide batek euskaraz zuzendu zion galderari euskaraz erantzun zion baina itzulpenak funtzionatzen zuen ala ez ez zekiela aitzakiarekin gero erderaz ere eman zituen argibideak.

Agintari politikoaren aldetik euskararen erabilera publikoan axolagabekeria nabarmena da. Ohituak gaituzte «egunon/buenos dias» eta sarrerako lau hitzak euskaraz eta gero jarraian gauza bera gaztelerez itzuli eta hizkuntza honetan jarraitzera. Baina errudunak ez dira hauek bakarrik, euskararen defendatzaile sutsuenek ere ez dute maila honetan praktika jatorragoa erabiltzen eta frustrazioa gure bizkar geratzen da. Hasiak gara horrelako kasuetan arduradun zuzenei gutunak idazten eta ikusiko dugu aintzakotzat hartzen dituzten ala ez.

### **Laburbilduz beraz ondorio hauek atera ditzakegu:**

- 1.- Interpretaritza, beraz, eta edozein hizkuntzatatik egiten dela ere zaila eta neke handiko lanbidea da. Teknikak eskuratu behar dira eta lan hizkuntzak oso ondo menderatzeaz gainera kultura maila handia eskatzen du.
- 2.- Euskara hizkuntz normalizatu gabea denez, euskal hiztunek lanbide hau errazteko ahalegina egin beharko luteke.
- 3.- Interpretaritza tresna politiko bezala erabiltzea ez da etikoa, euskararen defentsa egiaz egin behar da eta horrek erabilera mailan beste erantzunkizuna eskatzen du.

- 4.- Euskararen erabilera normalizatuko balitz ere, euskal interpretariok izango dugu zereginik gure prestakuntza hobetzen, baina lehenengo premisa betetzen ez den bitartean nekez beteko dugu bigarrena.

Apustu handi baten aurrean aurkitzen gara, erantzunkizunaz ohartzen gara eta lanbideak, hizlariek eta entzuleek merezi duten duintasuna eman nahi diegu, baina eginkizun honetan bakarrik uzten bagaituzte iritsi garen mailan betirako geratzeko arriskua dauka-gu eta hori euskararen galerarako izango da.

## SINTESIS

### **La amarga realidad del intérprete de euskara**

En este artículo se analizan los problemas y dificultades de todo tipo a que se enfrentan actualmente los intérpretes de lengua vasca, profesión o actividad ésta con muy pocos años de existencia. Así, unas primeras jornadas sobre interpretación de euskara se celebraron a inicios de la pasada década en San Sebastián; los primeros pasos en interpretación simultánea se dieron en la Facultad de Ciencias de la Educación y en la Audiencia Provincial de San Sebastián, con el castellano y el alemán como lenguas de partida. En la administración pública la interpretación se inició en los plenos de las Juntas Generales de Guipúzcoa. Rápidamente se dio el paso de la interpretación consecutiva a la simultánea, al ser ésta mucho más dinámica. Sin embargo, el verdadero salto cualitativo se dio con motivo del Congreso Mundial Vasco de 1987. A partir de entonces, la interpretación en euskara pasó de ser utilizada únicamente en instancias oficiales (diputaciones, ayuntamientos, universidad, etc.) a aparecer también en diversos tipos de congresos, incluso de iniciativa privada, si bien en su mayor parte siguen estando organizados por las instituciones políticas del país. El camino contrario se ha dado en la televisión vasca, en donde se ha reducido prácticamente al mínimo.

Cada vez, pues, es mayor el uso de la interpretación en euskara, y ello lleva a los profesionales de este campo a plantearse los niveles de calidad que debe alcanzar su labor, dado que todos ellos han pasado de la traducción escrita a la oral, sin prácticamente preparación especializada, y con grandes dosis de intuición y valor. En este sentido, ha habido varios cursos o seminarios desde 1987 organizados por la Administración y por la propia Asociación de Traductores Vascos.

En cuanto a las condiciones en que se desarrolla la interpretación en lengua vasca, ésta se hace generalmente entre el euskara y el castellano, de manera que

resulta preciso trabajar a relé (escuchando la traducción al castellano de otro intérprete) cuando el orador se expresa en una lengua distinta. Ello plantea, pues, la necesidad de ampliar el conocimiento de idiomas de los propios intérpretes, dado que el público vascohablante que asiste a congresos en los que se emplean otras lenguas suele inclinarse por oír la traducción al euskara con más frecuencia que cuando el orador se expresa en castellano.

Sobre los problemas que conlleva esta labor cabe mencionar el hecho de la falta de costumbre de hablar con intérpretes de parte de muchos conferenciantes, moderadores, etc., que suelen hablar excesivamente rápido, con lenguaje complicado y poco estructurado, etc., lo que convierte la labor del intérprete en puro sufrimiento.

Por otra parte, la labor de los intérpretes en euskara no siempre es tomada en consideración por los propios oradores ni por el público, y ello lleva a pensar que muchas veces cumple una función meramente decorativa. Es el caso de los políticos vascos, pero no sólo de ellos, que continúan haciendo un uso testimonial de la lengua vasca aun a sabiendas de que su mensaje puede ser recibido en condiciones más o menos correctas por aquellos oyentes que desconocen el euskara.

Todos estos problemas vienen a dificultar el perfeccionamiento de los propios intérpretes, necesario a todas luces, ya que no contribuyen a crear el ambiente necesario para invertir esfuerzos en ese perfeccionamiento. Y en este empeño deben participar tanto los profesionales de la interpretación como los propios oradores y los oyentes.

## **ABSTRACT**

### ***The bitter reality of Basque Interpreters***

*In this article we analyse all types of problems and difficulties which interpreters of the Basque language face at this time, a profession which has existed for very few years. Thus, the first congresses on Basque Interpreting were held at the beginning of the last decade in San Sebastián; the first steps in simultaneous interpreting were taken in the faculty of Educational Science and in the Provincial Court of San Sebastián, with Spanish and German as basic languages. At a government level, interpreting began at the meetings of the General Assemblies of Guipúzcoa. The step from consecutive to simultaneous interpreting came quickly, as the latter was much more dynamic. Nevertheless, the real jump in quality arose as a result of the Basque World Congress in 1987. As of that moment, Basque interpreting went from being used only on an official basis (provincial councils, town halls, the universities, etc.) to appear also at different types of congresses, even those privately organised, although the majority of these are currently arranged under the auspices of*

*the political institutions of the country. On Basque television, the opposite has happened, interpreting having been reduced to a minimum.*

*Basque interpreting is, therefore, becoming more and more important, and has led professionals involved in this work to set the levels of excellence which they must strive to achieve in their work, as all of them have gone from written to oral translation, with virtually no specialised training, and with a great deal of intuition and courage. In this sense, there have been several courses or seminars since 1987 organised by the Government and by the Association of Basque Translators itself.*

*With regard to the conditions under which interpreting in the Basque language is carried out, this is normally done in Basque and Spanish, so that it is necessary to work in relays (listening to the translation into Spanish of another interpreter) when the speaker expresses him or herself in a different language. This poses, therefore, the need for extending the knowledge of the languages of the interpreters themselves, as the Basque-speaking public which attends congresses in which other languages are used, tend to prefer to listen to the translation to Basque when the speaker expresses him or herself in Spanish.*

*Regarding the problems involved in this work, mention should be made of the fact that many lecturers, chairpersons, etc. are not used to speaking through interpreters, and usually speak too quickly, with complex, poorly structured language, etc., which makes the work of the interpreter really difficult.*

*On the other hand, the work of Basque interpreters is not always taken into consideration by the speakers themselves nor by the public, and this leads us to believe that it fulfills a merely decorative role. This is the case of Basque politicians, (although not exclusively theirs), who continue to use the Basque language even with the knowledge that their message can be received under more or less correct circumstances by those listeners who do not speak Basque.*

*All these problems impede the improvement of interpreters themselves, which is clearly necessary, as they do not provide sufficient encouragement for them to make an effort to improve. What is more, both professional interpreters and the speakers themselves must share this task.*





## **Euskal erakunde publikoak eta itzulpengintza: Eusko Legebiltzarra**

Mikel Garmendia

Eusko Legebiltzarra sortu zenetik hamar urte bete berri direlarik, egokiera ona dugu berau hamar urteotan Eusko Legebiltzarrean egindako itzulpengintza, gainetik bada ere, aztertzeko.

Eratu zenetik (1980ko martxoak 31), Eusko Legebiltzarrak guztiz bere egin nahi izan du Gernikako Estatutuak agintzen duena, hots: «Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».

Ildo honetatik Eusko Legebiltzarrean lehenengo Araudiak (behin-behingo aldia gairiditurik) honela dio Aitzin-Idazpuruan: «Euskara eta gaztelania dira Eusko Legebiltzarreko hizkuntza ofizialak, biak aukeran erabili daitezkeela; Legebiltzarraren argitalpenak bi hizkuntzetan egongo dira».

Hirugarren legegintzaldiaren hasieran osoko bilkurei buruzko Bilkura-Egunkarien argitarapenean hutsune handia batetik, eta, bestetik, Aldizkari Ofizialean legebiltzar eta legegintza bizitzari eragiten dieten egitatei buruzko dokumentazio urritasuna nabari dira.

Esan beharrik ez dago 1980.ean Eusko Legebiltzarra eratu zenean oso baliabide urriz hasi ginela ibilian. Eta, jakina, baliabide urritasun hau egitura, antolakuntza eta abarren mailakoa izanik, zer esanik ez itzulpengintzari bagagozkio.

Hasiera hartan hiru itzultzailek, idazkari batek eta itzulpen zerbitzuburu batek osatu genuen itzulpen saila eta itzulpengintzari ekin. Begibistakoa da gaur egun oraindik hizkuntza administratiboa finkatzeke badugu, garai hartan ere finkatzekeago geneukala. Hor-taz, osoko bilkurak itzultzeari ekin genion, eragozpenak sortu ahala ebartziz eta emandako irtenbide hauek jasoz halako hitz bilduma osatuz (1985ean argitaratua: *Agintaritza-Aldizkarietatikako Hitz-Bilduma*).

Harrez gero euri asko egin due ta hamarkada honetan ez da, garbizalekeria dela eta ez dela, itzulpengintza motari buruzko ezta-baida, ihardunaldi eta antzekorik falta izan.

Nolanahi ere den, eztabaida hori gainditzen hasiak garela esango nuke, eta euskal hizkuntza administratiboa finkatzeko bidea luzea bada ere normaltzen hasia delakoan nago.

Egitate hauen azterketak Itzulpen Zerbitzuak Estatutu eta araudiaren agindua betetzeko zuen baliabide eskasia erakusten du. Horregatik izan du Itzulpen Sailak legegintzaldi honetan bultzada handia, giza zein gauzako baliabideetan, elebitasunak ezartzen duen lan itzela gauzatu ahal izateko: Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, Osoko Bilkuren Egunkaria, barne adierazpenak, legegintza etabar elebidun egitea. Honi buruz hartutako neurri nagusienak aipatuko ditugu:

a) Giza baliabideak:

1987: – Itzultzaileen eroldari beste bi erantsi zitzaizkion.

1988: – Urtean zehar beste bi itzultzaile sartu ziren erroldan.

– Lau itzultzaile akuratu ziren aldibaterako atzeratutako bilkura-egunkariak egunera jartzeko.

b) Baliabide materialeak:

- Testuen tratamendurako pantailak ezarri ziren itzultzaile bakoitzak bere terminala duelarik.

d) Baliabide osagarriak:

- Lehiaketa bidez Legebiltzarraren zerbitzuetatik kanpoko itzultzaile talde bati bigarren legegintzaldiko itzuli gabeko bilkura-egunkariak eman zitzaizkion itzultzeko.

Gaur egungo egoera eta duela hamar urtekoa alderatuz gero, argi eta garbi dago egoera biziki hobetu dela eta hirugarren legegintzaldiaren hasieran emandako bultzadak berebiziko garrantzia izan duela aurrera egite eta hobetze honetan.

Dena den, Eusko Legebiltzarra ez da (ez genuke nahi bederen) euskal administrazio-itzulpengintzaren mundutik at bizi eta mundu honek dituen arazo berberak soma daitezke: terminologi batasunik eza, sintaxi arazoak, etabar luze bat.

Beraz, ikusi dugunez baliabide materialei dagokienez aurrerapauso handiak egin direla esan behar. Bada, haatik, premia handiz egin beharreko beste aurrerapausurik: zehazki esatearren, idatzizko itzulpengintzari eman zaion bultzada behar du Eusko Legebiltzarrean interpretaritzak. Iragan hamar urteotan inongo prestakuntzarik gabe ihardun dugu aldi bereko itzulpengintzan ahal izan dugun bezala konpondu garelarik. Egina dugu jadanik prestakuntza hori jasotzeko eskabidea eta laster batetan erantzungo digutelakoan gaude.

Prestakuntzarik gabe ihardun izan honek bi alderd ditu, noski: prestakuntzarik eza eta ihardun izana. Ihardun izanak esperientzia ematen dio interpretariari, baina prestakuntzarik ezaz ihardun izanak hainbat arrisku dakar bere baitan: zenbait bizio hartzea (makinez idazten bere kasa ikasten duenak bezala), errekurtsorik eza, etab.

Bestalde, hizlariak, parlamentariak, ez daude jabetuta, edo, hobeiki esanda, ez ditugu ongi ohitu. Esan nahi dut, askotan gertatu dela parlamentari batek bere mintzaldia idatzita ekarri eta aldeztatik interpretariari eskuratu gabe izugarrizko abiadan irakurtzea.

Jakina, arazo hauek guztiak araututa dituzte hizkuntza normalduago duten beste herrialdeek, eta gure kasuan ere araupeketa horren premian gaude.

Esan gabe doa, prestakuntza eta interpretaritzari buruzko araudia etabar behar-beharrezkoak baditugu, badugu horiek baino lehenago eman beharreko pausurik: egundaino nahasi egin dira interpretaria eta itzultzailea. Gai eztabaidagarria dugu berau, lanpostu horietara heltzeko frogak ez bait dira denak berdinak izan eta aldatuz joan bait dira. Nolanahi ere den, bistan da gauza bat dela interpretaria eta besterik itzultzailea, nahiz eta pertsona berak, derrigorrez ez bada ere, bi eginkizunak bete ditzakeen.

Ondorioz, interpretaritzan iharduteko ezinbestekoa dugula esan behar prestakuntza, eta lehen hortarako aukerarik ez baguenen, gaur egun hor dugu, besteak beste, EIZIERen interpretaritzaren batzordea arazo guzti hauek planteiatzeko, interpretarien prestakuntza eta trebakuntza bideratzeko eta esperientziak elkar trukatzuz interpretaritzaren garatzeko.

### **Legebiltzarreko mintzaldi transkribatuen itzulpena**

Beste gai batera igaroz, laburki zehaztearren, epaiketa, diputatu- en kongresu eta antzekoetan aretoaren erdikaldean makinaz idazten duen estenotipistak transkribatu ohi dituen mintzaldi eta diskurtsoez arituko gara orain. Beste hainbat erakundetan, hala nola udaletan, etab., ez da transkribapenik egiten, izandako mintzaldi edo interbentzioen laburpen modukoa baizik. Beste batzutan, estenotipistaren lana grabagailu batek egiten du besterik gabe, jarraian erredaktoreek beharrezko zuzenketak egin ondoren grabaturiko zinta hauek papereratzan direlarik dauden-daudenean argitaratzeko, edota hauek itzuli ondoren argitarapen elebiduna ateratzeko.

Parekotasuna begibistakoa da. Esan nahi dut, transkribatutako testuaren itzulpen idatziaren parean aldi bereko deituriko itzulpena jarri genezakeen bezalaxe, halako hizkuntzan egindako diskurtso baten idatzizko laburpenaren parean esan osteko itzulpena jarri genezakeela mintza mailan:

- |                                |   |
|--------------------------------|---|
| a) Aldi bereko itzulpena ..... | Transkribaturiko<br>testuaren itzulpena |
| b) Esan osteko itzulpena ..... | Idatzizko itzulpen<br>laburtua          |

Aldea nabarmena dugu, lehenengo kasuan hitzez-hitzeke itzulpena egiten ez bada ere esandako guztia itzultzen bait da, eta bigarrenean, aldiz, ahal den heinean, jatorrizko diskurtsoan emandako ideia nagusienak itzultzen bait dira. Honako konparaketa xeble samarra gerta badaiteke ere a) eta b) kasuak bereizten lagunduko digulakoan nago, hots: koka gaitezen futbol partidu baten kontestuan. Aldi bereko itzulpena arbitro jaunak egingo luke eta transkribatutako testuaren itzulpena mobiolatik aterako genuke. Esan osteko itzulpena komentariak egingo luke zuzenean, eta idatzizko itzulpen laburtua egunkarietan irakurriko genuke astelehen goizean.

Idazlan honek a) kasua aztertzen eta zenbait ondorio ateratzen saiatuko gara, erreferentzia gisa Eusko Legebiltzarrak argitaratzen duen Bilkura-Egunkaria izango dugularik.

Hona a) kasuko transkribatutako testu baten itzulpena:

De todas maneras, efectivamente, quiero considerar, y he considerado con otros grupos políticos, pues, el esfuerzo que ha habido en este sentido; que se ha llegado a esa solución de esos 750 millones que, aunque realmente son insuficientes, pues van a posibilitar por lo menos, aunque sea a nivel de atención o aunque sea a nivel, bueno, de un simbolismo real, cómo se debe orientar también el próximo Presupuesto del año 82, y también, pues, las mismas variaciones, y en algunos casos de cierta entidad, que han sufrido los presentes Presupuestos.

Gisa guztiz, izan ere, alde honetan egindako ahalegina nahi dut aintzat hartu, eta hala egin dut beste zenbait politika-talderekin; 750 miloi horien konponbidera heldu dela, miloi horiek, zinez urriak badira ere, besterik ez bada, arduratzen aldetik behintzat edo egiazko irudikatze aldetik behintzat, 82. urteko hurrengo Diruegitamua ere nola bideratu beharra dagoen bederen erraztuko bait dute; eta orobat, oraingo Aurrekontuok izan dituzten aldaketak berak, zenbaitetan handi samarrak direnak. (\*)

(\*) Bi testuok Eusko Legebiltzarrak argitaratzen dituen Bilkura-Egunkarietatik hartuak dira.

Ezin dugu inolaz ere ahantz itzuli beharreko testua idatziz ematen bazaigu ere transkripzio hutsa dugula, hau da, hor esandakoak ahoz esanak direla. Honek baditu bere ondorioak. Hizlaria oratorian oso trebatua izan ezik, hizkera hori ez da sekulan patxadaz pentsatu ondoren maila logiko-gramatikal handiko testuetakoa bezain landua izango. Hizkera azkarra, bapatekoa eta zenbaitetan traketsa ere aurkituko dugu honelakoetan. Honen erakusgarri ditugu mintzaldi horietan erabiltzen diren hainbat eta hainbat «muletilla» eta antzeko askotan sobran bait daude, hala nola *bueno*, *en definitiva*, *pues*, *efectivamente*... Hauek, gehienetan, hutsuneak betetzeko besterik ez dira eta, jakina, euskaraz ere badugu horrelakorik. Arazoa, alabaina, gaztelerazko «muletilla» horiek itzultzeko euskarazko baliokideak topatzean datza. Gaztelerazko *pues* euskaraz bada esaten dugu, eta erruz edo maizegi gainera. Efectivamente itzultzeko, aldiz, kontestuari begiratu behar: *izan ere*, *egia da*, *hain zuzen*... Euskaraz *bueno* esateko nola jokatu? *Beno* jartzea ez al da artifizialegi gertatzen? Ez al da, maila kolokialean bada ere, euskaraz ere *bueno* esaten?

Azken finean arazo guzti hauen zergatia euskal oratoria sendotaren tradizio eza genuke. Edota, are soilago: euskal hizlariak gaztelerazko eskema logiko-gramatikalak darabiltzate euskarazko diskurtsoak egiteko. Hona honen erakusgarri oraintsuko euskarazko interbentzio bat:

Beraz, zai gelditzen gara itaun honen erantzunari, eta, edozein kasutan eskatzen diogu Sailburu jaunari arreta berezi bat eskaintzea gai honi, kontutan izanik alde batetik 300 pertsonaren etorkizuna ikusten dugula, nolabait, zailduta, eta beste alde batetik Arabako nekazaritzan erremolatxa alorrak daukan garrantzia. Eskerrik asko. (\*)

Testu honen itzulpena hitzez-hitz eman genezake gazteleraz, hizkuntza honen ordena berbera eta baita zenbait espresio-kalku ere; hala ere, badirudi egokiago litzatekeela en *cualquier caso* euskaraz emateko *nolanahi ere den* edota antzekoez baliatzea *edozein kasutan* jartzea baino.

Bestalde, aipatu testuko zai gelditzen gara itaun honen erantzunari ez genuke dudarik gabe normalean honela esango.

Dena dela, oso kontutan izan behar dugu mintzaldien transkribapenak ditugula eta ezin zaindu, hortaz, aldez aurretik idatzirik presaturiko testuek izan ohi duten logikotasuna, gramatikaltasuna, anakolutorik eza, etab.

Beraz, maila honetan euskarak gaztelerak dituen zailtasun berberak azalduko lizkiguke.

Arazoa, ordea, areagokoa dugu: inork halako hizlarik halako bilkuratan zer-nolako diskurtso, erreplika edo dena delakoa xeheki jakin nahi izanez gero aski ote transkribatutako mintzaldi haren itzulpena irakurtzea? Esango nuke zer esan zuen baietz, hori jakingo genukeela; ez, alabaina, nola, zer espresio-moduz, doinuz, etab.

Bestalde, hor dugu elebitasunari dagokionez askoz ere aurrera-tuagoa dagoen Kataluniaren kasua. Han ere argitaratzen bait dituzte, Valencian eta Galizan bezalaxe, bilkura-egunkariak, baina ez hitzez-hitz itzuliak. Han transkripzio hutsa argitaratzen dute, beharrezko zuzenketak egin ondoren, noski. Kontua begibistakoa da: gazteleraz dakien batek oso erraz aditzen ditu katalaneraz, balentzieraz edo gallegoz egindako mintzaldiak. Euskaraz egindakoez, al-diz, ezin honelakorik esan.

Irtenbide ideala euskal politikari guztiek euskaraz ikastea litzate-ke, jakina denez. Bitartean hona beste irtenbide posible bat: Katalu-nian, Valencian eta Galizan bezala transkribapen hutsa argitaratu eta euskarazko mintzaldi urrien laburpen gisakoa eman, ideien itzul-pena esaten dena, alegia.

## SINTESES

### **La traducción en las instituciones vascas: el Parlamento Vasco**

El Parlamento Vasco, desde su constitución hace ahora diez años, tiene asumido el Estatuto de Gernika, en el que se sanciona la oficialidad del euskara y del castellano. En ese sentido, el primer reglamento del Parlamento Vasco dispuso que las publicaciones realizadas por esta institución fueran bilingües.

La escasez inicial de recursos, evidentemente, afectó a la labor de traducción. El departamento de traducción estaba formado en un principio por tres traductores, un secretario y el jefe del servicio, y tuvo que enfrentarse, en aquel entonces, al problema de la falta de consolidación del uso del euskara en el lenguaje administrativo.

Durante este último período legislativo el departamento de traducción ha recibido un gran impulso, en recursos humanos y materiales. Por una parte, cuatro nuevos traductores han pasado a formar parte de la plantilla, mientras que otras cuatro personas más han sido contratadas temporalmente para la traducción de los diarios de sesiones atrasados. Asimismo, se ha provisto a cada traductor de un procesador de textos. Finalmente, por medio de un concurso público, se ha adjudicado a un grupo de traductores externo la traducción de los diarios de sesiones del segundo período legislativo que se encontraban aún sin traducir.

Es evidente que la situación ha mejorado sustancialmente, si bien el Parlamento Vasco no es ajeno a los problemas que aún hoy en día afectan a la traducción de textos administrativos al euskara: falta de unificación terminológica, problemas de sintaxis, etc.

Por último, se observa la necesidad de dar a la interpretación el mismo impulso que se ha dado a la traducción, ya que hasta el momento dicha labor de interpretación ha sido realizada sin ningún tipo de preparación previa, con los riesgos que ello lleva consigo. Una y otra son, sin duda, distintas labores, que exigen distinta preparación.

#### **Traducción de intervenciones orales**

La traducción de intervenciones orales transcritas tras ser registradas por estenotipia o registradora suelen realizarse de dos maneras diferentes: en ocasiones las intervenciones se traducen literalmente, mientras que, en otros casos, la traducción queda reducida a ofrecer una síntesis de las intervenciones.

En el caso del Diario de Sesiones del Parlamento Vasco, junto a la transcripción completa de las intervenciones se publica la traducción literal de las mismas. Las mencionadas transcripciones de las intervenciones orales no presentan, evidente-



mente, el nivel lógico-gramatical del texto escrito; se refleja en ellas un lenguaje improvisado, espontáneo y, a veces, incluso torpe, cargado de muletillas. La inexistencia de una tradición oratoria consolidada en euskara plantea dificultades a la hora de encontrar los equivalentes de esos elementos. Se constata además, en las intervenciones en euskara, que los oradores se rigen a menudo por esquemas lógico-gramaticales más propios del castellano que del euskara.

En Cataluña, al igual que en Valencia y Galicia, los diarios de sesiones recogen únicamente la transcripción de las intervenciones. A diferencia de lo que ocurre con el euskara, las intervenciones realizadas en cualquiera de las lenguas propias de esas comunidades son fácilmente comprensibles para cualquier persona con dominio del castellano.

Si bien la solución ideal sería que todos los políticos vascos aprendieran el euskara, una solución transitoria podría ser publicar únicamente las transcripciones de las intervenciones, acompañadas, en el caso de las realizadas en euskara, por su síntesis en castellano.

## **ABSTRACT**

### ***Translation in Basque institutions: the Basque Parliament***

*The Basque Parliament, since its constitution ten years ago, has adopted the Statutes of Gernikā, in which the official nature of Basque and Spanish is highlighted. In this sense, the first ruling of the Basque Parliament declared that publications made by that institution were to be bilingual.*

*The lack of initial resources had a clear effect on the work of translators. The translation department was formed, initially, by three translators, one secretary and the Head of the Service, and at that time had to face the problem of a lack of consolidation in the use of Basque in government language.*

*During the last legislature, the translation department has received a great deal of backing, both in terms of resources and materials. On the one hand, four new translators have joined the staff, while another four persons have been given temporary contracts for the translation of the existing backlog of Reports of Proceedings. Likewise, all the translators have been provided with a word processor. Finally, by public tender, the translation of the Reports of Proceedings corresponding to the second legislature, which had not been translated, were awarded to an outside group of translators.*

It is clear that the situation has improved substantially, although the Basque parliament is not free of the problems which even today affect the translation of government texts into Basque: a lack of a standardisation of terminology, syntactic problems, etc.

Lastly, there is a clear need to give interpreting the same stimulus that has been given to translation, as until now this work has been carried out without any kind of previous training, with the risks that this involves. They are, without doubt, different types of work, which require different training.

## **Auzitegietako interpretaritza**

Alberto Amorrortu

HAEeko Euskalduntze Zerbitzuko itzultzaile-interpretari taldea aritu izan da azken urte hauetan auzitegietako interpretaritza egiten<sup>1</sup>. Izan ere, Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Administrazioak, azken bolada honetan itzultzaile-interpretariak kontratatzeari ekin badio ere<sup>2</sup>, HAEera, besteak beste, jo izan ohi du interpretari bila, erakunde honen zereginetako bat bait da, ihardutze-sail ofizialek hala eskatuz gero, itzulpen-interpretaritza egitea (ikus araei buruzko eranskina, HAEeren egitura-dekretuak).

HAEeren talde horretako kide izanik, auzitegietako interpretaritzan izan dudan esperientzia laburraren ondoriozko gogoetak (Azkueren hiztegia, 2. adiera) azaltzen ahaleginduko naiz.

Zuzentza-Administrazioaren egoera aipatuz ekingo diot honi. Ezin esan Zuzentza-Administrazioa behar-bezala edo modu norma-

---

1. 1986: 6 saio. 1987: 23 saio. 1988: 24 saio. 1989: 29 saio.

2. Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, Bilbon, bi itzultzaile-interpretari ari dira. Bana Donostiako eta Gasteizko Probintzi Auzitegietan.

lean aritzen denik: arazoak erabakitzeak luzeegi jotzen du, epaile eta idazkarien mugikortasunak buru gabe uzten ditu auzitegi-epaitegiak, baliabide materialak urriak dira (Euskal Autonomi Elkarteak gauzazko baliabideen konpententzia hartzeak konponduko ahal du hori...).

Hizkuntzaren edo hizkuntzen arazoa gehitu behar zaio horri: lege-arauek aitortzen dutenez (ikus araei buruzko eranskinean, Konstituzioa, Estatutua, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea eta «Ley Orgánica del Poder Judicial» delakoa), bi hizkuntza ofizial dira Euskal Autonomi Elkartearen, eta ondorioz, horko Zuzentza Administrazioan. Norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea oinarritzko eskubide da. Euskararen erabilera, goraka egin badu ere, minoritarioa da, orde, gutxi entzuten da epai aretoetan: erabiltzeko tradizioarik edo ohiturarik eza, funtzionariak, epaile eta idazkariak batez ere, erdaldunak izatea -estatu mailako funtzionariak direla gogoratu behar da- eta horietako batzuren euskararekiko joera (prozesua gehiago luzatuko delako ustea...), langile euskaldunen prestakuntza falta. Arrazoiak ugari.

Guzti horrek lan baldintza eskasekin aritu beharra ekarri dio interpretariari. Alde batetik, aretoan kokatzeko arazoak, lana betetzeko toki egokirik eza..., ez dira konpontzen zailak. Bestetik, pertsonen jarrerak: batzutan, funtzionariak, abokatuek eta interpretariak baliatzen direnek ez dute interpretariaren lana estimatzen, zailantzat jartzen dute («Zer adierazten duten galdetzeko izan nintzen... baina ez nintzen ausartu, itzultzaileez fidatu ez edo», Pronxiok izenpetutako artikulua, 1990-2-8ko EGIN).

Testuingurua kontutan izanik, interpretaritzaren berezitasunei lotuko gatzazkio jarraian.

Dakikegunez, ahozko itzulpena, interpretaritza, bi eratakioa izan daiteke: esanosteko interpretaritza, hizlariak bere saioa edo diskurtso zatia bukatu ondorengoa; aldibereko interpretaritza, hizlaria hitz egiten ari den bitartean burutzen dena.

Esanosteko itzulpena da Euskal Autonomi Elkarteko auzitegi-epaitegietan bi hizkuntza ofizialen artean gehien erabiltzen dena

(aldiberekoa, Nuremberg-eko epaiketari buruzko filmeetan baino ez dugula ikusi esango nuke).

Esanosteko interpretariak, hizkuntza baten entzun duena bestean behar-bezala emango badu, hau da jatorrizko mezua jaso eta dago-kionariulerterazi, lehendabizi mezua ulertu, aldiberean ematen ez denez, gogoratu, eta azkenik, xede hizkuntzan era koherente eta ulergarrian eman behar du.

Goian aipatutako bideari jarraiki, has gaitezen ulermenarekin:

## Ulermena

Bi motatako arazoak azpimarratuko nituzke hemen:

- A) Hizkuntza arrunta ulertzeari buruzkoak: sarritan gertatzen da zuzentza-administrazioaren zerbitzua eskatu duena, interpretaria eskatu duen hizlaria, alegia, eta interpretaria euskalki berekoak ez izatea (hizlaria baserritarra izatea eta interpreta-ria euskaldunberria, hizlaria Gipuzkoako kostaldeko arran-tzalea izatea eta interpretaria bizkaieradun alfabetatua...). Elkar ulertzeko arazoak sor ditzake horrek (esate bateko, **bi-zilaguna** hitza: bizkaieradun euskaldun batek «compañero/a» itzuliko luke, hizlariak esan nahi zuena gaztelerazko «vecino»tik hurbilago den bitartean. Ñabardura horrek ga-rrantzi handia izan dezake). Beraz, komenigarri litzateke hizlariaren euskalkia ezagutzen duen interpretaria izatea: bai epaileak, L.O.P.J. delakoaren arabera hizkuntza ezagutzen duen edonor aukera dezake interpretarirako (ikus araei bu-ruzko eranskina, L.O.P.J), bai interpretaria bidaltzen duen erakundeak, kontutan izan beharko lukete hori.
- B) Lege eta Zuzentza arloko hizkuntza ezagutzea: zuzentza edo lege arloa eta hizkuntza juridikoari buruzko ezagupenek kalte egin ez ezik, beharrezko direlakoan nago, hau da, zein inguru-tan aritu, hura ezagutu behar: auzitegi-epaitegien antolakun-tza, zuzentza funtzionariak, prozesua zer den, prozesu motak eta horien aldiak, ahozkotatasuna zeintzutan erabiltzen den

gehiago (zibil eta lan arlokoetan), lege arloko hizkuntza bereziko terminologia, arazo zehatzaren nondik norakoa (auzi espedientea epaiketa edo ekintza aurretik eskatu eta ez didate inongo eragozpenik jarri). Euskarazko lege arloko hizkuntza finkatu edo normaldurik izan ez arren, berebiziko garrantzia du gatzelaniazkoa, traketsa, bihurria, klitxetua (*el dicente, con la venia, trámite de conclusiones definitivas, circunstancias modificativas, se desarrolla la prueba de cargo, la retractación de los testigos...*) ulertzeak, gero eman ahal izateko. Auzitegietan arituko den interpretariak, edozein interpretarik beharrezko dituen ezagupen eta dohainez gain, arlo horretako ezagupenak behar ditu: ez dut uste interpretarien prestakuntzarena konponduta dagoenik, are gutxiago auzitegietako interpretariena. HAE Eren Administrazio eta Lege Arloko Itzultzaile Eskolak saioak egin ditu, baina beldur naiz bide hori ez ote den itxi; baliteke Unibertsitateak zeregin hori bere gain hartzea. Epe laburreko beharrak ezin dira ahaztu, ordea.

## Oroimena

Lehen esan bezala, esanosteko interpretaritzak oroitzea eskatzen du ulertzeaz gain. Auzitegietako kontestuak berezitasunak ematen dizkio oroitu behar horri. Izan ere, datak, zenbakizko datuak, enumerazio luzeak, toki izenak, pertsonaia desberdinak, harreman nahasiak, kontrako bertsioak... sarri agertzen dira itzulgaietan. Gure oroimen ahulaz fidatzea baino, hobe dugu esanosteko interpretaritzako notaketa teknika ikasi eta erabiltzea, fidelotasuna ezinbesteko gertatzen bait da hemen, besteak beste, zehaztasunik eza kode penalaren esparruan sar daitekeelako (ikus eranskina, Código Penal). Prozesu penaletan, behin baino gehiagotan gertatu zaigu salatuaren abokatu defendatzaileak, edo salatuak berak, interpretariak ehuneko ehuna itzuli ez duela argudiatzea. Gakoa bezain garrantzitsu dira zirkunstantziak hemen<sup>3</sup>.

3. Ikus Koldo Bigurik interpretaritzari buruzko ikastaroez egindako aipamena: SENEZ 1989, 1-2 zenbakiak, 215-217 orr.

## Mezua ematea.

Bi hizkuntzetatik interpretatzea, bi hizkuntzetan eman beharra gerta dakiguke: normalean epaileak edo funtzionarioak gaztelaniaz esaten duena euskaldunari itzuli behar zaio eta hizlari euskaldunaren diskurtsoa epaile-fiskal eta abarrei. Euskal Autonomi Elkarteko bi hizkuntza ofizialen egoeren arteko ezberdintasunak ere arazoak sortzen ditu sarritan: gaztelerazko zuzentza arloko hizkuntza normaldurik (omen) dago, tradizioa du, hiztegi berezi finkatua... gazteleradun arruntentzako eurentzako ulergaitza, askotan.

Euskaraz ez dago horrelakorik: tradizioarik ez, hizkuntza normaltzeko hastapenetan baino ez gaude. Dokumentuen ereduak, formularioak, hiztegiak, lege testuak eta gaztelerazko lege testuen itzulpen normalduak apenas egiten hasiak. Interpretariak ez du euskarazko erreferentzia gehiegirik, eta euskarazko lege-hizkuntza xume hori ezagututa ere, alferrik zaio erabiltzea, sarritan, euskaldun alfabetatu gabe batek ez bait du ulertzen. Beraz, gaztelaniaz azaldutako mezua euskaraz emateko orduan, itzuli ez ezik, mezua jaso behar duenak ulertzeko moduan egokitu behar da (esate bateko, epailearen ordezkari erabili; notari-akta edo akta notarialen ordezkari egun hartan izenpetu zenuen harako paper hura), baina gehiegizko «interpretaziorik» egin gabe.

## ERANSKINAK

### 1978.eko Espainiako Konstituzioa

#### 3. ARTIKULUA

1. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.

2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien erkidego autonomoetan berauen estatutoei dagozkien eran.

3. Espainiako hizkuntza moeta ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.

## **Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren 3/1979 abenduak 18, Lege Organikoa**

### **6. ARTIKULUA**

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubi-dea.

## **Ley Orgánica 6/1985 de 1 de julio del Poder Judicial.**

### **ARTICULO 231**

1.- En todas las actuaciones judiciales, los jueces, magistrados, fiscales, secretarios y demás funcionarios de juzgados y tribunales, usarán el castellano, lengua oficial del estado.

2.- Los jueces, magistrados, fiscales, secretarios y demás funcionarios de juzgados y tribunales podrán usar también la lengua oficial propia de la comunidad autónoma, si ninguna de las partes se opusiere, alegando desconocimiento de ella, que pudiere producir indefensión.

3.- Las partes, sus representantes y quienes les dirijan, así como los testigos y peritos, podrán utilizar la lengua que sea también oficial en la comunidad autónoma en cuyo territorio tengan lugar las actuaciones judiciales tanto en manifestaciones orales como escritas.

4.- Las actuaciones judiciales realizadas y los documentos presentados en el idioma oficial de una comunidad autónoma tendrán, sin necesidad de traducción al castellano, plena validez y eficacia. De oficio se procederá a su traducción cuando deban surtir efectos fuera de la jurisdicción de los órganos judiciales sitos en la comuni-



dad autónoma, salvo, en este último caso, si se trata de comunidades autónomas con lengua oficial propia coincidente, o por mandato del Juez o a instancia de parte que alegue indefensión.

5.- En las actuaciones orales, el juez o tribunal podrá habilitar como interprete a cualquier persona concedora de la lengua empleada, previo juramento o promesa de aquella.

## **Código Penal**

### **ARTICULO 332**

Cuando el testigo o perito, sin faltar sustancialmente a la verdad, la altere con reticencias o inexactitudes, la pena será de multa de 100.000 a 1.000.000 de pesetas.

### **Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea, euskararen erabilpena arauzkotzekoa.**

#### **9. ATALA**

1. Epailaritzarekingo harremanetan, herritar guztiek aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.

2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epailaritzaihardunak, balio osozkoak eta eragite-indarrezkoak izango dira.

3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien ihardutze-sailekin elkar hartuta, Euskal Herriango Epai-Ardulararitzan euskararen erabilpena arauzkotzea suztatuko du.

#### **12. ATALA**

2. Halaber, itzultzaile zerbitzu ofiziala sortaraziko du; hori autonomia-elkarteko herritarren eta herri-erakundeen esku egongo da, itzulpenen zehaztasuna eta legezko baliokidetasuna bermatzeko.

**Azaroaren 7ko 262/1989 Dekretua, Euskal Autonomi Elkar-  
teko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala sortarazi eta Herri-Arduralari-  
tzaren Euskal Erakundearen Ihardute-Egitura aldatzen duena  
(1989-12-14ko EHAA, 235 zk.a)**

## 2. ATALA

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Ihardute-egitura zehazten duen dekretuaren (azaroaren 11ko 269/1986 dekretua) 12. atala honela idatzita geratuko litzateke:

### 12. ATALA

1. Itzulpen-Zerbitzu Ofiziala izango da euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenen zehaztasuna eta lege-baliokidetasuna ziurtatzeko aginpidea duen ihardute-saila.

2. Itzulpen Zerbitzu Ofizialak honako egiteko hauek beteko ditu:

d) Zuzentza-Administrazioak eskatutako epailaritza ihardunak (auzi-eske, elkar hartzeko agiri, agiri-bidezko frogak, epai, e.a) euskaratzea eta gaztelaratzea, doakien alderdiei jakin erazteko edo besterekiko indarra izan behar dutenean.

e) Epaialdi, aurrez-aurreko, adierazpen eta abar bezalako epailaritza-ihardunetan euskarazko nahiz gaztelaniazko interpretaritzak egitea, Zuzentza-Administrazioak hala eska dezanean.

## SINTESIS

### **La labor de interpretación en los Tribunales**

El autor nos ofrece una breve reflexión sobre la situación en que se realiza hoy en día la labor de interpretación en los Tribunales de Justicia de la Comunidad Autónoma Vasca.

Si bien en la Administración de Justicia se refleja la coexistencia de las dos lenguas oficiales, el uso que se hace del euskara, por diversos motivos, sigue siendo minoritario. Ello lleva consigo el que las condiciones de trabajo del intérprete no

sean siempre todo lo adecuadas que sería de desear, tanto en el aspecto material (falta de sitio adecuado para trabajar...), como en lo que se refiere a la poca credibilidad que en ocasiones se atribuye a su labor.

La interpretación consecutiva -el uso que se hace de la modalidad simultánea es prácticamente nulo- requiere tres fases: comprensión del mensaje, memorización del mismo y, finalmente, transmisión coherente a la lengua de destino.

### **Comprensión**

En cuanto al euskara se refiere, esta fase implica, por una parte, la necesidad de conocer el lenguaje característico del ámbito de la Justicia y de las leyes (organización, tipos de procesos, terminología, referencias sobre el caso en cuestión...); y por otra, en caso de que el declarante se exprese en dialecto, la necesidad de que el intérprete lo conozca, a fin de evitar errores de comprensión.

### **Memorización**

La gran cantidad de datos que debe memorizar el intérprete (fechas, datos numéricos, nombres de lugares y personas...), así como la importancia que éstos tienen en los procesos judiciales, hacen aconsejable el aprendizaje y utilización de un sistema de notación, a fin de poder reproducir el mensaje lo más fielmente posible.

### **Transmisión**

Cuando la lengua de partida es el castellano -lenguaje normalizado en el ámbito de la Justicia- y la de destino el euskara, se plantean, a menudo, ciertas dificultades debidas a que ésta carece de tradición en ese ámbito y su normalización está aún en vías de realizarse. Finalmente, cuando el proceso es el inverso, el intérprete se ve a veces en la necesidad de adecuar el mensaje al nivel de comprensión del destinatario, sin alterar por ello el contenido de aquél.

El autor nos ofrece finalmente, a modo de anexo, una breve compilación del articulado existente en las diferentes normas legales en relación al tema tratado.

## **ABSTRACT**

### ***Interpreting in court***

*The author offers us a brief analysis of the circumstance under which the work of interpreting is carried out in the Courts of Justice in the Basque Autonomous Community.*

*Although the coexistence of the two official languages is reflected in the Administration of Justice, the use of Basque continues to be minority, for several reasons.*

*This means that the working conditions of the interpreter are not always as good as could be expected, both from material considerations (the lack of an adequate place to work, etc.) and with respect to the low level of credibility which is given to his or her work.*

*Consecutive interpreting—the use which is made of simultaneous translation is virtually nul—requires three stages: comprehension of the message, memorisation of same and, finally, coherent transmission into the target language.*

### **Comprehension**

*As far as Basque is concerned, this stage implies, on the one hand, the need to know the characteristic language of the judicial environment and of laws (organisation, types of trials, terminology, references concerning the case in question, etc.) and on the other, should the witness express him or herself in dialect, the need for the interpreter to understand this, in order to avoid errors of comprehension.*

### **Memorisation**

*The large amount of data which the interpreter must memorise (dates, numerical data, names of people and places, etc.) as well as the importance these have in legal proceedings, make the learning and use of a note-taking system advisable, in order to be able to reproduce the message as accurately as possible.*

### **Transmission**

*When the source language is Spanish—the standardised language in the legal world—and the target language is Basque, certain difficulties arise on occasions due to the fact that the latter has not been used traditionally in this area and its standardisation is still under way. Finally, when the process is reversed, i.e., Basque to Spanish, the interpreter frequently sees the need for adapting the message to the comprehension of the recipient, without altering the contents of same.*

*Finally, the author offers us a brief compilation, in the form of an appendix, of the articles which exist in several laws dealing with the subject in question.*

## **Itzulpena auzitara**

Aintzane Ibarzabal

Iñaki Antiguedad Egineko idazleak idatzi zuen artikulua izango da azterketa hau, kontutan hartuz, lehenengo aldiz epaitzen dela euskarazko testua Madrilen, horretarako itzulpena erabiltzea beharrezkoa izan zelarik, bai diligentziak irekitzeko, bai testua epaitzeko, eta baita ere epaiketa bera egiteko.

Lehenik, Madrilgo epaiketan erabili ziren testuak aurkeztuko ditugu, idazlearen euskarazko jatorrizko testua eta bi itzulpenak, bata IVAPek itzulitakoa, eta bestea ministeritza fiskalak aurkeztutakoa:

### **1.- Jatorrizko testua:**

**Joan Carlos, joan fueraaa!!!**

Españako primero ei den odolurdi hori dago egunotan gure lurra zapaltzen. Sekito erdia ekarri du berarekin, beste erdia Iruñean bertan baitu esku zabalik. Eta Nafarroa Vascongadasetik separatzen duen hesitik zintzilik hortxe dira Vitoriyako buruhandiak eskuari eraginez errege agurtu nahian ea lasterren bisita berrian datorkien. Espero zenez Nafarroako kazi-

ke lurperagarri guztiak, ustezko tirabira politikoen gainerik, bildu dira entzule errege aurrera ea zorionez diskurtsoren batean **haren adur tanta batzu\*** beren aurpegian jausten zaizkion. Adurtiok!!! Ondo egin dute modu ofizialean gu protokolutik kanpo utzita, guk maite ditugun adurrak beste zenbait ahoi darizkie eta. Mila esker kazikeok!!! Bai burro-buru jauna aunque nieve o llueva ez gara zuek beste ustelduak eta zuen errege gure errege izan aurretik gurago dugu Sida geureganatu eta geure semealabei utzi. Odol gorriko gizakiak garenez gorria maite dugu gehien han eta hemen, eta urdina gorrotatu, itsasoko urdina ez bada behinik behin. Txarribodetan odolosteak egiten dira odol gorriak gizenduta, baina zer egin odol urdinaz??? Kolore bereko zapatei distira **ateratzeko betuna** besterik ez. Navarrako urrezko domina jarri ei diote sama edo lepoan honen orde **errotarria jartzea** eskatzen zutenei batere jaramonik egin barik. Baina tira, gizartea oso sakon erroturiko sustraietan oinarritzen da eta horietako bat monarkia da; munduan zehar monarkak demokraziaren seinale bihurtu dira gobernuko momentuko gobernarien gainerik. Hain irrifartsu agertu infante-infantak eta guztiz eskuak luzaka berdin itsasontzi berria uretaratzen edota ospital bateko hegal berria inauguratzen, mundu guztiko monarkek ba dute zeozer berezi amankomunean: beste mundu batekoak izatea. Beraz, zer ostia egiten dute honetan??? Fueraaa!!! Suntsitu daitezela dinosaurioak suntsitu ziren modu arin berean.— PRONTXIO

## 2.- IVAPen itzulpena:

«Joan Carlos, vete fueraaa!!!»

Ese de sangre azul que parece ser «primero» de España se encuentra estos días pisando nuestra tierra. Ha traído junto a él a medio séquito, ya que la otra mitad le espera en Iruña con los brazos

## 3.- Ministeritza fiskalak aurkezten duen itzulpena:

«Vete Carlos, vete fueraaa!»

Pisando nuestra tierra en estos días está ese de sangre azul que se dice que es el primero de España. Ha traído con él la mitad del séquito, la otra mitad allí mismo en Pamplona abriendo la mano.

\* Beltzez agertzen diren hitzak fiskalak salatu zituenak dira testua epaiketara eramanean ahal izateko.

abiertos. Y justamente colgados de la valla que separa Navarra de las Vascongadas se encuentran los sesudos (cabezudos) de Vitoria moviendo la mano con intención de saludar al rey a ver si les viene pronto de nuevo de visita.

Como se esperaba se han reunido como oyentes ante el rey todos los caciques sepultables de Navarra, dejando a un lado las supuestas diferencias políticas, por si con un poco de suerte en algún discurso les caía en sus caras alguna de las gotas de baba de aquél. Babosos!!! Han hecho muy bien en dejarnos fuera del protocolo de modo oficial, porque las babas que nosotros queremos se desprenden de otras bocas.

Mil gracias caciques!!! Sí, señor Burroburu, «aunque nieve o llueva» no estamos tan podridos como vosotros y antes de que vuestro rey lo sea de nosotros, preferimos coger el SIDA y contagiárselo a nuestros hijos.

Como somos personas de sangre roja, es el rojo lo que más queremos aquí y allí, y odiamos el azul, salvo que sea el azul del mar. En las matanzas de los cerdos se suelen hacer las morcillas engordadas con sangre roja, pero qué hacer con la sangre azul??? Sólo betún como el de dar brillo a los zapatos del mismo color.

Parece que le han colgado en el cuello o garganta la medalla de oro de Navarra, sin hacer ningún caso a los que solicitaban que en su lugar le fuera colgada una rueda de molino. Pero de todos modos, la sociedad se basa en raíces arraigadas profundamente y una de ellas es la monarquía; los monarcas se han convertido en todo el mundo en símbolo de la democracia por encima de los mandatarios de gobierno en cada momento.

Y ahí mismo los cabezones de Vitoria colgando de la valla que separa Navarra de Vascongadas moviendo la mano queriendo saludar al rey a ver si les corresponde cuanto antes la nueva visita. Como era de esperar todos los caciques de Navarra dignos de ser enterrados, por encima de las conjeturas disputas políticas, se han reunido los oyentes delante del Rey a ver si felizmente en algún momento del discurso algunas gotas de baba de aquél les cae a sus caras. ¡¡Babosos!! Han hecho bien de manera oficial dejándonos fuera del protocolo pues las babas que nosotros queremos fluyen de otras bocas. ¡¡Muchas gracias caciques!! Sí, señor Burroburu (cabeza de burro), aunque nieve o llueva no estamos podridos como vosotros y antes de ser nuestro Rey vuestro Rey, deseáramos el Sida y dejárselo a nuestros hijos. Como somos seres humanos de sangre roja, queremos lo rojo más que nadie aquí y allí, y odiamos lo azul, si no es por lo menos el azul del mar.

En las matanzas del cerdo, la morcilla se hace con sangre roja, ¿pero qué hacer con la sangre azul? Nada más que betún para sacar brillo a los zapatos del mismo color. Se dice que le han puesto la medalla de oro de Navarra, sin hacer ningún caso a los que pedían en vez de esto poner la muela de molino en la espalda o cuello. Pero, vamos, la sociedad humana se cimenta en raíces profundamente arraigadas, y una de éstas es la monarquía; a través del mundo los monarcas se han convertido en la señal de la democracia, por encima de los gobernantes del gobierno, en ese momento. Tan risueños aparecen los infantes e infantas y alargando completamente las manos y a lo mejor en la

Aparecen tan sorridentes, saludando con las manos junto con los infantes e infantas, tanto en la botadura de un nuevo barco como en la inauguración de un ala nueva de un hospital que todos los monarcas del mundo tienen algo especial en común: el pertenecer a otro mundo. Por lo tanto, ¿qué ostias hacen en éste??? Fueraaaa!!! Que desaparezcan con la misma rapidez con la que desaparecieron los dinosaurios»

botadura de un nuevo barco o en la inauguración del nuevo alero de un hospital, los monarcas de todo el mundo ya tienen algo en común: ser de otro mundo. ¿Por lo tanto, qué hostias hacen en éste?

¡¡¡Fuera!!! Que desaparezcan del mismo modo que se disiparon los dinosaurios».

Ezer esan aurretik, garrantzitsua da kontutan hartzea ez direla itzulpenak zuzenean kritikatu nahi, eta asmoa bi testu horien, jatorrizkoa eta itzulpenen, **hizkuntzaren erabilera** konparatzea dela eta testuen **errekutsoen konparaketa** egitea. Ez genuke epaileek egin duten bide berbera hartu nahi, hots, idazleak zein hitz erabili dituen aztertu, hitz horiek zer esan nahi duten gaztelaniazko hiztegiaren ikusi, eta ondorioak atera —*palabras de origen bilingüe y de ambiguo significado... lenguaje críptico...* Sententziak dio itzulpena irakurriz jatorrizko testuaz, eta ezta hitzak epaitu ere hiztegiak dioenaren arabera: *baba: saliva espesa y abundante; baboso: persona que echa muchas babas, ... se aplica al que no tiene edad para hacer lo que está haciendo*—.

Ez da adierazpen eskubideaz ere ezer esango, gai horrek zerikusirik handia badu ere arazoaren oinarriarekin. Testuak aurrean izanik, ahaleginak egingo dira honako puntu hauek frogatzeko:

- a.—Euskaraz ez dakienak gauza bera irakurri al du testua gaztelaniaz irakurri duenean? (garrantzi handiko galdera da hau, kontutan hartzen badugu epaileak eta fiskalak itzulpena besterik ezin irakurri zezaketela).
- b.—Sentipen edo efektu bera sortzeko gai al dira jatorrizko testua eta itzulua?
- d.—Estilo eta jenero berberekoak al dira bi testuak?
- e.—Euskaraz argitaratutako testua itzulita dagoen moduan argitaragarria al da gaztelaniazko egunkari batean? Hemen galdera



beste modu batera egin zitekeen, alegia, hartzaile berarentzat eginak al daude bi testuak? Gogora dezagun bata egunkari batean argitaratzeko idatzi zela eta bestea, itzulpena, ministeritza fiskalak eskatuta.

Ikusten denez, galdera oinarrizko eta neurri batean intuizioz sortzen diren horiei erantzuna edo argibidea ematea izango da gure helburua. Bestalde, teorikoki itzulpenaren zailtasunak aztertzen direnean ere gai guzti horiek kontutan hartzen direla esan behar da, eta ezin pentsa liteke soil soilik gure hizkuntzaren arazo bereziak direnik, hona hemen Valentin Garcia Yebrak itzulpenaren zailtasunez jasotzen duena: «*Podemos reducir a tres las dificultades de toda traducción literaria: las inherentes a la disparidad de las lenguas, las imputables a una defectuosa comprensión del original y las condicionadas por la falta de capacidad expresiva del traductor en su propia lengua*».

Zailtasunak hortxe dira beraz, eta bereziki lehenengoa azpimarratu nahi da: hizkuntz desberdintasunak. Hala ere, ez dira desberdintasun teoriko estrukturalak bereziki aipatuko, erabilgarritasun eta finkotasun desberdintasunak baizik.

Baina bereizketa hori bere lekuan kokatzeko beste zerbait esan beharra dago hasi aurretik, hizkuntzaren zailtasunez gain itzulpena egitean ahaztu ezin diren itzulpenaren inguruko zenbait elementu.

Xabier Mendigurenek epaiketan aurkeztu zuen bezala «baliokidetasuna» oinarrizko kontzeptua da itzulpena ahal den modu egoikienean egiteko, eta bertan kontutan hartzekoak dira, elementu semantikoak, estilistikoak eta pragmatikoak, hartzaileak mezua ahalik eta modu zehatzenean jaso dezan maila guzti horietan. Baliokidetasunaz ari garenean itzulpena egiteko aurrean izango ditugu, beste zenbaiten artean, testuaren mamia, mezuaren antolaketa, adierazi nahi duen errealitatea, estiloa, hizkuntza hartzailearen eredia, jatorrizko testuaren indar komunikatiboa, itzulpenaren hartzailea etab. Eta horrenbestez, horietako alderdi batzuk, hala nola linguistikoak —semantikoak nahiz estilistikoak—, besterik ez badira kontutan hartzen, eta pragmatikoak baztertzeko badira itzulpenak ez du

emaitza onik izango. Edozein testutan erabateko garrantzia du hartzaileak, eta idazleak nahiz itzultzaileak hartzaile horren aurrean duen jarrera. Beraz, sortua izan den testuingurutik kanpo geratzen den testua oker ulertua izan daiteke. Alderdi honek berebiziko garrantzia izango du azterketa osoan zehar.

Lehenik eta behin testuaren izaera garbi utzi behar da: testua saioa da, kazetaritza saioa. Berri baten aitzakia erabiltzen du —erregearen bisita Nafarrora— idazleak monarkiaren aurkako iritziak egunkarian modu literarioan plazaratzeko.

Bestalde, azterketaren ezaugarriak zeintzu izango diren argitzeko esan behar da, testuari hasieratik bukaerara koherentzia edo loturak bilatu beharko zaizkiola, ez bakarrik sintaxi mailan, baita ere, eta analisisa egiteko nahitaezkoa ikusten delarik, estilo eta errekurtsio berezien erabileran.

Era berean, ez da alde batera utzi behar euskaraz idatzitako testuetan sortuko den beste alderdi garrantzitsua, traba ez esateagatik: hizkuntzaren normaltasunaren arazoa. Hain zuzen ere, euskarazko testu batean agertzen diren hitzen egokitasuna, maila estilistikoa, esanahi zehatza, erabilera egokia... erabakitzea ez da beti gauza erraza. Euskalki hitzak testu jakin bati eman diezaiokeen kutsua, hitz edo egitura baten gogortasuna oso maiz erabiltzen denean, edo ia ezagutzen ez denean, etab. ez ditu berehalakoan irakurleak antzemango, eta traba izango dira, noski, itzultzailearentzat.

## **1. Euskarazko testuaren hurbilpen semantiko estilistikoa**

Testuaren gaiak honako zati hauek izango lituzke:

- Erregearen ikustaldiaren xehetasunak (batzuen ongietorria) (aurkakoen jarrera)
- Odolaren kolore desberdinak
- Urrezko dominaren eskaintzaren kritika
- Monarkiaren izaera eta kritika

- Monarkiaren amaieraren desioa

Testuaren gaia zatika banatu ondoren, eta lehenengo hurbilpena egina dugularik esan genezake euskarazko testua esperpentikoa, ironikoa, umorezkoa eta informala iruditzen zaigula, metafora eta irudiz osaturik hasieratik amaierara. Horren ezaugarri batzuk hauek lirateke:

- Testu osoan zehar ez zaigu inoiz izen ezagunik zuzenean aipatzen: «Joan Carlos, joan», «Vitoriyako buruhandiak», «Burroburu jauna». Satira egiteko errekurtsua, edo karikatuzko erabiltzen ditu idazleak.
- Giro militarra, eta iraganekoa ere sumatzen zaio testuari: erregea dator, sekitoa, kazikeak hesian zintzilik.
- Ondoren etena egin eta Sida aipatzen du.
- Koloreen metaforak tarte handia hartzen du erdi aldean: gorria txerribodetan odolosteak egiteko, urdina betuna egiteko.
- Ondorengo irudia dominarena eta errotarriarena da.
- Beste etena egiten du, eta infanteez eta monarkiaz duen iritzia azaltzen du. Hau litzateke zati teorikorik garrantzitsuena eta testu osoa laburtuko lukeena.
- Amaieran berriro tonua igo eta aurrean bezala galdera eta harridura ikurrak erabiltzen ditu eta azken irudia sortzen du, dinosaurioen suntsitzea.

Idazkera edo esaldien antolamendua ia ezertarako aipatu gabe, lehenengo hurbilpenak hori eskeiniko liguke: testua irudiz osaturik dago, askotan historikoak. Horrek karikatura eta satira izaera bultzatzen du, eta zenbaitetan umorea ere bai.

Baina gure ondorio guzti horiek beti dute oinarri linguistikostilistikoa, eta horietan testuak, jatorrizkoa eta itzulpenak, elkarrengandik urrundu egiten dira. Gai garrantzitsu hau hirugarren atalean aztertuko da, eta orain antzeko hurbilpena egingo da testu itzuliak erabiliz.

## 2. Testu itzuliaren hurbilpen semantiko estilistikoa

Ez da hemen gaiaren zatiketa errepikatuko, baina ezaugarri estilistikoetan gertatzen diren aldeak aztertuko dira:

- Izenak zuzenean ez erabiltzeari dagokionean zenbait xehetasun aipatu behar dira: «Joan Carlos, vete...» esan behar du gaztelaniarazko testuak, euskarazko hitz jokoa galtzen delarik. Besteak izena ere aldatzen du «¡¡Vete Carlos, vete fueraaa!!», euskarazkoak *joan Joan Carlos*, errepikapena eta hitz jokoa erabiltzen duen bitartean.
- «Los cabezudos de Vitoria» esaten duenean, euskarazko *Vitoria* erabiltzeak ematen dion kutsua galtzen du, eta antzeko zerbait gertatzen da *buruhandi* itzultzean («cabezudos, sesudos, cabezones»).
- *Burroburu* hitza bera, nahiz eta erdi euskara erdi gaztelania izan, egitura erabat euskalduna du, alegia, hitz konposatuak sortzeko bidea euskalduna da, eta gaztelaniak ez du parekorik.
- Hortik aurrerako imajinak berez berdin azaltzen zaizkigu: koloreak, domina, infanteak, dinosaurioak.

Beraz, esan genezake hemen ere monarkiari buruzko iritzia metafora ugari eta imajin esperpentikoak erabiliz ematen dela, ez ordea, ondoren azalduko den bezala, tonu, umore, eta adierazgarritasun berbera sortuz.

Baina zer gertatzen da orduan jatorrizko testuak eta itzuliak gauza bera ez adierazteko elementu gehienak aurrean ditugularik? Gure ustez erantzunak bi alderdi lituzke, bata testuingurua, hots, hartzailearen aurreko jarrera eta sarreran esan dugun guztia, eta bestea hizkuntzaren aukeraketa eta eredia eta erabileraren finkotasuna.

## 3. Testu konparaketa.

Euskaraz eta gaztelaniaraz irakur dezakeen edonor errez kontura daiteke bi testuen aurrean ez duela erantzun berbera, aldea dagoela.

Gaztelaniaren tonua serioagoa, markatuagoa, garrantzi handiagokoa, zabarragoa edo iruditzen zaigu, euskarazkoa arinagoa, informagoa, umoretsuagoa, jokosoagoa nolabait.

Honen azpian galdera garrantzitsua dago, hau da, gaztelaniazko testu hori egunkari batean dagoen dagoenean argitatzeko modukoa izango al litzateke? Ezetz esango genuke. Horretarako gogora ditza-gun aurrean esandakoa: hartzailearekiko jarrera, eta hizkuntz erabileraren gaia.

Besterik gabe parez pare jarriko ditugu bi testuak, edo hobe esan hirurak, atal honetan bi itzulpenak ere bereiziko bait dira:

- \* Izenburuak *Joan Carlos, joan fueraaa!!* dio jatorrizkoan, eta itzulpenetan bi eratara:

«Joan Carlos, vete fueraaa!!!»

«¡¡¡Vete Carlos, vete fueraaa!!!»

Bietan euskarazko hitz jokoaren errekurtsoa galtzen da.

- \* *Españako primero ei den odolurdi hori dago egunotan gure lurra zapaltzen.*

«Ese de sangre azul **que parece ser** “primero” de España se encuentra estos días pisando nuestras tierras».

«Pisando nuestras tierras en estos días está **ese de** sangre azul que se dice que es el primero de España».

- Euskaraz gaztelania erabiliz jokutzen du, gaztelaniaz galtzen da.
- *Ei den hori* egitura ez dirudi horren markatua denik gaztelaniazko «ese de» den moduan.
- omen eta kidekoak itzultzean perifrasi erabiltzen du.
- \* *Sekito erdia ekarri du berarekin beste erdia Iruñean bertan bait du esku zabalik.*

«Ha traído **junto** a él a medio séquito, **ya que** la otra mitad le espera en Iruña con los brazos abiertos».

«Ha traído con él la mitad del séquito, la otra mitad allí mismo en Pamplona **abriendo la mano**».

- *bait* horren itzulpena batean azaltzen da, bestean iustaposizioa egiten du estilo arina eta bizia mantendu nahian, hala ere azkeneko «abriendo la mano» ez legoke ongi itzulia. Bigarren itzulpenak, gure ustez, kutsu informal ironikoa antzeman duela dirudi, baina amaiera parekoegia egin du.
- \* *Eta Nafarroa Vascongadasetik separatzen duen hesitik zintzilik hortxe dira Vitoriyako buruhandiak eskuari eraginez errege agurtu nahian ea lasterrean bisita berrian datorkien.*

«Y justamente colgados de la valla que separa Navarra de las Vascongadas se encuentran los sesudos (cabezudos) de Vitoria moviendo las manos con la intención de saludar al rey a ver si les viene pronto de nuevo de visita».

«Y ahí mismo los cabezones de Vitoria colgando de la valla que separa Navarra de las Vascongadas moviendo la mano queriendo saludar al rey a ver si les corresponde cuanto antes la nueva visita».

Zati honetan azpimarratutako egituretan garbi ikus daiteke gaztelaniak duen kutsu kulto edo serioagoa.

- Berriro ere *Vascongadas* hitzaren erabilera euskarazko testuan galdu egiten da besteetan eta hartzaileak jaso behar dituen konnotazioak galdu egiten dira. Errekurtso erabilia da testu osoan zehar gaztelania eta euskara tarteka erabiltzea, hartzaile elebidunak ongi uler dezakeelarik, ez ordea gaztelaniaz bakarrik jakin eta itzulpena besterik irakur ez dezakeenak.
- *Hortxe dira*, «se encuentran» eta «ahí mismo» erabiliz itzuli dute, gure ustez ez dute tonu berbera mantentzen («y ahí están»).
- *Vitoriya* horrela erabiltzean hartzen duen hizkera kutsua ez da besteetan gordetzen.
- *Buruhandi* euskarazkoak «sesudos, cabezudos; cabezones» forma guzti horien bidez itzulita dago, eta «cabezotas» edo besteren bat ere esan zezaketen, baina euskaraz esanahi guzti horiek eta beste batzuk ere (gauzak ahaztu egiten dituen, ergela... ) jasotzen ditu hitz berak.

- \* *Espero zenez Nafarroako kazike lurperagarri guztiak, ustezko tirabira politikoen gainetik, bildu dira entzule errege aurrera ia zorionez diskurtsoren batean haren adur tanta batzu beren aurpegira jausten zaizkien.*

«Como se esperaba se han reunido como oyentes ante el rey todos los caciques sepultables de Navarra, dejando a un lado las **supuestas diferencias políticas, por sí con un poco de suerte** en algun discurso les cafa en sus caras alguna de las gotas de baba de aquél».

«Como era de esperar todos los caciques de Navarra **dignos de ser enterrados**, por encima de las **conjeturales disputas políticas**, se han reunido **los oyentes** delante del Rey, a ver si felizmente en algún momento del discurso alguna gotas de baba de aquél les cae en sus caras».

- *Lurperagarri* hitzak ez du ditu gaztelaniazko bi forma horiek bakarrik adierazten —«sepultable» edo «digno de ser sepultado»—, atzizkiak horretarako egokia, horretarako baliagarria.. ere adierazten du. Beraz, ez diogu esanahi bakarra eta zehatza ematen.
  - *Ustezko tirabirak* sumatzen dugu «supuestas diferencias» edo «conjeturales diputas» baino askoz ere arruntagoa dela.
  - *Zorionez* espresioak «a ver si felizmente» itzulita ezusteko kutsua galdu eta zentzu positiboa hartzen du.
- \* *Adurtiok!!! Ondo egin dute modu ofizialean gu protokolutik kanpo utzita, guk maite ditugun adurrak beste zenbait ahoi darizkie eta. Mila esker kazikeok!!!*

«**Babosos!!!** Han hecho muy bien en dejarnos fuera del protocolo de un modo oficial, porque las babas que nosotros queremos se **desprenden** de otras bocas. Mil gracias caciques!!!».

«¡¡Babosos!! Han hecho bien de manera oficial dejándonos fuera del protocolo, **pues** las babas que nosotros queremos **fluyen** de otras bocas. ¡¡Muchas gracias caciques!!».

- Euskaraz *adur* eta *lerdea* formen artean lehena aukeratu du idazleak, «baba» eta «zortea» esan nahi duena, euskalki hitza eta gure ustez ez gaztelaniazkoa bezain gogorra.

- «Desprender», «fluir» erabiltzen dira gaztelaniaz *jarío* aditzaren formaren ordeztu, «derramar», «**colgar**» ere uler daitezkeelarik. Agian kultoegiak dira aukeratutakoak.
- Berrito ere bigarren itzulpenak *bait* erabiliz sortutako esaldi kausala, «pues» konjuntzioa aukeratu, eta euskararen arintasuna mantendu nahi izan du, baina aldi berean «bien de manera oficial» horren ordenamendua desegokia da.
- \* *Bai burroburu jauna aunque nieve o llueva ez gara zuek beste **ustelduak** eta zuen errege gure errege izan aurretik gurago dugu Sida geureganatu eta geure semealabei utzi.*

«Sí señor **Burroburu**, “aunque nieve o llueva” no estamos tan **podridos** como vosotros y antes de que vuestro rey lo sea **de nosotros**, preferimos coger el Sida y **contagiárselo** a nuestros hijos».

«Sí señor Burroburu (cabeza de burro), aunque nieve o llueva no estamos podridos como vosotros y antes de ser nuestro rey vuestro Rey, **desearíamos** el Sida y dejárselo a nuestros hijos».

- Errima txikia galtzen da itzulpenean *jauna... llueva...* Bi hizkuntzak tartekatzeke errekurtsua galtzen da, eta oso erabilia da testu osoan zehar. Esan daiteke puntu garrantzitsuenetakoa dela hori. Era berean, lehen esan den bezala *burroburu* hitzaren indarra apaldu egiten da, nahiz eta batean «(cabeza de burro)» azalpena egin.
- *Gurago izan* eta «desearíamos» hipotesiraino joan da itzulpena eta indikatibotik ere urrundu da.
- *Utziren* itzulpena egitean, «contagiar» edo «dejar» aditzek ez dute biek gauza bera adierazten, lehena markatuagoa da; euskarazkoak bigarrena du gertuago.
- \* *Odol gorrizko gizakiak garenez gorria maite dugu gehien **han eta hemen**, eta urdina **gorrotatu**, itsasoko urdina ez bada behinik behin. Txarribodetan odolosteak egiten dira odol gorriak gizenduta, baina zer **egin** odol urdinaz??? **Kolore bereko zapatei distira ateratzeko betuna **bestarik ez**.***

«Como somos personas de sangre roja, es **el rojo lo que más** queremos **aquí y allá**, y odiamos el azul, **salvo que sea** el azul del



mar. En las matanzas de los cerdos se suelen hacer morcillas engordadas con sangre roja, pero **qué hacer** con la sangre azul??? sólo betún **como el de** dar brillo a los zapatos del mismo color».

«Como somos seres humanos de sangre roja, queremos lo rojo más que nadie **aquí y allí**, y odiamos lo azul, **si no es por lo menos** el azul del mar. En las matanzas del cerdo, la morcilla se hace con sangre roja, ¿pero **qué hacer** con la sangre azul? Nada más que betún para sacar brillo a los zapatos del mismo color».

- Euskarazko testuan aditz laguntzailea ez da azaltzen eta esaldiak oso arinak dira. «Odiamos el azul»: pertsona ezaugarriak hor dira berriz, ezabatu gabe.
- *Ez bada behintzat* horren parean bi foma badira eta «de no ser, a no ser que», eta antzekoak ere erabil zitezkeen.
- Esaldi batean aditza ezabatzen da gaztelaniaz —«qué hacer?»— euskarazkoarekin bat datorrelarik, baina gaztelaniaz berriz bitxia gertatzen da.
- *Han eta hemen* zuzenegi iruditzen zaigu dagoela itzulita bi testuetan «aquí y allí», eta *nonahi* edo antzeko egituratik gertuagoko formaren bat bilatu beharko litzateke.
- \* *Navarrako urrezko domina jarri ei diote sama edo lepoan honen orde z errotarria jartzea eskatzen zutenei batere jaramonik egin barik.*

«**Parece** que le han colgado en el cuello o **garganta** la medalla de oro de Navarra, sin hacer ningún caso a los que **solicitaban** que en su lugar **le fuera colgada** una rueda de molino».

«**Se dice** que le han puesto la medalla de oro de Navarra, sin hacer ningún caso a los que pedían **en vez de ésto poner** la muela de molino en la **espalda** o cuello».

- *Navarra* dio euskarazkoak eta ez *Nafarroa* aurrekoetan bezala, jokaera jakin baten kontra dagoela azaltzeko. Hartzaileak konnotazio horiek berehalakoan jasotzen ditu.
- Oraingoan *sama* hitza da gaztelaniako itzulpenean istiluak sortzen dituen. Bizkaieraz «lepoa» da, beraz, sinonimoak

lirateke bi formak. Hala ere, itzultzean «garganta» eta «espalda» agertzen dira. Adibide egokia da euskalki hitzen inguruko arazoak ikusteko.

- «Solicitar» eta «pedir» ditugu *eskaturen* parean. Egokiak biak, baina euskararen berezitasun falta adierazten du honek. Gure ustez bigarrena hobe egokitzen da.
- «En vez de ésto» erabiltzean, berriz, bigarren itzulpenak forma luzeagoa aukeratu du.
- «Le fuera colgada» esaldi pasiboa dugu *jartzea* nominalizazio soilaren parean.
- \* *Baina tira, gizartea oso sakon erroteriko sutraietan oinarritzen da eta horietariko bat monarkia da; munduan zehar monarkak demokraziaren seinale bihurtu dira gobernuko momentuko gobernarien gainerik.*

«Pero **de todos modos**, la sociedad se basa en raíces arraigadas profundamente y una de ellas es la monarquía; los monarcas se han convertido en todo el mundo en símbolo de la democracia, por encima de los mandatarios de gobierno **en cada momento**».

«Pero, **vamos**, la sociedad humana se cimenta en raíces profundamente arraigadas, y una de **esas** es la monarquía; **a través** del mundo los monarcas se han convertido en la señal de la democracia, por encima de los gobernantes del gobierno, **en ese momento**».

- *Tira*, espresio bizia, arrunta da euskaraz. Gaztelaniaz batean «de todos modos» erabiltzen da, eta bestean jatorrizkotik hurbilago dagoen «vamos» espresioa. Hala ere, bigarren itzulpenak hurbilpen ahalegin horretan «a través del mundo» itzuli digu, «en todo el mundo» egokia litzatekeelarik.
- *Seinale* erabiltzen du eta ez «ezaugarri», forma kultoagoa baztertuz. Horregatik «señal» parekoagoa litzateke «símbolo» baino.
- \* *Hain irrifartsu agertu infante-infantak eta guztiz eskuak luzaka berdin itsasontzi berria uretaratzen edota ospital bateko hegal berria inauguratzen mundu guztiko monarkek*

*badute zeozer berezi amankomunean: beste mundu batekoak izatea. Beraz, zer ostia egiten dute honetan??? Fueraaaaa!!!*

«**Aparecen** tan sonrientes, saludando con las manos **junto con los** infantes e infantas, **tanto** en la botadura de un nuevo barco **como** en la inauguración de un ala nueva de un hospital **que todos** los monarcas del mundo tienen algo especial en común: el **pertenecer** a otro mundo. **Por lo tanto**, que ostias hacen en éste??? Fueraaa!!!»

«**Tan risueños aparecen** los infantes e infantas y **alargando** completamente las manos y **a lo mejor** en la botadura de un nuevo barco **o** en la inauguración del nuevo **alero** de un hospital, los monarcas de todo el mundo **ya tienen** algo en común: ser de otro mundo. ¿¿Por lo tanto, qué hostias hacen en éste?? ¡¡Fueraaaa!!!»

- Zati honetan sortzen diren arazoak euskarazko testuaren akatsak sortzen dituela esango genuke: *agertu? uretaratzen? zeozer berezi?* Lehenengo hitzak zalantzak sortu ditu eta bi itzulpen desberdin ditugu: «aparecen ellos con los infantes...» / «aparecen los infantes».
- *Gutziz eskuak luzaka:* «saludando con las manos» (?)  
«alargando completamente las manos».
- Testuaren zati honetan biraoa, eta galdera eta harridura ikurak ditugu, eta nahikoa errez onartzen dugu hala ere, *beraz* ilatiboa. Baina testu bera gaztelaniaz jarri eta «por lo tanto» formak erreakzio desberdina sortzen duela dirudi, batez ere ondoan, «qué hostias hacen...» duelako.
- Berriro ere, eta lehenago esan den bezala, bigarren itzulpenaren ordenamendua euskarazko testutik gertuago dago, baina gaztelaniaz bitxia da.
- \* *Suntsitu daitezela dinosaurioak suntsitu ziren modu arin be-rean.*

Que desaparezcan con la misma rapidez con la que desaparecieron los dinosaurios.

Que desaparezcan del mismo modo que se **disiparon** los dinosaurios.

- Batean *modu arina* galdu egin da.

- Bi forma ditugu: «desaparecer» (quitarse de la vista) eta «disipar» (dispersar, evaporarse), biak daude *suntsitu* horren parean. Gaztelaniaz bereizten dira eta euskaraz ez, forma bakarra dugu. «Disipar» ez da bestea bezain arrunta eta beste elementuak ekartzen ditu gogora.

\* \* \*

Ikusi ahal izan da konparaketa honetan era askotako arazoak agertzen direla aurrean, eta ez dela gauza erraza horien sailkapen bakarra egitea. Hori beste baterako utziko da, baina oraingoan arazo edo testuen arteko desberdintasunak azpimarratu nahi izan dira, eta zalantzan jarri epaileek irakurri, epaitu, eta zigortutako testua, itzulpena alegia, ez dela jatorrizkoaren gutxi gorabeherako azalpena baizik, edo beste modu batera esanda, ez dutela mezu bera jaso.

#### 4. Ondorio zenbait

Gainbegiratze hori egin ondoren pentsa daiteke azpimarratutako hitz eta egiturak garrantzi handirik gabeko xehetasunak direla, eta ez diotela testuaren ulermenari ezer kentzen edo eransten, izan ere, ohituak bait gaude gauzak gutxi gorabehera ulertzen, baina oraingoan premiazkoak dira xehetasun guztiak, eta gainera horiek eman-go diote testu bakoitzari bere barne lotura edo koherentzia.

Esan genezake informazioari dagokionean, gutxi gorabehera gauza bera esaten dela hiru testuetan. Baina ez modu berean, eta hori nahi genuke garbi azaldu. Xehetasun guztiak batera jarri eta bi testu desberdin ditugu aurrean, bi estilo desberdin. Hori dela eta, esan genezake epaiketarik izan ez balitz xehetasun horien garrantzia txikiagoa irudituko litzatekeela, baina erabateko garrantzia dute itzulpena delako epaitzen den testu bakarra.

Laburbilduz, euskarazko testua informalagoa, satirikoagoa eta arruntagoa da, baina gainera koherenteagoa irakurlearentzat. Gaztelaniazkoa, berriz, une batzuetan oso arrunta da, baina berehala kultoagoa egiten zaigu, eta tartekatze horiek distorsionatu egiten dute

eta arraroa egiten da, eta gogorragoa ere bai zenbaitetan. Kontraste handiak ikusten dira zenbait adibidetan testu osoan zehar: «Por lo tanto, qué hostias hacen...», edo «se encuentran los sesudos de Victoria», «los que solicitaban... le fuera colgada una rueda de molino».

Zergatik ikusten da lotura handiagoa euskarazko testuan? Hemen ez da alde batera utzi behar euskaraz idaztean gauzak errezago onartzeko dugun ohitura, sensibilitate falta, edo zehaztasunik eza... aldi berean, orokorki, gaztelaniazko formak errazago kokatzen dira bakoitza bere lekuan eta bere maila estilistikoan, adibide gisa: «pedir-solicitar», «se encuentran-están».

Honen froga gisa edo, esan behar da bietako edozein itzulpen dagoen bezala hartuta ere, ez litzatekeela gure ustez inongo egunkaritan argitaratuko, eta hori batez ere gaztelaniazko testuak berezko loturarik ez duelako; euskarazkoa, berriz, horretarako idatzia izan zen.

Bestalde, bi itzulpenen artean ere badira aldeak, eta horiek ere aipatu nahiko genituzke. Itzulpenari dagokionean esan behar da biek arazo bat izan dutela aurrean: ez zaiela gaztelaniaz saio bat idaztea eskatu, ministeritza fiskalak eta epaileek testua epaitu ahal izateko itzulpena egitea baizik; horrenbestez oso lotura handia izan dute lana egiteko orduan, berez ezin bait zuten modu eroso eta librean aritu, ahalik eta zehatzenean eta estuenean baizik. Ziur egon gaitzke beste modu batera lan egin izan balute beste testu mota bat izango genukeela aurrean, eta zalantzarik gabe jatorrizkoa ulertzeko ego-kiagoa izango litzateke.

Hala ere, bereizketa txiki bat egin behar da bien artean. Lehenengo gehixeago urruntzen da jatorrizko testutik eta aldi berean **mailaz igotzen du** gaztelaniazkoa hizkuntzaren erabileran, eta horrenbestez euskarazkoak duen informaltasuna galdu egiten da eta inkoherentziak sortzen dira. Bigarrenak jatorrizkoarekin lehenengoak baino lotuagoa egiten du itzulpena, eta hala batzuetan gehiago hurbiltzen da euskarazko errekurtoetara (iustaposizioa, ordenamendua, elisioak), baina gaztelaniaz ez ditu beti errez beste hizkuntzako errekurto berberak onartzen, eta hori ere **bitxia egiten zaigu**.

Ez genuke amaitu nahi sententziak dioena aipatu gabe. Erregearen aurka birao egitea du zigorraren arrazoia\*, batez ere hiru adibide aukeratzen dituztelarik «las gotas de baba», «hacer betún con la sangre azul» eta «colgarle una rueda de molino», eta gai hori gehiago dagokio adierazpen askatasunari itzulpengintzari baino. Baina hemen azaldutakoak ere badu zerikusia zigorrarekin, alegia, gure ustez epaileek ez dute testu bera epaitu, agertu diren arrazoi guztien-gatik, eta hori ez da kezagarria itzultzaileontzat edo hizkuntzalarientzat soilik, euskaldun guztiontzat baizik.

## SINTESIS

### La traducción a juicio

Con motivo de una visita que los reyes de España realizaron a Navarra, Iñaki Antiguëdad, colaborador del diario Egin escribió un comentario en euskara por el que se vio sometido a juicio bajo la acusación de injurias al Rey. En dicho proceso, las diligencias previas, así como el propio juicio se basaron en sendas traducciones del comentario en euskara, realizada la primera por el IVAP, y la segunda presentada por el ministerio fiscal. Fue la primera vez en que se juzgaba un texto escrito en euskara, pero, lo cual es muy importante, a través de su traducción al castellano.

El presente artículo pretende hacer un análisis comparativo del uso lingüístico y de los recursos estilísticos de los tres textos. Para ello se plantea una serie de interrogantes, que resultan esenciales debido a que tanto el juez como el fiscal únicamente podían tener pleno conocimiento de las traducciones, no así del original:

- ¿Una persona que no sabe euskara lee lo mismo al leer únicamente el texto en castellano?
- ¿Producen el mismo efecto o sensación el original y sus traducciones?
- ¿Son uno y otros del mismo estilo o género?
- Tal y como está traducido, ¿sería publicado dicho comentario en un periódico en castellano? O, dicho de otra forma, ¿dichos textos están hechos para el mismo receptor?

---

\* Urtebeteko kartzela zigorra jarri dio Entzutegi Nazionalak, eta errekurtsua egin da horren kontra Auzitegi Gorenean.

En opinión de la autora del artículo, puede ponerse en duda que haya auténtica equivalencia entre el texto original y las traducciones, ya que éstas no guardan el mismo estilo ni tienen la misma fuerza comunicativa que el texto en euskara; tampoco están dirigidas a un mismo receptor, y el propio modelo lingüístico que se supone al receptor es bien diferente.

Más adelante se hace un análisis en detalle de los pasajes más problemáticos de los tres textos, llegando a la conclusión de que los textos conocidos por el juez y el fiscal no comunicaban el mismo mensaje que el original, pues no eran sino versiones aproximadas de carácter explicativo.

Igualmente, los tres textos muestran estilos muy diferentes, ya que el original es más informal, satírico e incluso más vulgar, pero más coherente en sí mismo, mientras que las traducciones son a veces de tono más culto, y presentan menos coherencia interna. Estas diferencias provienen del hecho de que los textos realmente juzgados, las traducciones, no estaban destinados a una columna periodística, sino a servir de prueba en un proceso judicial, por lo que debían ajustarse al máximo a la letra del original.

## ABSTRACT

### *Translation taken to court*

*During a visit by the King and Queen of Spain to Navarra, the writer Iñaki Antigüedad, wrote an article in Basque for the newspaper Egin, for which he was tried in court, accused of insulting the King. In these proceedings, the inquiry and the trial itself were based on two translations of the commentary in Basque, the first made by the Basque Institute of Public Administration (IVAP) and the second presented by the Ministry of Justice. It was the first time that a text written in Basque had been the subject of a trial. What was even more important, however, was the fact that the trial was based on its Spanish translation.*

*This article sets out to make a comparative analysis of the linguistic use of the stylistic resources of the three texts. To do this, a series of questions are posed, which are essential due to the fact that both the judge and the public prosecutor could only fully understand the translations, not the original:*

- *Does a person who has no knowledge of Basque understand the same thing when reading only the text in Spanish?*
- *Do the original and its translations produce the same effect or sensations?*
- *Do they all have the same style or technique?*
- *Such as it was translated, would this commentary be published in a Spanish-language newspaper? Or, expressed in a different way, are these texts produced for the same reader?*


*In the opinion of the author of the article, doubts may be raised regarding the authentic equivalence between the original text and the translations, as these do not have the same style or the same communicative force as the text in Basque, neither are they intended for the same receiver and even the linguistic model, which the receptor is assumed to have, is quite different.*

*Later, a detailed analysis is made of the most problematic passages in the three texts, reaching the conclusion that the texts known to the judge and public prosecutor did not communicate the same message as the original, as they were only approximate versions of an explanatory nature.*

*Likewise, the three texts reveal very different styles, as the original is more informal, satirical and even more colloquial, but more coherent in itself, while the translations at times have a more cultured tone and show less internal coherency. These differences derive from the fact that it was the texts which were judged in reality, i.e., the translations, were not intended for publication in a newspaper column, but to be used as an exhibit in judicial proceedings, and so, should have been a literal expression of the original, as far as possible.*



**PUNTUZ PUNTU**



## **Gregorio Arrue eta bere garaia**

**Yoana Iguaran**

Artikulu hau idaztean, Gregorio Arruek bizi izan zuen garaia aztertzea izango da gure helburu nagusia. Horretarako, estatuko eta Europako gertaerak eta kultur mugimenduak azaltzen hasiko gara, ondoren Euskal Herrian gertatutakoan sakontzeko asmoz. Aurrerago ikusteko aukera izango dugun bezala, garai honetan Euskal Herritik kanpo gertatzen denak eragin handia izango du bertan jazotakoa ulertzeko, bai politikan, bai kultur arloan.

Bigarren urratsa, XIX. mendeko euskal literaturaren garapena aztertzea izango da: joerak, idazleak...

Azkenik, Arruerengana hurbilduko gara, berak idatzitakoa eta egindako lana garai honetan txertatzeko asmoz, aldiberean bere garaikide ziren mugimendu eta idazleekin izan zituen harremanak azalduz.

Lantxo honen xedea, Arrueren lana bera baino honek bere garaian izan zuen oihartzuna eta eragina aztertzea da. Hori dela eta ez gataizkio bere lanari zuzenean lotuko; bere idazkeraren azterketa, adibidez, azalekoa besterik ez da izango.

## Bizitza

Gregorio Arruabarrena Rezola, Gregorio Arrue izenez ezaguna goa dena, 1811. urtean jaio zen Hernanin.

Gaztaroan, 1829an Arantzazuko frantziskotarren etxera joan zen fraile izateko asmoz, baina bere osasun ahulagatik ezin izan zuen bere gogoia bete, 1831an bidali bait zuten. Handik Zarautzera aldatu zen bizitzera, maixu ikasketak egin eta irakaskuntzan eman zuen bere bizitza. Hala ere, irakaskuntzari denbora eta lan asko eskeini bazion ere euskararen arloan lortu zuen ospea.

1890ean hil zen Zarautzen.

## Idazlana

Lehen esan dugun bezala, Arrue euskararen arloan egindako lanagatik ezagutzen dugu gaur egun. Ez dakigu, ordea, noiz hasi zen euskara lantzen. Batzuren ustez, maixu ikasketak amaitu ondoren hasi omen zen.

Bera izango da, ogibidez, **lehen euskal itzultzailea**. Bitartean asko izan ziren bere lanak beste hizkuntzetako liburuak itzuliz osatu zituztenak; baina inork ez zuen izan, ziur asko, Arruek adinako eskaera. Honetaz gain, egindako itzulpenak ordaindu egiten zizkionten eta Arocenak dioenez "*si no espléndidamente, con cierta eficacia remunerativa que aun hoy parecería aceptable*"<sup>1</sup>. Beraz, hona hemen lehen euskal itzultzaile profesionala.

Horregatik, bere lanaren zatirik haundiena itzulpenak izango dira eta hauetan erlijio gaietakoak nagusi badira, baditu bestelakoak ere. Dena den, ez da dena itzulpena izango azter; dezagun bada, bere idazlana gertuagotik; horretarako hiru multzo bereziko ditugu:

a) Batetik, **itzulpenak** ditugu. Gorago esan dugun bezala, hauek dira bere lanaren zati garrantzitsuena. Gehienak erlijioa dute gai nagusi bezala, adibidez:

(1) Arocena, Fausto: "La versión guipuzcoana del *Peru Abarka* de Moguel". *Boletín de Amigos del País*, 1948. Aipamen hauek zenbaki berberaz earriko dira artikuluko osoan

- Santuen bizitzak:
  - *Aita San Ignacio Loyolaco gloriosoaren bizitza, Azpeiti-Azcoitietaco person ascoren erreguz D. Gregorio de Arrue Zarauzco escolamaisuac euscaraz ifiñia.*
  - *Bearguillearen arguia edo bearguintz humilletan santutu ciran cembait Cristau nobleren Vicitzac, Familia Sagra-duaren cerbait berri laburqui aurrera emanaz Jesusen Compañiaco Aita Francisco Butiñac gaztelaniaz eguiñ eta D. Gregoio Arruec euskarara itzulia.*
- Kateximak:
  - *Cristauaren doctrinaren jaquinbide azaldua, edo Astere-ren explicacioac Santiago Mazo Jaunaren liburutic D. Gregorio Arrue, Zarauzco escola maisuac aterea.*
  - *Cristoren imitacio eta munduaren desprecioa lau liburu-tan. Aita Tomas Kempis veneragarriac latinez eguiñac eta D. Gregorio Arrue-c eusquerara ecarria.*
- Aszetikako liburuak:
  - *Oracio mental edo pensamentuzcoa iduquitzeco gai egoquiac decazquian escu-liburua. Jesusen Compañiako Aita Villacastiñec gaztelaniaz eguin zuenetic D. Gregorio Arruec eusquerara itzulia.*
  - *Salvacioco aingura edo bertutean biciro aurreratzeco cristauai bide eta gai egoquiac beguietarutzen eta animen artzayai beren parroquiaco gendea ontzeco biciro lagun dizayequan escu-liburua. Jesusen Compañiaco aita Jose Mach-ec gaztelaniaz eguiñ eta D. Gregorio Arrue-c eusquerara itzulia.*
- Orazio liburuak:
  - *Aita San Jose gloriotsuaren bederatz-urren edo nobena gaztelaniazco batetic D. Gregorio Arrue-c eusquerara itzulia.*
  - *Maria Doncella guciz garbiari bere sortze edo concepcio manchagabearen misterioan bederatz-urrena A. Silves-*

*tre Llansolec erderaz ipiñi, eta don Gregorio Arrue-c  
eusquerara itzulia.*

Baina bere itzulpenen artetik arrakastarik haundiena ezagutu zuena *Bravante-co Genovevaren bicitz arrigarri miragarria* da; bi argitaraldi izan ditu liburu honek: 1855ean lehena eta 1960an bigarrena. Badu Arruek, ordea, liburu honen beste itzulpen bat 1868an egindakoa: *Santa Genovevaren vicitza antzinaco denboretaco condairèn ederretaco bat*.

Liburu hau erlijio gaietatik gehiegi urrundu gabe bestelako irakurgai eskeintzen zien euskaldun kristau prestuei; hortik lortu zuen arrakasta eta zabalkundea.

Batzuk diotenez, bere itzultzeko zaletasuna hainbestekoa zen non beste euskalkietan idatzitako zenbait liburu gipuzkerara moldatu bait zituen; horien artean Mogelen *Peru Abarca* eta Mendiburu-ren eskutitz batzu ere.

Azkenik, *Liberalen dotrina pecatu da* bezalako lanak ditugu. Hau liberalen eta haien pentsaeraren aurkako liburua da, garaiko kristau ikuspuntutik idatzia. Honelako liburuek Arrueren pentsaeraren berri ematen digute.

b) Bestetik, baditu zenbait idazlan orijinal ere, hau da, itzulpenak ez direnak. **Narrazio laburrak** dira. Baina 1880tik aurrera lore-jokoetan aurkeztu eta argitaratu zirenak ezagutzen ditugu bakarrik; baliteke gehiago idatzi izatea baina ez dira guregana iritsi. Izan ere, Arrue hil zenean hainbat esku-idatzi argitaratzeke gelditu ziren. Hauetako batzu Donapaleuko frantziskotarren komentuan daude, beste batzu, berriz, bere senitartekoei dauzkate. Hauek dira ezagutzen ditugunak:

- *Gurasoekin zu nola zure umeak zurekin ala*. 1881ean Donostian egindako lore-jokoetan ohorezko aipamena.
- *Aspaldi ayetaco gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen; ala uste*. 1882an Donostian ospatutako lore-jokoetan zilarrezko erramu sorta.

- *Zarauzko ondekidetzea*. 1884ean Donostian egindako lehiaketan akzesit.
- 1886an Arantzazun, Ama Birjinaren koroaketa zela eta ospatutako literatur lehiaketan saria lortu zuen, euskal idazleen sailean, Felipe Arrese Beitia, Karmelo Etxegarai eta Isidoro de Arbulorekin batera.

c) Azkenik, hirugarren sailerako utzi dugu, **hizkuntzalaritza alorrean egindako lanak**. Arlo honetan, Bonaparte eta Van Eysi eskeinitako laguntzaz gain, Eusebio Lopez argitalari tolosarrak Aizkibelen hiztegia argitaratzeko presta zezan eskatu zion. Arruek egindako lan honetaz baliatu zen Azkue bera ere bere hiztegirako.

## Idazkera

Dirudienez, Arrue euskara oso ondo menperatzera iritsi zen. Izan ere, menperatu ezezik ondotik ezagutzen zuen euskara, horregatik Bonaparte XIX. mendeko hizkuntzalari ospetsua Zarautzeraino joan zitzaion berarekin elkarrizketatzeko asmoz eta Van Eys garai honetako beste hizkuntzalari haundiak ere laguntza eskatu zion bere lexikografiako azterketak burutzearren. Are gehiago, Eusebio Lopezek Arruek hizkuntzaren arloan zuen jakinduriaz jabeturik, Aizkibelen hiztegia argitaratzeko presta zezan eskatu zion eta Arruek helburu horrekin erantsi zizkion oharrez baliatu zen Azkue bere hiztegia egiterakoan. Guzti honek erakusten digu Arruek hizkuntzaz zuen ezaguera.

Beraz, garbi dago Arruek euskara bere luze zabalean ezagutzeaz gain, beste euskalkietako liburuak ere egokitu bait zituen gipuzkera-  
ra, bere sakonean ere ezagutzen zuela.

Haren idazkerari buruz hitz egitean, gehienak ados daude lexikoa baloratzeko eta hiztegi oparoa, aberatsa, ugarria zuela diote; Zaitetik, adibidez, honela dio: "Bera ez da garbizalea, ezta urrik eman ere: zertan ari den igarri gabe idazten dizu"<sup>2</sup>.

---

(2) Onaindia, Santi: *Euskal Literatura (II)*. Bilbo: Sendoa, 1961 (277 or.).

Baina ez da batasun bera ageri joskerari buruz hitz egitean; Zaitegik, adibidez, honela dio: "Gehienetan zabarra da, mordoillokadak metaka ditu"<sup>2</sup>; Enrike Zabalak, aldiz, honako eritzia du: "Itzul-tzaile bezala ona eta zehatza da. Hizkera aparta du, ugaria, herrikoia"; Fausto Arocenak "La versión guipuzcoana del *Peru Abarca*" artikuluan honela dio: "prosa de gran fluidez y abiertamente asequible"<sup>3</sup>.

Haren idazkeraren azterketa sakona beste baterako uzten badugu ere, zera esan nahi genuke: kontutan izanik Arrueren itzulpenek garai hartan izan zuten hedapena eta arrakasta, bere lanek ez zuten oso zailak izan behar irakurtzeko, ez ulertzeko; hortaz, Zaitegik aipatzen duen "mordollokeria" hobeto aztertu beharko litzateke. Hiztegia ezezik Arrueren idazlanak lokuzio eta esamoldetan ere oso aberatsak dira; honen ondorioz lokuzio hiztegia egitean iturri bezala erabili zituzten bere lanak.

## XIX Mendeko giro politikoa

Gregorio Arrue 1811-90 bitartean bizi izan zen, hortaz XIX. mendeko gertaerak gertutik jarraitzeko aukera izan zuen.

XIX. mende honetan aldaketa garrantzitsuak jazoko dira Espainian eta baita Europako beste herrialde askotan ere. Gehiegizko sinplifikazioan erortzeko arriskua badugu ere, aldaketa hauek honela labur ditzakegu: XIX. mendea arte Europako herri gehienetan antzinako errejimenean oinarritutako monarkiak zeuden agintean; honek esan nahi du ekonomia nekazaritzan oinarritzen zela, gizartea gogorki mailakatua zegoela, Elizak indar haundia zuela, erregea ahalosoduna zela, hau da, beste inoren partaidetza gabe agintzen zuela... Baina bestelako ekonomia eta gizarte ereduak hasiko da indartzen poliki poliki; merkataritza, lanbide liberalak eta hasi berria den industrializazioa izango dira honen oinarri ekonomikoak.

Eredu ekonomiko berriak burjesiaren indartzea eta langileriaren sorrera dakar berarekin. Burjesiak ordua arte gizarte piramidearen

(3)Zabala, Enrike: *Euskal alfabetatzeko literatura*. Lazkao: Pax. 1979 (139 or.).



goiko mailetan zeuden Eliza eta aristokraziaren boterea gutxitzearen egingo du borroka. Horretaz gainera, erabaki politikoetan hartu nahi izango du parte; hortaz aldaketa ekonomikoak politikoak ere eragingo ditu. Honen haritik, konstituzioetan oinarritutako aginteak eskatuko dituzte, hauen bidez errezagotzen ikusten bait dute beren esku-bideen alde egitea.

Bi pentsamolde desberdin hauen arteko borroka izango da mende honetako gertaeren ardatza, istiluak tokian tokiko arazoek piztuko badituzte ere. Adibidez Espainian, errege ondorengotzaren arazoa zela bide gertatu ziren karlistadak, bertan kontserbatzaileak, antzinako errejimenaren aldekoak, Carlos V.aren inguruan, eta liberalak, eredu berriaren aldekoak, Isabel II.aren inguruan bildu zirelarik.

## **Euskal Herria**

Hemen ere banaketa hau nahiko argia izan zen. Baina Espainiako beste zenbait lekutan gertatzen ez den osagai batek emango die berezitasuna bertako borrokei: foruen aldeko borroka.

Foruen aldeko borroka XIX. mende honetako karlistadetan gauzatuko bada ere, mende osoan zehar borrokatuko dute euskaldunek beren legeak oso osorik hasieran, eta ahal zutena beranduago gorde ahal izateko. Honen adibide, mende hasieran frantziar eta espainiarren artean izandako guda dugu. Basileako bakearen bidez gerra amaitu eta frantsesek Euskal Herritik alde egin zutenean, gipuzkoarrek konbentzio gerran frantsesekin izandako harremanak aitzaki bezala hartuta borbondar estatu espainiarrak foruetan biltzen ziren zenbait eskubideren deuseztapenez zigortuko du Euskal Herria.

Mende honetan jazoko diren hurrengo gertakarietan gelditzen zaizkigun foruen iraupena izango da kezkarik nagusia.

Espainiako liberalak foruak kentzearen aldekoak zirenez gero, aldeko euskaldun gehienak karlisten inguruan bildu omen ziren. Dena den, azken hau ez litzateke guztiz egia, zenbait historiégileren ustez, bertako liberalak ere foruzaleak bait ziren. Lurralde desberdi-

netako hiriburuak liberalen aldekoak ziren eta honek badu bere zergaitia: hirien ekonomia merkataritza eta bestelako lanbide liberaletan oinarritzen bait zen.

Hala ere, foruen defentsa izango da hego Euskal Herriko euskaldunak batu eta abertzaletasun sentimendua biztu eta zuzpertzeko duena.

Hiru izan ziren karlistadak. Lehenengoa eta azkena izan ziren Euskal Herria gehien ukitu zutenak. Euskal Herriaren ekonomia erabat urritu eta unatu zuten karlistadek. Gudaloste batek zein besteak baserrietan egiten zituzten lapurreten ondorioz zaila gertatzen zitzairen herritarrei eguneroko beharrak asetzea, "Muñagorriren kanta"n ondotxo azaltzen zaigun bezala.

Alfonso XII.aren baitan monarkia konstituzionala berreraiki zenean (1875eko abenduaren 29an) karlisten gudalostea sakabanatu egin zen, errege ustekoa Frantziara itzultzea behartuta aurkitu zelarik. Gerra gudaloste karlisten azpiratzearekin bukatzeak, oraindik indarrean zeuden foruen (zerga, militar arazoa) deusezteka ekarri zuen berarekin. Nafarroak bakarrik gorde zuen Lege Pakzionatuaren bidez foru zati zabala.

Euskal literatura garaiko gatazken berri-emailea izango da. Foruen galerak biziki zauritu zituen euskaldunen bihotzak, eta hala isladatuko dute garaiko idazleek bere lanetan. Foruen galera garai honetako gai nagusietako bat bilakatu zen eta behin eta berriro erabiliko dute Iparragirrek, Arrese Beitiak, "Muñagorriren kanta"k, etab.

## **Kultur Giroa**

Erromantizismoa izango da XVII. mendearen bukaeratik politikopoliki eratzen eta zabaltzen doan mugimendua. Hala ere estatuan eta Euskal Herrian ez da ezagutuko mende honen erdia arte, orduko gertaerengatik.

Nahiz eta erromantizismoa bereziki arte eta pentsaera arloko mugimendua izan, politikan eta ohituretan ere izan zuen eragina.

Politika eremuan, iraultza frantsesa eta Napoleonen garaiko zabaltea izango dira mugimendu nazionalisten iturburua. Napoleonek bere inbasioen bidez herrien subirotasunean oinarritutako askatasuna zabaldu nahi izan zuen arren, bere nagusigoa ezartzen ahalegindu zen, zapalduetako herriena deuseztatuz. Napoleonek berak, zabalduetako oinarriari jarraituz nortasuna berreskuratzeko asmoz altxa ziren herri hauek, Napoleonen aurkako gudak nazio askatasunerako borroka bilakatu zirelarik.

Nazio eta nazionalitate ideiak sortu ziren garai honetan, kultura, hizkuntza, arraza eta geografiaren bidez lotutako giza multzoak adierazteko. Nazionalitate sentimenduak, abertzaletasunari emango dio bidea, nazioarekiko atxekimendua adierazteko.

Honekin batera bere nortasunean sakontzen hasi ziren herriak eta horretarako bakoitzak bere historia aztertzeari ekin zion. Hizkuntza ere ikerketa eta berreskuratzeko xede bihurtu zen, horixe baita kultur biderik nagusia.

Artearen ikuspegitik, erromantizismoak literaturan eta musikan izan zuen bere adierazpenik gailenena. Alor hauetan erromantizismoa neoklasizismoaren zorrotasunaren eta garai hartako arau akademikoen gogortasunaren aurka altxako da. Ilustrazioaren ondorioz nagusitu zen arrazionalismoaren aurkako izango da; eremu berri eta ezezagunak aurkitu nahi izan zituen. Horregatik norbanakoen eskubideak, sentiberatasunaren adierazpen librea, beritasuna, irudimena, etab. aldarrikatuko ditu.

## **Kultur giroa Euskal Herrian**

Euskal Herrira itzuliz gero, kultur mailan bi aldi desberdin bereiz ditzakegu; banaketa hau gainera, erromantizismoaren etorrerak markatuko du.

XIX. mendeko lehen erdialdeko kultur giroa aurreko mendearen oihartzuna izango da. Larramendiren indarrak bere jarraitzaileen lanean zirauen, baina 1850erako haren oihartzuna gero eta apalagoa da: Mateo Zabala 1840an, Iztueta 1845ean, J. Cruz Etxeberria 1853an, Lardizabal 1855ean hilko dira.

Mendearen bigarren erdian, berriz, kultur giroak eta literaturak zuzpertzte ikaragarria ezagutuko dute. Azter dezagun, bada, nola gertatu zen hau.

Euskaldunek mende osoa jardun zuten beren foruen aldeko borrokan eta honek artean ez ezagututako abertzaletasun sentimendua biztu zuen euskaldunengan. Foruak izan ziren ordua arte probintzia bakoitza bere buruaren jabe senti erazi zuena. Berauen galerak espainolen menpean jartzen zituen, beren ezaugarriak nagusia deuseztatzen zuelarik. Horregatik, lokarri berrien bila abiatuko dira: hizkuntza, arraza, kultura, geografia; eta hauetan oinarrituko da nazionalismo berria.

Nazionalismo berriak arazoak beste era batera irudikatu zituen. Ordua arte lurralde bakoitza bere kabuz ibili bazen ere, aurrerantzean, "laurak bat" bezalako lemak sortu ziren. Artean lau probintzia izandakoak batasunaren beharra somatzen hasi ziren. Batasun hori zabaldu egingo da Chahok eta Gratien Adema *Zaldubyk* "zazpirak bat" deia luzatu zutenean, mugaz bestaldeko eskualdeak gogoratu.

Erromantizismoaren eragina mendearen erditik aurrera nabarmenduko da; bere baitako nazionalismo edukia azkar zabalduko da Euskal Herrian, euskaldunei beren nortasunean sakontzera behartuz.

Foruak, askorentzat euskal nortasunaren zutabea zirenak, galdu ondoren euskalduntasunaren adierazle berriak bilatzeari ekin zioten. Ikuspegi honetatik aztertu behar ditugu Iztuetaren *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* edo Manterolaren *Cancionero Vasco*. Dena den, hizkuntzaren arlora zuzenduko dira ahalegin garrantzitsuenak.

Hizkuntzalaritzan ezinbestekoa da Luis Luciano Bonaparte, Van Eys eta Vinsonen lanak aipatzea. Haien lanei esker lortu zuten euskal gaiek maila zientifikoa.

Bai Bonapartek, bai Van Eysek bertako idazleen lankidetzara behar izan zuten beren lana burutzeko. Bonaparte euskalkien azter-

ketan murgildu zen; aztergaia biltzeko euskalki desberdinetako idazleei eskatu zien Biblia eta katexima zatiak itzultzeko; hona hemen osatu zuen lantaldeko partaide batzuren izenak: Uriarte bizkaitarra, Duvoisin lapurtarra, Otaegi gipuzkoarra eta Salaberri behenafartarra. Van Eysek, berriz, Arrueren eta Zarauzko frantziskotarren laguntza izango du lexikografiatzko ikerketetarako. Hirurei eskertu behar zaie zenbait libururen argitalpena (Bonaparte) edo aurreko idazleen lanei buruzko berria ere (Vinson).

Chaho eta D'Abbadieren lanek bultzatuko dute, berriz, literaturaren zuzpertzeta eta loratzea mendearen erdialde honetan. Ezin da esan euskal literatura goi mailara jaso zutenik, baina lehen urrats bezala garrantzi haundikoa izan zen.

Azter dezagun, bada, literaturaren bizkundera.

### Chaho eta d'Abbadie (Lore-jokoak)

Euskal Herrian ematen den erromantizismoa berezia izango da; ez da nazionalismoak Frantzian edo Alemanian eragin zuen erromantizismo bera. Euskal Herrian euskaldunek beren herria goratzeari ekingo diote baina zanpatua ikusten dutelako: iparraldea XIX. mendearen hasieratik Frantziaren menpe dago, eta hegoaldean mendearen azken herenean deuseztatuko dituzte foruak.

Gauzak honela, garai hartako giro ofiziala euskararen aurkakoa zen mugaren bi aldeetan. Egoera honetan, iparraldean euskal kontzientziaren bi eragile nekaezin azaltzen dira: Chaho eta d'Abbadie zuberotarrak. Biak 1810ean jaio eta Parisen ikasi zuten, bertan elkar ezagutu zutelarik.

Chaho erromantiko-zaletasunak barrutik zirikatu zuen Parisen ikasi zuen garaian. Baionan, 1845ean *Ariel* aldizkaria hasi zen argitaratzen. Bera dugu, hortaz, lehen euskal kazetaria. Aldizkaria sei urtez kaleratu zen baina 1862an galerazi egin zuten eta Chaho erbeseratua izan zen.

Antoine d'Abbadie zientzi gizona zen, asko ikasia eta ibilia atzerrian, baina euskaltzale porrokatua zen eta alor honetan egindako

lanagatik ezagutzen dugu. Bertsolaria, kanta, antzerki eta dantza zalea zen eta zaletasun bera sortu nahi zuen beste euskaldunengan. Euskaltzaleak bilduz talde bat sortu nahi izan zuen, horretarako jendea euskal suaz zirikatuz. Asmo honekin "Euskal Festa" hasi zen antolatzen.

Izen honekin ezagutzen ditugun jaiak gehienez hiru egun irauten zuten eta mota guztietako ekitaldiak izaten ziren: pelota partiduak, herri-kirolak, ganadu feriak, dantzariak, txistulariak, bertsolariak eta guri gehien axola díguna, literatur lehiaketak edo lore-jokoak. Euskal Festa horiek euskal munduaren isladapena izan nahi zuten.

1853tik 1879ra iparraldean bakarrik ospatu ziren Euskal Festak, baina indarra galduz joan ziren eta 1879an ospatu ziren lehen aldiz hegoaldean, Elizondon hain zuzen. Ondoren Gipuzkoan ere ospatu ziren eta beranduxeago Bizkaian. D'Abbadie 1897an hil zenean hegoaldean bakarrik ospatzen ziren.

Lore-jokoetarako epaimahaia izendatzen zen eta honek aukeratzeko zuten aurkeztutako olerkien artean zein saritu. Iparraldean ospatzen zirenean olerkiak bakarrik aurkez zitezkeen. Hauen maila oso ona ez izan arren, lehen olerkari belaunaldia sortuko da jai hauegatik. Hegoaldeko lore-jokoetan narrazioek ere izango dute beren lekua. Bertara aurkeztutako lanak gero eta hobeak izango dira bai gaia bai formaren aldetik.

Honetaz gain, d'Abbadiek 1853an Parisen argitaratzen hasi zen *Revue des Basses Pyrennées et Landes* aldizkarian ere hartu zuen parte.

Chahok eta d'Abbadiek lan asko egin zuten elkarrekin; bien artean Euskal Herri osoari opa nahi izan zioten gramatika egin zuten. Berau zazpi probintziei opa zietela adierazteko "Zazpirak bat" lema berria erabili zuten. (Chaho izan omen zen eusko-abertzaletasunari oinarriak ipini zizkiona)

Bi aitzindari hauen lanak, oihartzun haundia izan zuen hegoaldean, antzeko taldeak sortu zirelarik lau probintzietako hiriburuetan; Iruñekoa eta Donostiakoa izan ziren garrantzitsuenak.

Iruñean 1877an Joan Iturralde Suit-ek bere etxean elkartu zituen euskara, Euskal Herriko lege zahar, ohitura eta eskubideen alde lan egiteko prest zegoen hainbat pertsona: Arturo Kanpion, Hermilio de Olariz, Francisco Navarro Villoslada...

Hauek "Asociación Euskara de Navarra" izeneko elkartea osatu zuten eta *Revista Euskara* aldizkaria sortu zuten beren lanen adierazle bezala. Aldizkaria lau-pabost urtetan argitaratu zen. Bertan euskal literaturaz, etnografiaraz, industriaraz, moralitateaz etab. idazten zuten. Hau dena gazteleraz idazten zuten, elkarteko partaide gehienek euskara ez zekitelako.

Kanpion dugu talde honetan ezagunena. Gaztetan euskara ikasi zuen, bere burua Nafarroa eta Euskal Herri osoari oso lotuta sentitzen zuelako. Bere garai hartan Iruñea aldean eta Euskal Herrian zeuden aldizkari guztietan idatzi zuen.

Gipuzkoako taldeaz aurrerago hitz egingo dugu.

## Arrueren garaikideak

Orain arte XIX. mendean gertatutakoa eta honek kultur arloan izan zuen eragina aztertu ditugu. Ikus dezagun, bada, esandako guztia nola gauzatu zen, hau da, nola bizi ziren eta nola isladatu zuten garai hura mende hartako idazleek.

Horretarako hiru talde bereziko ditugu, bizitzea tokatu zitzaizen garaia araberak; alde batetik XVIII-XIX. mendeen arteko aldaketa bizitzea suertatu zitzaizen idazleak ditugu; bestetik, beren lana XIX. mendean zehar burutu zutenak ditugu; eta azkenik mendearen azken herenean aritu zirenak.

a) XVIII-XIX. mendeen bitarteko idazleak

Mende honen erdialdera arte luzatzen dira XVIII. mendean jaio-tako zenbait idazleren lanak. Horien artean hauek lirateke garrantzitsuenak:

- Bizkaian: Juan Antonio Mogel (1745-1804)  
Pedro Antonio Añibarro (1748-1830)  
Fray Bartolome Santa Teresa (1768-1853)  
Pedro Astarloa (1751-1821)  
Juan Mateo Zabala (1777-1840)
- Gipuzkoan: Joan Bautista Agirre (Asteasukoa) (1742-1823)  
Joan Inazio Iztueta (1768-1840)  
Agustin Paskual Iturriaga (1778-1851)
- Nafarroan: Joakin Lizarraga (1803-1868)

Ia idazle guztiak apaizak edota elizgizonak dira, prosaz idatziko dutè eta gai erlijiosoa izango da gehien erabiliko dutena. Dena den, lan hauen helburua euskal kristauei irakurgai egokiak eskeintzea litzateke. Bestetik, garai honetan apaizak mixioak ematen ibili ziren herrietan zehar. Hauetako asko euskaldun hutsak zirenez gero, beren lana euskaraz egin beharko zutela konturatu ziren, baina ez zuten libururik beren predikuak euskaraz prestatu ahal izateko. Garai honetako liburu asko, beraz kristauei ezezik apaizei ere zuzenduak zeuden, mixioak euskaraz eman ahal zituzten. Kateximak, sermoi liburuak, aszetika liburuak itzuli eta prestatuko dituzte Añibarrok, Lizarragak, eta Frai Bartolomek, besteak beste.

Beste liburu multzo bat hizkuntzaren ingurukoek osatzen dute. Batzuk apologiazko liburuak idatziko dituzte Larramendiren ildotik, Astarloak edo Mogelek adibidez. Beste batzu, ordea, hizkuntzaren azterketari lotuko zaizkio. Honela, Mateo Zabalak aditza izango du aztergai eta Añibarro eta Mogelek gipuzkera-bizkaieraren arteko desberdintasunaz arituko dira, Añibarrok euskal gramatika bat ere prestatu zuen.

Baina badira mende hasiera honetan bestelako gaiak jorratuko dituztenak; Iztuetak Gipuzkoako dantzak eta kondaira bildu zituen, gero erromantizismoaren eraginez indartuko den joerari hasiera emanez.

Bizenta Mogel (1782-1854), Agustin Paskual Iturriaga eta Zaldubyk mendearen azken herenean erlijio gaiak baino irakurgai ari-



nagoko liburuak eskeini nahi izango zizkioten euskal irakurleari. Hori zela eta, alegia ugari idatzi zituzten, gehienak Esopo, Samaniego, Lafontaine eta beste batzuk idatzitakoen itzulpenak baziren ere. Alegien helburua guztiz didaktikoa izan arren, erlijio gai hutsezko liburuak baino atseginago eta errezagoak gertatuko zitzaizkion irakurleari.

Baina garai honetako idazlanei buruz ari garela ezin dugu ahaztu Mogelen *Peru Abarca*, euskal literaturako lehen elaberrizat jo izan dena, nahiz eta horretarako zalantza asko izan diren eta oraindik ere badiren. 1802rako bukatua egon arren, 1880an hasi zen *Beti Bat* aldizkaria atalka argitaratzen, eta 1881an kaleratuko da lehenengo aldiz liburu itxuraz. Baserri giroaren gorespena eta euskararen aldeko apologiak kutsu didaktikoa ematen diote liburuari. Mogelen liburu hau frantziskotarrek gorde zuten. Arruek Zarauzko frantziskotarren etxean ezagutu zuen eta gipuzkerara itzuli zuen. Honek bi gauza erakusten dizkigu: batetik, Arruek oso harreman onak zituela Zarauzko komentuko fraileekin; eta bestetik, bere garaikideen lanak ondo eta gertutik ezagutzen zituela.

Honekin lotuta, orobat, gogora dezagun mende horren hasieran frantziskotarrek mixiolari eskola ireki zutela eta bertan izan zirela Añibarro (1790tik aurrera) edo Mateo Zabala (1815-1840 bitartean). Arrue, berriz, 1831an aldatu zen Zarautzera. Beraz, ziur izan zuten elkarren berri.

#### b) XIX. mendeko idazleak

XIX. mendean olerkari andana garrantzitsua sortuko da. Arrue bezala, mendearen hasieran jaio eta mendearen bukaera aldera hil ziren; hauek dira garrantzitsuenak:

- Iparraldean: Pierre Topet *Etxahun* (1786-1862)  
Jean Martin Hiribarren (1810-1866)  
Jean Batista Elissamburu (1828-1891)  
Gratien Adema *Zalduby* (1828-1907)
- Gipuzkoan: Indalecio Bizkarrondo *Bilintx* (1831-1876)  
Joxe Mari Iparragirre (1820-1881)  
Gregorio Arrue (1811-1890)

– Bizkaian: Eusebio Maria Azkue (1813-1890)

Etxahunen olerkiak bizitzan zehar pairatu behar izan zuen zori-txarraren eraginez doinu lazgarri eta grinatsua du. Bi motako olerkiak landu zituen batipat: ziri-bertsoa eta negar-bertsoak. 1853an Urruñan ospatutako lore-jokuetan *Montebideorat jaulkiak* olerkia aurkeztu zuen.

Etxahunek bere bizitzaren gorabeherak isladatu bazituen bere olerkietan, Iparragirrek, aldiz, herriaren ezbeharra, Euskal Herriarena, abestu zuen. Haren kantuen gaiak garaiko gertaerei guztiz lotuak egongo dira: foruen galera, Euskal Herriarekiko maitasuna, herrimina etab. Haren kantuak garaiko euskaldun guztien kantu bilakatuko dira, hor dugu adibidez *Gernikako arbola* beste askoren artean.

Jean Martin Hiribarrenek erlijio gaietako liburuekin batera bi olerki lan luze utzi zizkigun, non euskaldunen aldeko apologia egin bait zuen. Olerki hau interesgarria da garai hartako euskaldunen bizimoduari buruz ematen dizkigun berriengatik.

Elissamburu eta Zalduby, urte berean jaiotzeaz gain, lagun minak izan ziren. Garaiko olerkari gorenekotzat jo izan dituzte literatur historiagileek, zerabilten hizkuntzaren dotoreziagatik, eta hizkera landua eta txukuna bait zuten. Elissamburu behin baino gehiagotan izan zen saritua (1855-1871 bitartean) d'Abbadiek antolatutako lore-jokoetara aurkeztutako lanengatik. Gai desberdinak erabili zituen bere olerkietan: irri-bertsoak, baserriko bakea, herrimina, etab.

Zaldubyren lanaren zati haundi bat gai erlijiosozkoa da; hala ere, beste gai batzu ere jorratu zituen, hauen artean aberri-olerkiak dira aipagarrienak, erabiltzen duten sinbologiagatik: zazpi Eskualherria / bat egin dezagun, haritza... Azkenik, gogoratu alegigilea ere izan zela.

Bilintxen bertsoetan “ni”a goibel zein umoretsu azaltzen zaigu aldi berean, maitasun-olerkietan batez ere. Irri-bertsoa izango da asko landuko duen beste gai bat. Olerkari herrikoia da eta halako hizkera erabiliko du. Dena den, aipagarria da emakumezkoen eta maitasunaren gaiaren inguruan landu eta erabili zituen irudi eta hiztegia.

Eusebio Maria Azkuek gai ugari ikutuko ditu bere olerkietan, (horien artean) mitologia duelarik kuttunena. Gainerakoan gai herrikoiak erabiliko ditu, satira eta ironia, malizia eta seriotasuna ederki agertuz.

Arrue izango da hainbeste olerkariaren artean prosaz idatziko duen bakarra.

Olerkari multzo honetako asko erromantikotzat hartu izan dira, horretara bultzatutako arrazoiak batean eta bestean oso desberdinak izan arren.

Etxahuni bizi eta kantatutako zoritxarrek erromantizismo bihurri bat lotzen diote. Bilintxen bertsoetan azaltzen den ni goibel eta umoretsua jo izan da erromantikotzat.

Iparragirre eta Zalduburen aberri-kantak erromantizismoak zuzpurtutako abertzaletasunarekin lotuko lirateke. Eta beste olerkariaren kasuetan, erabili zituzten gai herrikoiak izango dira erromantizismoarekin lotuko lituzketenak.

Nolanahi ere, erromantizismo berankor eta amaikorraren adierazleak lirateke.

c) Mendearen azken herena

Hauek izango dira garai honetako idazleak:

- Gipuzkoan: Karmelo Etxegarai (1865-1925)
  - Antonio Arzak (1855-1904)
  - Marcelino Soroa (1848-1884)
  - Jose Manterola (1849-1884)
  - Serafin Baroja (1840-1912)
  - Lopez Alen (1866-1910)
- Nafarroan: Arturo Kanpion (1854-1937)
- Bizkaian: Felipe Arrese baitia (1844-1909)

Gorago Donostiako taldea deitu duguna osatzen zuten idazle gipuzkoarraek, d'Abbadieren suziria jaso eta bizirik iraun arazteaz

arduratu ziren. Hala ere, Manterola nabarmendu zen guztien artetik, bera izan bait zen taldearen eratzaila eta muina.

Manterolak bihotzez maite zuen sorterría eta gaztetatik saiatu zen beronen gauza jakingarrienak hedatzen eta indartzen. Horretarako hartu zuen *El Diario de San Sebastian* egunkariaren zuzendaritza, *Euskal-Erria* aldizkaria sortu eta lore-jokoak Gipuzkoan antolatu.

*Euskal-Erria* aldizkaria 1880an sortu zen eta 38 urtez argitaratu zen. *Revista Euskara* bezala gai ugari ukitzen ziren bertan: ohiturak, etnografia gaien ikerketa, historia, filosofia, bibliografia, literatura, etab. Bertan argitaratu ziren garai hartako lore-jokoetan saritutako lan asko. Aldizkari honetan *Revista Euskara* baino gehiago ziren euskaraz argitaratutako lanak, eta haundiagoa euskal literaturari eskeinitako tartea. Aldizkariak garaiko euskalzale eta euskalari garrantzitsuenak bildu zituen bere inguruan.

Talde honetatik kanpo, Arturo Kanpion eta Arrese Beitiaren lanak lirateke aipagarrienak. Kanpion, lehenago esan dugun bezala, Iruñeko taldearen partaidea izan zen eta *Revista Euskararen* sortzailea.

Arrese Beitia hegoaldeko lore-jokoetan eman zen ezagutzera bertara aurkeztutako olerkien bidez; hamalau aldiz izan zen saritua. Bere poesian era guztietako gaiak darabiltza, aberri-kantak, foruen galera eta euskara nagusienak direlarik. Foruen galerak eta garaiko gertaerek biziki ikutu zuten Arrese Beitia.

Orain arte aipatu ditugun idazleen artetik gutxik izan zuten aukera beren lana argitaratua ikusteko. Etxahun, Bilintx, Iparragirre etabarren olerkiak hauek hil ondoren bildu eta argitaratu ziren liburu moduan. Mendearen azken herenean ekingo diote lan honi kaleratu berriak ziren aldizkariak; batzutan atalka argitaratu zituzten, Mogelen *Peru Abarca* bezala, bestetan literatur arloko ospakizunez berri ematean. *Euskal-Erria* aldizkariak lore-jokoetan saritutako olerki eta narrazioak argitaratzen zituen literaturari eskeinitako sailean. Aldizkarietz gain, Tolosako Eusebio Lopez inprimatzailea aurreko euskal idazleen lanak argitaratzeari lotuko zaio, horretarako Donostiako taldearen laguntza izan zuelarik.

Orain esan berri dugunaren salbuespena Arrese Beitia izango da, *Ama Euskariaren liburu kantaria* (1900) argitaratu bait zuen. Olerki liburuak ez baina erlijio liburu batzu argitaratu ziren.

Beraz, XIX. mendeko idazleen eta, batez ere, olerkarien lanak aldizkarietan argitaratu ziren eta kasu askotan oso sakabanatuak daude han eta hemen. Beste idazlan asko ere ez ziren argitaratu eta gaur egun zenbait komentuko liburutegi eta artxibotan daude gordeak oraindik.

Mende honetan euskaraz gauza asko idatzi zen arren, euskal giroa kaxkarra zen. Giro ofiziala euskararen aurkakoa zen mendean zehar jazotako gertaerengatik. Hala ere, inoiz baino euskaltzale eta euskalari gehiagok jardungo dute euskararen inguruan, baina askok gazteleraz burutu zituzten beren lanak. Horregatik *Euskal-Erria* edo *Revista Euskarako* artikulu asko aterako dira gazteleraz idatziak. Mende honen hasieran Añibarrok, Lizarragak eta beranduago Arruek berak prestatutako erlijio liburuek ere apaizak trebatzea zuten helburu nagusi, hauek mixioak, sermoiak, etab. euskaraz egin ahal izan zituzten.

XIX. mendeko euskal liburugintza literaturtasuna irabazten joango da mendean zehar. Hasieran erlijio gai hutseko liburuetan helburu ez literarioak nagusi baziren ere, hurrengo alegi liburuek gehiago zainduko dute forma literarioa, helburuak didaktikoak izaten jarraitu arren. Olerkiaren bizkunde garaian era guztietako gaiak landuko dira, nahiz eta gertaeren haritik gai batzu nagusitu: euskara, foruak, herrimina... Hemen kokatu behar dugu jenero berri baten sorrera eta lanketa ere: narrazio laburrak, beranduago sortuko den elaberriaren aitzindari. Garrantzi handia izan zuten honetan lore-jokoek narrazioak ere saritzean, bertara aurkeztu bait zituzten beren lanak Etxegaraik, Kanpionek, Arruek. Narrazio gehienen gaia historikoa zen; pertsonaia historikoren baten gorespina edo antzinako gertaeretan oinarrituz euskaltasuna eta abertzaletasuna aldarrikatzea helburu dutelarik. Beste batzutan xede didaktikoa duten kontaketak izango ditugu.

Euskal idazkera gero eta literarioago bilakatuko da irakurle berrien izaerak bultzaturik; bultzada hori bi literatur alderditan nabari

daiteke: alde batetik, aintzinatik erabilitako litaratur moten garapean, olerkian esate baterako; beste aldetik, jenero berrien —nobelaren— sorreran.

### Arrueri buruzko azken eritziak

Aurretik ikusi dugun guztia kontutan izanik, azter ditzagun Arruek bere garaikideekin izan zituen lotura eta harremanak, bai eta garaiko gertaerek beraren gain izan zuten eragina ere.

- Zarautzen bizi izan zenez gero, harreman estuak izan zituen bertako komentuko frantziskotarrekin: Añibarro, Zabala, Jose Kruz Etxeberria, Jose Inazio Arana, Crispin Beobide, eta abarrekin. Frantziskotarren bidez ezagutu zuen Mogelen *Peru Abarca* eta komentuan gordeta zegoen ale baten bidez prestatu zuen gipuzkerarako egokipena. Hortaz, XIX. mende hasieran egindako lanaz berri zuzena izan zuen. Ez da ahaztu behar Arrueren itzulpen zati haundi bat katexima liburuek, elizarako liburuek eta antzekoek osatzen dutela; hots, mende hasiera honetan Añibarrok, Lizarragak eta abarrek egiten zuten lanaren jarraitzailea izan zela.
- Haren lanen berri izan zuenean, XIX. mendeko atzeritar hizkuntzalari ospetsu bat, Bonaparte hain zuzen, bila joan zitzaion Zarautzera. Van Eysek berak ere, Zarautzen igaro zituen udaldietan, haren laguntza eskuratu zuen bere azterketarako gaia osatzearren.—Mendearen azken herenean d'Abbadiek iparraldean bultzatutako euskaltzale taldeen eraginez Donostian sortu berria zen euskaltzale taldeko partaidea izan zen. Partaidea izateaz gain, Manterolak eta bestek antolatutako lore-jokoetan ere aurkeztu zituen bere narrazio labur batzu.
- Haren lana mende horretan zehar egindakoaren ispilu izango da, olerkia ez landu arren. Batetik erlijiozko liburuak euskaratu zituen: kateximak, eliz-liburuak eta aszetikakoak, mende hasiera honetako helburuari jarraituz; hots, euskaldunei kris-

tau irakurgaiak beren hizkuntzan eskeintzea eta apaizek beren lanak euskaraz egin ahal izateko gaiak osatzea izan zen haren lana. Batzuk ziotenez, hobe zen irakurgaiak euskarara itzultzea, herritarrek gauza “kaltegarriak” irakur bait zitzaketen gazteleraz.

Kristau kutsua baztertu gabe, helburu didaktikoko itzulpenak ere egin zituen, *Bravanteko Genoveva* adibidez, hainbeste arrakasta izan zuena, edo *Liberalen dotriña pecatu da*, irakurleen kristau heziketa zaintzeko asmoz.

Mendearen azken herenean lore-jokoetara bidalitako narrazio batzu ere ezagutzen ditugu. Hauetako batek —*Gurasoekin zu nola zure umeak zurekin ala*— helburu didaktikoa du; beste biak, *Zarauzko ondekidetzeta* eta *Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gure bai omen; ala uste*, antzinako gertaera historikoetan oinarritzen dira euskaldunen gorespen eta apologia egitearren. Azken hauetan, beraz, foruen galerak eragindako abertzaletasun sentimendua ageri da.

Beraz, argi dago Arruek oso gertutik ezagutu zuela euskal kultur giroa. Aukera izan zuen bertan parte hartu zuen hainbat idazle, euskaltzale, euskalari ezagutzeko. Honetaz gain, Donostian sortu zen euskaltzale taldeko partaide izan zen eta honek antolatu zituen lore-jokoetan hartu zuen parte.

Izen haundiko itzultzailea izan zen, horregatik zuzentzen ziren berarengana itzulpen eske. Bere lan gehienak bizi zelarik argitaratu ziren askok harrera ona izan zutelarik. Maisutzat zuten itzulpen arloan hizkuntzaz zuen ezagueragatik eta erabilpenean erakusten zuen trebeziagatik.

## Bibliografia

- Mitxelena, Luis. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein, D.L. 1988.
- Villasante, Luis. *Historia de la literatura vasca*. Bilbo: Senda, 1961.
- Onaindia, Santi. *Euskal literatura (II): XIX. mendea*. Bilbo: Etor, 1973.
- *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Literatura I*. San Sebastian: Auñamendi, Estornes Lasa Hnos., 1968.

## SINTESIS

### Arrue y su época

En este artículo se da un repaso a la obra de Gregorio Arrue (Hernani, 1811 - Zarautz, 1890), quien aparece definido como el primer traductor profesional de lengua vasca, y, especialmente, a su época.

En primer lugar figura una relación de las obras de Arrue, divididas en tres apartados:

- Traducciones: de tema principalmente religioso, constituyen la parte principal de su obra. Entre ellas hay vidas de santos, catecismos, libros de ascética y de oración. Cabe destacar también algunas traducciones al guipuzcoano de obras escritas en otros dialectos vascos, como la de *Peru Abarca* de Mogel y varias cartas de Mendiburu.
- Obras breves en prosa: sólo conocemos las que presentó a partir de 1880 a los juegos florales que se organizaban por aquel entonces, pero parece ser que escribió también otras.
- Trabajos de lingüística: aquí hay que mencionar su colaboración con Bonaparte y Van Eys, así como el encargo que recibió de parte del editor Eusebio López de preparar el diccionario de Aizkibel para su publicación.

Sin embargo, la parte principal del artículo está dedicada a dar una visión de la época que vivió Arrue, que fue prácticamente todo el siglo XIX, época de importan-



tes cambios en toda Europa y, consecuentemente, también en el País Vasco. Como marco general aparece el final del Antiguo Régimen y el inicio de la etapa moderna, con la decadencia de la aristocracia, el ascenso de la burguesía y la aparición de la clase obrera. Todas estas convulsiones llevaron, entre otras cosas, a las guerras carlistas, en las que el País Vasco se vio plenamente inmerso, lo que le supuso la pérdida de sus antiguos fueros.

En cuanto a la cultura se refiere, el artículo resalta el auge cultural y literario que se vivió en el País Vasco especialmente en la segunda mitad del siglo, unido al romanticismo y a un incipiente sentimiento nacionalista que comenzó en esta época. Se menciona aquí la labor de Augustin Chaho y de Antoine d'Abbadie y los juegos florales organizados por este último, los cuales, iniciados en el País Vasco francés, pasaron a celebrarse también a este lado de la frontera. Como consecuencia de ellos apareció una primera generación de poetas, y, posteriormente, de prosistas. Se habla un poco más adelante del ambiente cultural vasquista de Navarra, en donde destaca la «Asociación Euskara», con nombres tales como Arturo Campión y Francisco Navarro Villoslada entre otros.

A continuación se da un pequeño repaso a los autores de la época, destacando cómo en la literatura vasca se produjo el paso de un predominio casi exclusivo de obras religiosas a una mayor abundancia de obras de carácter más eminentemente literario, con el florecimiento de la poesía y el nacimiento de la novela.

Finalmente, el artículo hace una pequeña revisión de diversas ideas en torno a Gregorio Arrue.

## ABSTRACT

### *Gregorio Arrue and his era*

*In this article a review is made of the work of Gregorio Arrue (Hernani, 1811 - Zarautz, 1890), who is defined as the "first professional translator" of the Basque language and, especially, of his time.*

*Firstly, a list is given of the works of Arrue, divided into three sections:*

- *Translations: of a mainly religious nature, constitute the main part of his work. Among these, there are the lives of the saints, catechisms, books of asceticism and prayer. It is also worth mentioning other translations to the Guipuzcoan dialect of works written in other Basque dialects, such as Peru Abarca by Mogel and several letters by Mendiburu.*
- *Short works in prose: we only know those which were presented after 1880 and the floral games which were organised at that time, but it seems that he also wrote others.*

- *Linguistic works*: mention should be made here of his collaboration with Bonaparte and Van Eys, as well as the commission he received from the publisher Eusebio López to prepare a dictionary of Aizkibel for publication.

Nevertheless, the main part of the article is dedicated to giving a view of the time in which Arrue lived, which was practically the whole of the XIX century, an era of important changes throughout Europe and, consequently, also in the Basque Country. In general terms the period was marked by the end of the old regime and the beginning of modern times, with the decadence of aristocracy, the rise of the middle classes and the appearance of the working classes. All these convulsions lead, among other things, to the Carlist wars, in which the Basque Country was deeply involved, and which brought about the loss of its ancient rights.

As far as culture is concerned, the article highlights the cultural and literary boom which the Basque Country experienced, especially in the second half of the century, together with the romanticism and an incipient nationalist feeling which was emerging at that time. Mention is made here of the work of Augustín Chaho and Antoine d'Abbadie and the floral games organised by the latter, which, initially in the French Basque Country, also began to be held on this side of the boundary. As a consequence of these figures, a first generation of poets, and later of prose writers. A little later the Basque-orientated cultural atmosphere of Navarra, where the "Euskara Association" is especially noteworthy, with names such as Arturo Campión and Navarro Villoslada, among others.

Next, a short review is made of the authors of the era, highlighting how the change from predominantly or almost exclusively religious works in Basque literature to a greater abundance of works of a clearly literary flavour, with the flourishing of poetry and the birth of the novel.

Finally, the article finishes with a short review of some opinions on Gregorio Arrue.

## Komaren erabilera

Igone Zabala

Juan Carlos Odriozola

Leioako Zientzi Fakultateko irakasleak

### 0. Sarrera

Puntuazioari dagozkion arazoen artean, komarena dugu korapilotsuena zalantzarik gabe. Berori ez dagokio soilik euskarari; bestelako hizkuntzetan ere, erregela finkorik ez dagoela eta, daudenean, guztiz edo idazle guztiek mantentzen ez dituztela esan genezake.

Guzti hori kontutan hartuta eta non ez erabili (pausarik eza) mundu guztiak dakiela pentsaturik, komaren erabilera posible edo halabeharrezkoek arituko gara hemendik aurrera, lan osoan zehar. Kasuistika sartu aurretik, ordea, zenbait kasutako komek perpaus batzuri edukin (pragmatiko) definitiboa emateko duten garrantzia azpimarratu nahi genuke hemen:

- (1) *Arazo hori, lehenengo kapituluan aztertu dugu.*
- (2) *Arazo hori, lehenengo kapituluan, aztertu dugu.*

Garbi dagoenez, lehenengo adibidean arazoa “non” aztertu den adierazi dugun bitartean, bigarrean, *arazoa* eta *kapitulu* zehatz horiek jadanik elkarrizketan aipaturik daudelakoan gaude eta kapitulu horretan aztertzearen ekintza “baiezta” nahi dugu besterik

gabe. Horrela ba, elementu berberak dituzten baina funtzio komunikatibo desberdinaz igorriko lirakeen bi perpaus horiek bereizteko bide grafiko bakarra, koma dugu, (zenbait kasutako) puntuaziozeinu horren garrantzia garbi geratu delarik.

## 1. Komak ezin ditzakeen unitate sintaktikoak.

Zerbait idatzi behar dugunean, hiztunok badakigu orokorki gure hizkuntzaren lexiko-unitate independenteak (hitzak) bereizten, eta horiek, espazio zurien bidez banatzen ditugu<sup>1</sup>. Komak non jarri jakiteak ordea, konpetentzia linguistiko garatuagoa eskatuko digu, puntuazio-zeinu horren bidez bereiztuko diren elementuen independentziak izaera morfosintaktikoa baitu.

Hasteko esan dezagun ikuspegi sintaktiko(/semantiko)tik autonomia azaltzen duten lehenengo mailako elementuak, izen-sintagmak direla. Dakigunez, izen-sintagmek izen substantibo hutsaz edo zenbait elementu desberdinez osaturik egon daitezkeen unitate sintaktikoak ditugu<sup>2</sup>; horrela ba, ondoko sekuentzia hauek konplexutasun maila desberdineko izen-sintagmatzat hartuko ditugu, beti ere sintagma horien bukaerako bukaera-muga mugatzaileak<sup>3</sup> ezartzen duela kontutan harturik:

(3) *Kapitulua...*

*Kapitulu interesgarria...*

*Kapitulu interesgari hori...*

*Beste liburukiaren kapitulu interesgarria...*

<sup>1</sup> Hitz elkartuen edo unitate lexikal konplexuen kasuan, baliteke unitate lexikal horren barruan ere espazio zuririk agertzea: *Zientzi Fákultatea, puntuazio-zeinu...* Marra, barra edo espazio zuria bera, akordio baten arauera hautatu(ko) dira.

<sup>2</sup> GOENAGAk (1980) ondoko erregela hauek proposatu zituen euskal izen-sintagmaren berridazketarako: IS → (Ilag)+(Predet.)+IM+(mug)  
IM → I+(Adj)

<sup>3</sup> Edonola, kontuan hartzekoa da mugatzaile hori beti kasu-markaren arauera horren nabaria ez dela, baina jakina, ez dago arazorik bukaerako dena delako marka hori antzemateko.

- (4) *Kapituluan...*  
*Kapitulu interesgarriak...*  
*Kapitulu berezi horretatik...*  
*Beste liburukiaren kapitulu interesgarriari...*

Aurreko adibideetako adizlagun horien lekuan ager daitezkeen adberbioak ere elementu independentetzat jo behar ditugu, eta jakina, aditza bera ere<sup>4</sup> beste elementu guztietatik modu nabarian bereiz daitekeen elementua da zalantzarik gabe.

Horrela ba, puntu honetara heldurik, lehenengo erregela emateko egoeran gaudela esan dezakegu: **Elementu nominal edo berbal independenteen barnean ez da inoiz komarrik agertuko. Bestalde, elementu independente horien artean, beti egongo da pausa bat, beraren intentsitatea aldakorra izan badaiteke ere:**

- (5) *XVII. mendean / Newtonek / grabitazioaren lege unibertuala / proposatu zuen.*

Dena dela, garbi dago, hizkuntza mintzatuan elementu guzti horien artean ez dugula pausarik egiten, edo egitekotan ere, pausa guztiak ez direla intentsitate berekoak izango. Izan ere, hizkuntza idatziari dagokionez ere, zenbait galdera dago airean: "Logika" sintaktikoan posible diren pausa guztiak, gertatzen ote dira? Gertatze-kotan, guztiek hartu behar dute zeinu ortografikoa? Ba ote daude perpausaren barnean maila (=intentsitate) desberdineko komak?

## 2. Ikuspegi komunikatibotik bereiz daitezkeen elementuak.

Hasteko, perpausetan gainezarritako bi egitura agertzen direla esan daiteke<sup>5</sup>: **Funtzio-egitura** (maila sintaktikoari dagokiona) eta **mintzagai-egitura** (maila komunikatiboari, hots mintzagai / galdegai sistemari, dagokiona).

<sup>4</sup> A<sub>erroa</sub> +laguntzailea / aditz sintetikoa eta hauek har ditzaketen partikula desberdinak: **bai, ez, ote, omen, bide...**

<sup>5</sup> Honetaz zehaztasun gehiago nahi duenak, EUSKALTZAINDIAREN gramatika (1987) kontsulta dezake: *Euskal Gramatika: Lehen urratsak-I (eranskina)*.

Ikuspegi komunikatibo horretatik, perpausaren barneko elementuen ordenaketa hartu behar da kontutan hasiera batetik. Horrela ba, hizkuntzalariek, edozein hizkuntzatarako **ordenaketa neutroak** eta **ordenaketa markatuak** daudela defenditu dute aspaldidanik. Izan ere, ordenaketa batzu beste batzu baino neutroagotzat jotzen ditu hiztunak eta "tonu-aldaketa" berezirik gabe igortzen ditu; markatutzat jotzen dituenetan berriz, elementu desberdinen artean, nolabaiteko pausatzat interpreta daitezkeen tonu-aldaketa bortitzak egingo ditu. Euskararen kasuan, ordenaketa neutroa (hau da, elementu guztiak planu berean geratzea nahi dugunean gauzatzen duguna), SOV<sup>6</sup> dela dirudi. Horrela ba, perpausaren barneko informazioa planu desberdinetan antolatu nahi dugunean, hots, elementu batzuri gainerakoei baino indar handiagoa eman nahi diegunean, ordenaketa markatuak sorteraziko ditugu.

Euskarak informazioaren gunea azpimarratzeko erabiltzen duen sistema aditzaren aurreko gunea inmediatean kokatzean datza, aditzaren aurrean kokatu den elementu hori (galdegaia) eta aditza, sendoki loturiko unitate apurtezina, alegia tartean komarik onartuko ez duena osotuko dutelarik. Baina, honelako elementu bat azpimarratzeak bestelako ondorioak ere ekarriko ditu berarekin, elementu horren leku-aldaketak bestelako elementuak ere aldatzera behartuko baikaitu. Horrela ba, multzo komunikatibo desberdin batzu agertuko dira:

- i) Perpausaren hasierako elementuak (**mintzagaia**), bertan emango den informazioaren kontestua, hau da zertaz mintzatu den, finkatzen du.
- ii) Ondoren, informazioaren gunea den **galdegaia** agertzen da, hori noski, aditzarekin batera.

---

<sup>6</sup> Subjektua / objektua / aditza. OSAk (1980) bere tesian urrunagora joan da eta zehaztasun gehiago esakini du: denbora eta lekua markatzen duten adizlagunak / subjektua / zeharkako osagarria / osagarri zuzena / aditza. Halaber **izan** eta beste aditz kopulatibo batzu dituzten perpaus kopulatiboen kasuan: Den. eta lek. Alg.-k / subj. / o. zuz. / atributua / kopula-aditza.

- iii) Bukatzeko, askotan aipatuak izateagatik edo bestelako arrazoi batengatik bigarren planoan utzi nahi ditugun elementuak aditzaren atzean kokatzen ditugu.

Orain bagaude komunikazio-mailan oinarrituriko erregela bat emateko egoeran: **mintzagai eta galdegai markatuen artean tonu-aldaketa nabaria gertatzen da eta berori, komaren bidez adierazten da hizkuntza idatzian:**

- (6) *XVII. mendean Newtonek grabitazioaren lege unibertsala proposatu zuen.*
- (7) *Grabitazioaren lege unibertsala, Newtonek proposatu zuen XVII. mendean.*

(6) perpausean, ordenaketa ez-markatua erabili dugu, eta beraz, “elementu independente” guztiak plano berean geratu dira, tonu-aldaketa berezirik gabe, (7) perpausean ordea, bi elementu desberdin geratu dira azpimarraturik: mintzatuko gareneko kontestua finkatu digun mintzagaia (*grabitazioaren lege unibertsala*) eta informazioaren gunea den elementua edo galdegaia (*Newtonek*), bukaerarako informazio gehigarria (*XVII. mendean*) utzi dugularik.

Edozein kasutan ere, ezin utz daiteke aipatu gabe galdegaia ez dela beti “elementu nominal” edo “adberbiala”: batzutan informazioaren gunea aditzean bertan datza (aditzaren ekintza<sup>6</sup>, aditzaren baieztapena edo ezeztapena). Kasu hauetan aditza bera izango da galdegaia (bertan loturik eraman ditzakeen partikulak sarturik), eta koma jarri beharko da beraren aurrean mintzagaia osotuko duten beste elementu guztietatik bereizteko:

- (8) *Animaliak, hil egiten dira temperatura horien pean.* (aditzaren ekintza)
- (9) *Animaliak, hiltzen dira temperatura horien pean.* (baieztapena)
- (10) *Animaliak, ez dira hiltzen temperatura horien pean.* (ezeztapena)

<sup>7</sup> Aditzaren bidez adieraziriko ekintza posible diren beste ekintzen aurrean kontrastean jarri nahi denean: *Erosi egingo dut* (eta ez eskatu, lapurtu, begiratu...).

- (11) *Temperatura horien pean, animaliak hiltzen dira, ez landareak.*  
(galdegai "nominala")

### 3. Elementu-zerrendak eta aposizioak.

Komaren erabileraren ikuspegitik, garrantzi handiko agerpenak ditugu bi hauek. Aurretik deskribatu ditugun elementu sintaktiko independente horiek, modu berean, azpielementu batzutataz osoturik egon daitezke. Azpielementu horiek, batzutan errealitate berari (beste modu batez) erreferentzia egingo diote, eta beste batzutan mundu erreala-ren elementu independenteen adierazle izango dira. Bi kasu horietan, hurrenez hurren, **aposizioen** eta **zerrenden** aurrean egongo gara.

**Aposizioak**, pausa markatuen artean adierazten ditugu hizkuntza mintzatuan, eta idatzian, komen artean azalduko ditugu, batzutan areago markatzeko juntagailu bereziak ere (*hots, alegia, hau da*) erabiliko ditugarik:

- (12) *Zelula somatikoan zatiketa, mitosia, ondoko prozesu konplexuan datza.*
- (13) *Tentsioaren denborarekiko aldakuntza, denboran zehar tentsioak jaso duen aldakuntza, hurrengo grafikan adieraziko dugu.*
- (14) *Tentsioaren denborarekiko aldakuntza, hots, denboran zehar tentsioak jaso duen aldakuntza, hurrengo grafikan adieraziko dugu.*

**Zerrendak**, bestalde, konplexutasun-maila desberdinekoak izan daitezke beraien aldetik. Hasteko, bakunenak, bi elementutakoak izango dira; bi elementu horiek lotzeko eta juntagailua nahikoa delarik:

- (15) *Aipatuetatik, lehenengoa eta bigarrena dira garrantzitsuenak.*

Bi elementu baino gehiago dagoenean, azkeneko biak eta juntagailuaren bidez banatu ezezik, gainerakoan artean koma jarriko dugu:

- (16) *Bizidunetan agertzen diren elementurik garrantzitsuenak, karbono, oxigeno, hidrogeno eta nitrogenoa dira.*



Bukatzeko, zerrenda beraren barneko elementuak zenbait azpimultzotan banaturik egoten dira, kasu horietan, azpimultzoen artean eta juntagailua ezezik koma ere jarriko dugu:

- (17) *Kontutan hartu diren aldagaiak hauexek dira: goi-maila eta behe-maila, eta udaberri, uda, udazken eta negua.*

#### 4. Perpaus konposatuak.

Orain arte, komak perpaus barruan sortera ditzakeen arazoez aritu gara. Hemengoan ordea, perpaus artekoak izango ditugu aztergai. Hasteko, bi motatako perpaus konposatuak bereizi behar ditugu gramatika tradizionalaren arauera: koordinatuak eta subordinatuak alegia.

Maila honetan, arazoa nahikotxo konplikatu bazaigu ere, perpaus menperatuen eta perpaus bakunean bereizi ditugun elementu independenteen arteko baliokidetasuna kontutan hartzekotan, hain korapilotsua ez dela ikusiko dugu. Modu honetara, perpaus menperatu batzu izen-sintagmen parekoak izango dira (konpletiboak...), beste batzu adizlagunen parekoak (denboralak, kausalak...) eta beste batzu izenlagunen parekoak (erlatiboak...).

Guzti hori, funtzio sintaktikoaren ikuspegitik izango litzateke, baina, ikuspegi komunikatibotik ere, batzuk galdegai izateko joera izango dute **-(e)lako** atzizkia hartzen duten perpaus kausalak...), beste batzuk mintzagai izatekoa (denboralak...) eta azkenik, beste batzuk aditz nagusiaren atzean azalpen modura agertzeko joera (bait- morfema hartzen duten kausalak).

Horrela ba, **perpaus menperatuak, perpaus bakunaren elementu independenteak bezala tratatuko ditugu**, dena dela, normalean bigarrenetako lehenetako baino luzera handiagoa izaten dutela, kontutan hartzekoa da. Edonola ere, koordinazioaren kasuan sortzen den harremana ez da menperakuntzarena bezain estua; modu honetara, koordinaturiko perpausak independenteagoak izango dira eta ez dugu bata bestearen barnean funtzio gramatikal konkretua duela esaterik izango. Guzti hau, ezaguna denez, koordinazio/subordina-

zioa delako oposaketa labainkorraren kontestuan eta halaber menperatuak nagusian duen txertakuntz mailarenean koka liteke, baina garbi dago eztabaida horiek ez dagozkiola gure oraingo zereginari.

Dena dela, eta hizkuntza idatzi landuetan bederen, koordinazio-juntagailuen edo 5. sailean aipatuko ditugun gainerako komodinen bidez lotuko dira azken perpaus horiek, batak bestearen antolaketa-aren gainean nolabaiteko eragina izango duelarik.

### 5. Juntagailuak.

Juntagailuak, orokorki elementu independenteak lotzeko erabiltzen diren baliabideak dira. Batzutan bi perpaus independenteen arteko zubi-funtzioa beteko dute besterik gabe, juntagailu hauek loturiko bi esaldietatik independente izanik, komen artean<sup>8</sup> agertuko dira. Honelakoak hemen errepikatzeko ugariegi direnez, adibide batzu baino ez dugu eskainiko: **zorionez, dena dela, izan ere, horregatik, beraz, hori dela eta, bestalde, alde batetik, lehenik, bigarrenik...**:

(18) *"Espezieen jatorriaz" liburuaren argitarapenak polemika garrantz luzea piztu zuen. Izan ere, eztanda izugarria piztu zuen Charles Darwin-ek.*

(19) *Emaitza esangarriak lortu ditugu, beraz, metabolismo estandarren adierazpena izan daiteke oxigenoaren kontsumoa.*

Beste juntagailu batzu, elementu independenteen zerrendaketetan erabiltzen dira, hala nola 3. sailean azaldu dugun **eta** juntagailu kopulatiboa. Elementu horiek, sintagmak edo perpaus osoak izan daitezke. **Edo eta ala** juntagailu adbertsatiboek, **baina** juntagailu adbertsatiboak<sup>9</sup> eta **zein, nahiz, bai eta hala... nola** distributiboek ere antzeko erabilera izaten dute, loturiko elementuen artean ezarzen duten harreman semantikoa desberdina dela egia bada ere.

<sup>8</sup> Perpausaren hasieran egotekotan, hasieran puntua eta atzean koma eramango dute.

<sup>9</sup> **Baina** juntagailuak erabilera-aniztasun handia du, puntu honetan, bi esaldiak lotzeko bien artean txertatzen denean izaten duen erabilerarik arruntena soilik hartuko dugu kontutan.

Azken mota honetako juntagailuak, aurrekoak bezala, lotzen dituzten elementuetatik independente samarrak direla esan dezakegu, eta horregatik, zerrendaturiko elementuak laburrak direnean, inolako komarik gabe txertatzen dira<sup>10</sup>; lotzen diren elementuak perpausak direnean, muga markatuagoa dagoela dirudi, eta mezua ulerterrazago gertatzen da juntagailuaren aurrean koma jartzen denean.

Juntagailu distributiboek, beraien aldetik, bi erabilera desberdin izan ditzakete: juntagailua, behin erabiliz (komarik gabe txertatzen da), edo juntagailua zerrendaren elementu bakoitzaren aurrean errepikatuz (juntagailu bakoitzearen aurrean koma). Hona hemen adibideak:

- (20) *Autoreak, zorian gertaturiko aldaketatzat hartu zituen, eta azken emaitzak idazteko orduan, ez zituen kontutan hartu.*
- (21) *Ziurgabetasunaren printzipioaren arauera, gorputz baten posizioa ala abiadura ezagut daiteke baina ez biak batera.*
- (22) *Edozein eroale mekanikok dituen karga elektronikoko askeak edo elektroiak, desplazatu egiten dira eroalean zehar.*
- (23) *Karbonoa zein hidrogenoa, garrantzi handiko elementuak dira molekula organikoetan.*
- (24) *Bai lehenengo taldekoak, bai bigarrenekoak, pseudozelomatuak ditugu.*
- (25) *Zurgapenan, hesteak eta guruinak hartzen dute parte, baina finkatu gabe dago bien garrantzi erlatiboa.*

Bukatzeko, badaude elementu batez ezkerrean estuki loturik daudenak. Talde honetakoan artean, perpaus berriari mintzagai berri bat txertatzeko erabiltzen diren juntagailuak ditugu: **ere** konjuntibo enklitikoak, **ordea**, **ostera**, **aldiz**, **alderantziz**, **berriz**, **baina**<sup>11</sup> adbertsatiboak eta (**izan**) **ezik**, **ezezik**... **ere**.

<sup>10</sup> 3. sailean aipaturiko zenbait talde desberdinez osaturiko zerrenda ez denean behintzat.

<sup>11</sup> **Baina** juntagailuaren erabilera-aniztasunaren barnean badago juntagailu adbertsatibo hauen erabileraren parekoa dena.

Juntagailu hauek, txertatzen duten mintzagai berriaren eta modu horretara loturik geratzen diren perpausen artean, harreman desberdinak ezarriko dituzte. Horrela ba, ere juntagailuaren kasuan, mintzagai berriaz lehenengoaz predikatu den gauza bera emango da aditzera; adbertsatiboen kasuan, mintzagai berria aurrekoaren oposaketan agertuko zaigu, eta beraz, desberdina izango da bigarren predikazio hori; eta bukatzeko (**izan**) **ezik** eta **ezezik... ere** juntagailuen kasuan, loturiko elementua predikaziotik eskluditu edo predikazioan inkluditu egingo da hurrenez hurren.

Azken juntagailu guzti hauek beraz, lotzen duten elementu horrekin batera, ikuspegi komunikatibotik unitate independentetzat jo dugun eta "mintzagai" izenaz ezagun dugun unitatea osotuko dute. Horrela ba, unitate horren barnean ez dugu komarik jarriko, baina bai ordea, juntagailuaren atzean, ondoren etortzen den "galdegai"tik banatzeko.

Azkenik, nolabait ezberdina den **baizik** juntagailua dugu. Hori, elementu batez ezezko predikazio bat igorri ondoren, predikazio hori betetzen duen elementu berri bat txertatzeko erabiliko da. **Baizik** juntagailu hau, aurrekoak bezala, oso estuki loturik duen bigarren elementu horren atzean txertatuko da beti. Juntagailu hau aurrekoak bezala txertaturiko elementuari loturik doanez, bi elementuen artean ez da komarik jarriko:

- (26) *Lehenengo faktoreak, eragin handia du prozesuan, bigarren elementua **ere**, garrantzitsua da.*
- (27) *Lehenengo pausoa, dimentsio bakarreko arazoa aztertuko dugu, bigarrenean **ordea**, bi dimentsiotan mugituko gara.*
- (28) *Lehenengo erreakzioan, oxidatu egin da burdina, bigarrenean **baina**, erreduzitu egin da.*
- (29) *Aipaturiko lehenengo bektorea ezezik, beste bektore guztiak **ere**, askatuak ditugu.*
- (30) *Bigarrena **izan ezik**, askatuak ditugu jadanik ekuazio guztiak.*
- (31) *Guk geuk ez dugu lehenengo analisisa burutu, bigarrena **baizik**.*

## 6. Komaren erabilerarako erregela orokorrak.

a) Lehenengo hurbilketan, elementu independente guztien (perpau-sen edo perpau-sak baino txikiagoen) atzean, koma ager daiteke. Dena dela, ordenaketa ez-markatuaren aurrean gaudenean, ez dirudi elementu desberdinen artean pausa nabaririk egiten denik eta beraz, koma jartzea beharrezkoa denik. Edozein kasutan ere, elementu independente horiek luzeegi suertatzen badira, komenigarri gerta daiteke komaren bidez banatzea. Perpau-s menperatuak, beraien aldetik, elementu independente osoak direnez, barne-komarik gabe igorriko dira<sup>12</sup>:

(32) *Emaitza horiek, lehenengo esperimentuan lortu ditugu.*

(33) *Emaitza horiek lehenengo esperimentuan lortu ditugula esan behar da.*<sup>13</sup>

b) Galdegaia edo mintzagaia bezalako zenbait elementu nabarmendu nahirik ordena markatua erabiltzen deneko unetik, komunikazio-ikuspegitik bereizgarriak diren bi unitate horien artean suertatzen den tonu-aldaketa nabaria adierazteko, koma txertatuko da. Galdegaiak unitate komunikatibo bakarria eratuko du aditzarekin (edo aditza bera izango da) eta beraz, ez da inolako pausarik agertuko bien artean. Hona hemen zenbait adibide:<sup>14</sup>

(34) *Hazkuntza, bada prozesu horien balantzearen menpekoa.*

(35) *Sasigorotzak eratzen direneko kontzentrazioen azpitik, dietaren kalitatearen beherapen luzeekiko konpentsazio-fenomenoak jazo daitezke.*

c) Aditzari dagokionez, ordena ez-markatuan perpau-saren bukaeran agertuko dela esan dugu eta beraz, puntua edo puntu eta koma hartuko du atzean; ordena markatuan berriz, askotan aipatua

<sup>12</sup> Menperatuaren barnean zerrenda edo aposizio bat txertatzen denean, badirudi horiek eskatzen dituzten komak jartzea halabeharrezkoa dela, bestela ulertezin suertatzen baitira.

<sup>13</sup> Perpau-s konpletiboa unitate bakarria denez, desagertu egin da esaldi bakunean zegoen koma.

<sup>14</sup> Adibideetan, galdegaia, azpimarratu egin da argiago uzteko.

egoteagatik edo beste edozein arrazoiengatik bigarren planoan utzi nahi dugun informazioaren atala geratuko da aditzaren atzean, tarteko komarik behar ez dela dirudielarik:

(36) *Produktu liposolublea oso garrantzitsu gertatu da.*

(37) *Konposizio biokimikoa aztertu dugu sail honetan.*

d) Aditzaren atzean doan elementu hori beste perpaus bat deanean, kasu desberdinak agertuko zaizkigu: hasteko, zeharo perpaus independenteak izan daitezke eta orduan koma<sup>15</sup> jarriko dugu lehenengo perpausaren bukaera markatuko duen aditz horren atzean (bigarren perpausaren aurrean batzutan juntagailuren bat agertuko delarik). Bigarrenik, aurrekoari buruzko azalpenaren bat adierazteko txertatzen diren horietariko perpaus bat izan daiteke (**bait, -elarik...**), orduan ere, koma jarriko da lehenengo aditzaren atzean. Eta bukatzeko, perpaus menperatu baten aditza izan daiteke, eta beraz, atzizki menperatzailea (**-(e)n, -(e)la, -(e)nean...**) eramango du atzetik eta aurretik ikusi dugun bezala, esaldi menperatu osoa beste edozein elementu inpedendente modura jokatuko du:

(38) *Aktiniak geldikor ditugu, baina ez dira mugiezinak.*

(39) *Bigarren periodo horretan, gametoen anizketa-tasa, konstante mantendu da, garapen-erritmo desberdinek behatu ez delarik.*

(40) *Osagai biokimiko bakoitza, animalien pisu lehorraren proportzio modura adierazteko, ehunak, liofilizatu egin ziren 15 orduz liofilizagailu industrialean sartuz.*

e) Bukatzeko, kontutan hartzekoak diren koma-erablera batzu aipatuko ditugu; hasteko, aposizioak komen artean idatziko dira; bigarrenik, zerrendaturiko elementuen artean koma edo juntagailuren bat (**eta, edo, ala, zein, bai...**) jarriko da; eta bukatzeko, perpausak lotzen dituzten juntagailuek (**horregatik, beraz, izan ere...**) komen artean<sup>16</sup> idatziko dira eta txertatzen duten elementuari (normalean mintzagaia) estuki loturik joaten diren juntagailuek (**ere,**

<sup>15</sup> Agian puntu eta koma edo puntua.

<sup>16</sup> Askotan, aurretik puntu edo puntu eta koma eramango dute.

ordea, berriz, osterak, ezezik... ere...) koma hartuko dute atzetik baina ez aurretik.

(41) *Bestelako terminoek, hots, maskorraren hazkuntza organikoa eta hazkuntza gonadala, balio handiagoak erakutsi dituzte.*

(42) *Beste espezie batzutan ere, aurkitu da fenomeno bera, horregatik, LUCAS & BENINGER-en ustez, hautsak/pisu lehor osoa indizea, akuikulturaren erabili behar litzateke.*

## 7. Koma-kopuru handiegiak ekar ditzakeen ondorio astunak ekiditeko aukera estilistikoak.

Eskaini ditugun erregela guztiak praktikan jarritz gero, lehenengo hurbilketan behintzat, komaren gehiegizko erabilerara helduko ginatekeela esan daiteke. Horrela ba, kontutan har daitezkeen zenbait erregela estilistiko bertarutzen ausartu gara:

i) Aditzaren atzean koma jartzeko beharrik ez dagoenez, modu nabarian arinduko da perpausa elementu batzu aditzaren atzeko gunera eramanez:

(43) *Zehaketa deritzon garbiketa hori egiteko bideak, garbitu nahi den metalaren arauera, oso ezberdinak izan daitezke.*

(43') *Zehaketa deritzon garbiketa hori egiteko bideak, oso ezberdinak izan daitezke garbitu nahi den metalaren arauera.*

ii) Adizlagun ugari duten perpausetan, posible dugu horietariko batzu izenlagun modura gauzatzea, modu horretara erritmoa arinduko dugularik:

(44) *Aipatu dugunez, aurreko mendearen hasieran, ikertzaileek, konposatu organikoak sintetisatzeko "bizitza-indarra", beharrezkotzat jotzen zuten. (44') Aipatu dugunez, aurreko mendearen hasierako ikertzaileek, "bizitza-indarra", konposatu organikoak sintetisatzeko beharrezkotzat jotzen zuten.*

iii) Idatzi behar dugun perpausaren elementu guztiak berriak direnean, denak agertuko zaizkigu aditzaren aurrean eta komaz banandurik, perpausak oso erritmo astirotsua hartuko duelarik.

Horrelako kasuetan, erritmoa arintzeko, ordena ez-markatua<sup>17</sup> erabil dezakegu, modu horretara, perpaus osoa tonu-aldaketa berezirik gabe eman dezakegunez komaren beharrik izango ez baitugu:

(45) *Beroaren U hedapen-koefiziente global, ekuazio horren bigarren atalari deritzo.*

(45') *Ekuazio horren bigarren atalari, beroaren U hedapen-koefiziente deritzo.*

iv) Lehenago, perpaus menperatuen barnean komarik agertuko ez dela eman dugu aditzera. Horrek, baina, hizkuntza duen errekurtsibitateari<sup>18</sup> lotuta, testu ulergaitzak gauzatzera eraman gaitzake. Horrela ba, zenbait menperatu kateatu nahi dugunean, kontutan hartzekoa da irakurleari ulergarri suertatuko zaionentz, zalantzarik egotekotan, diskurtsoa perpaus laburragoen bidez antolatzea egokiago izan daitekeelarik.

(46) *Denok dakigu substantzia guztiek nahiz eta ilunak izan berotuz gero argia egozten dutela.*

(46') *Dakigunez, substantzia guztiek, nahiz eta lunak izan, berotuz gero, argia egozten dute.*

Areago oraindik, perpaus menperatuaren barneko elementuak asko direnean, komarik gabeko periodo luzeak lortuko ditugu. Berau zenbait kasutan, elementuren bat osotasunaren esangura aldatu gabe perpaus menperatuaren kanpoko zein barrukotzat interpreta daitekeenean hain zuzen, elementu hori menperatutik kanpo ateraz konpon daiteke:

(47) *Kristo aurreko IV. mendearen bukaeran kulturaren erdigunea Alexandriara pasatu zela eta, berau, mundu zaharreko zentru kulturala izatera heldu zen.*

(47') *Kristo aurreko IV. mendearen bukaeran, Alexandria, kulturaren erdigunea bertara pastu zela eta, mundu zaharreko zentru kulturala izatera heldu zen.*

<sup>17</sup> Gogoratu 2. sailean euskararen kasuarako SOV ordena ez-markatua aipatu zela

<sup>18</sup> Hizkuntzak perpaus bat beste baten barnean txertatzeko eta horrela lorturiko hori beste baten barnean txertatzeko eta horrela nahi adina aldiz.



## SINTESIS

Según los autores del artículo, entre los signos de puntuación, la coma es el más problemático al no haber reglas fijas que rijan su utilización. Además, el empleo correcto de la coma exige una competencia lingüística más desarrollada, dado el carácter morfosintáctico de la independencia entre los elementos que se separan mediante dicho signo de puntuación.

Con este planteamiento, los autores tratan de buscar las principales reglas del uso de la coma (punto 1), entre las que destacan en primer lugar que dentro de los elementos nominales o verbales independientes que conforman una misma unidad sintáctica no puede haber coma alguna. Otro uso invariable de la coma es el que se hace para señalar los elementos inquiridos de la oración, que en el lenguaje hablado suelen aparecer resaltados por un cambio de entonación, y que en el idioma vasco suelen provocar ordenaciones marcadas de la oración, diferentes de la ordenación neutra (punto 2).

En un tercer punto se analiza el uso de la coma en cadenas de elementos y en las aposiciones, así como en las oraciones compuestas; entre éstas, parece ser que las oraciones subordinadas se comportan de igual manera que los elementos independientes de las oraciones simples (punto 4).

Más adelante (punto 5) se estudia qué puntuación precisan los diferentes elementos conectores, tales como **en efecto, también, por otra parte, y, o, sin embargo**, etc.

Estas reglas de utilización de la coma aparecen resumidas en el punto siguiente. En el séptimo y último punto, los autores mencionan el hecho de que la puesta en práctica de todas las reglas mencionadas podría llevar a una cierta rigidez o pesadez de estilo, por lo que sugieren una serie de posibilidades estilísticas alternativas que pueden aligerar el ritmo de la frase.

## ABSTRACT

*According to the authors of the article, the comma is the most controversial punctuation mark, as there are no fixed rules regarding its use. Besides the correct use of the comma requires a higher level of linguistic competence, given the morphosyntactic nature of the independence between elements which are separated by means of this punctuation mark.*

*With this approach, the authors try to look for the main rules for the use of commas (point 1), among which the first one which might be mentioned is that*

*within independent nominal or verbal elements which make up the same syntactic unit no comma should be used. Another invariable use of the comma is to indicate the focus elements of a clause, which in oral speech are usually indicated by a change of intonation, and which in the Basque language often provoke marked groupings of the clause, which are different to neutral grouping (point 2).*

*In the third section, the use of the comma in chains of elements and in appositions is analysed, as well as composite clauses; among these, it seems that subordinate clauses behave in the same way as independent elements of simple clauses (point 4).*

*Later (point 5), an analysis is made of what punctuation is required by the different connecting elements, such as **in effect, also, on the other hand, and, or, nevertheless, etc.***

*These rules for using commas are summarised in the following point. In the seventh and last point, the authors mention the fact that the putting into practice of all the rules mentioned might lead to a certain stylistic stiffness or heaviness, and consequently suggest a series of alternative styles which can improve the rhythm of the sentence.*

## Irudizko hizkera itzulpenean

Koldo Biguri

Irudiaren edo irudizko zentzua duten hitz edo esakeren erabilera oso hedatuta dago hizkuntzan, eta hizkuntzaren maila guztietan gainera, bai hizkuntza arruntean, bai literatur hizkuntzan ere; ahozko hizkuntza eta idatzizkoa ere, literaturaren esparruaren barruan zein kanpoan, usu baliatzen dira irudiaren balio espresiboaz, baina hitzunok ez gara konturatzen haietaz, erabiliaren erabiliaz ikusi ere ez ditugulako ikusten, ikustezin bilakatu zaizkigulako, nolabait esateko. Ez naiz, jakina, literatur metafozez ari, hau da, idazlearen beraren sormenari zor zaizkion metaforen klaseaz, ez eta Koldo Izagirreraren **Euskal Lokuzioak** liburuan biltzen diren irudizko esamolde finkoez ere, baizik eta iruditzat hartu ere egiten ez ditugun espresabide ugari batzuez. Adibideak argigarriagoak direnez gero, esan dezagun esamolde finkoek (*tomar el pelo* edo *adarra jo* esaterako) konbentziosko irudizko zentzua dutela, ez metaforikoa beraz, eta, alderantziz, hemen aztertu nahi ditugun irudizko esakerak (*consumirse por los nervios* edo *nerbioak janda egon*, adibidez) metafora batean oinarritzen direla —eta jakina, ez da berdin *nerbio-sa jarriko nintzen* esatea edo *nerbioak janda egongo nintzen*. Ikus beheragoko adibide bat—.

Izan ere, nork erreparatu dio, esate baterako, aurreko lerroetako *maila* eta *esparru* hitzek duten zentzu metaforikoari? Are gehiago, esan liteke hitz horiek beren berezko lehen zentzua —horrelakorik badela esaterik baldin badago— galdu samar daukatela, eta gaur egun irudizko zentzuan bakarrik erabiltzen direla gehienetan. Hau da, hitz horiek izendatzen zutena —eskailera baten ointokia eta hesiz inguratutako lekua— metaforikoki beste egoera edo beste zertzelada batzuetara igaro dela eta, halako hedapen semantikoa jasan dute lehenik —esanahi gehiago daukate, hau da, polisemiakoak bihurtu dira—, eta lerradura semantikoa gero —hots, irudizko erabilerak aurre hartu dio ez-irudizkoari—. Nolabait esateko, metafora fosilak dira orain.

Aski da jakingurazko halako begiratu xume bat egitea esaten, idazten edo irakurtzen dugunari, era honetako hitzak edo esakerak oso ugariak direla konturatzeko. Ugariak ez ezik, ezinbestekoak ere lexikoa aberasteko, polisemia hizkuntzen aberastasunaren neurri esanguratsua bait da, zalantzarik gabe.

Etimologiaz zale den edonork daki zientzia hori dela inoiz izan den poetarik oparoena, hau da, irudia dela hitz asko eta askoren azpian dagoena: ezaguna da gure *bertso* hitzaren jatorri den latinezko *versus* hitzak «lurra goldatzean egiten den ildo» esan nahi zuela hasieran, eta, geroago, metaforaren mirariz, idaztean uzten den arrastoa ere bai. Jakina, latinaren hitz horrek munduko hainbat hizkuntzatan utzi dituen ondorengo barianteak erabiltzen dituzten hiztun gehienak ez dira jabetzen hitz horien azpian dagoen metaforaz, menderik mende galdu bait da harenganako kontzientzia; edo lehenago esan bezala, ikustezin bilakatu bait da.

Baina ez dago zertan mende luzetako bilakaeraren ondoren beren izaera edo jatorri metaforikoa izkutatu duten esakerak bakarrik hona ekarriak, zeren eta beste horrenbeste gertatzen bait da oraingo garaian iruditasun hori bizirik duten hainbat eta hainbat hitzekin; berezko esanahia ala irudizkoa ikasten dugun lehenago, hor dago koska. Esate baterako, neretzat *cancerbero* hitza ikasi nuenean futboleko atezainak izendatzeko erabilia den zentzuan ikasi nuen, eta ezusteko galanta izan zen neretzat hitz horren lehenengo osagaiak

adierazi bezala, txakur baten —hori bai, oso txakur berezi baten— izena zela jakitea.

Baina utz ditzadan alde bat mitologiak, etimologiak eta gainerako «logia» guztiak, nere asmoetatik bazterreratzen ari bait naiz, eta noan artikulu honen xede zehatzera: itzulpenera.

Hizkuntza guztietan badira metafora biziak eta metafora fosilak: lehenengoak adibide edo konparazio-irudi bezala erabiltzen ditugu, adierazmolde bezala: *Porque vivir se ha puesto al rojo vivo*; *bizia gorri bizian jarri da orain*. Metafora fosilak, berriz, hizkuntza baten lexikoan dauden egitura idiomatikoak dira, eta erabiltzen ditugunean zentzu idiomatiko horretan erabiltzen ditugu, ez beren lehen zentzuan: *jostorrazaren begia*; *el ojo de la aguja*. *La cordillera corre de norte a sur del país*; *mendilerroa herriaren iparraldetik hegoaldera luzatzen da*.

Itzulpengintzan, era bateko edo besteko metaforen aurrean topatzen den itzultzaileak normalean ez du jokaera berbera azaltzen; metafora biziak itzuli ohi dira, metafora bera erabiliz, baldin eta xedehizkuntzan ere metafora horrek zentzua badu, edota balio beretsua duen irudi batez. Metafora fosilak, aldiz, esamolde idiomatikoak diren aldetik, hizkuntza bakoitzean zein erabiltzen den jakin behar da lehenik, eta hizkuntza bakoitzean balio bera dutenak bilatuko dira (baliokidetzat). Baina hizkuntzek elkarren arteko harremanak dituztenez gero, eta elkarrekin bide luzea egin dutenez gero ilunpeko garaietatik honaino, halako amankomuneko altxor bat osatu dute, eta honelako metafora fosiletatik hainbat eta hainbat hizkuntza batetik bestera igaro dira.

Horiek horrela, artikulu honen helburua gure itzulpen lanean irudien inguruan gertatzen dena ikustea izango da, edo bestela esanda, erdal hizkuntzetatik euskaratzen dugunean eta euskaratik erdal hizkuntzetara itzultzen dugunean euskal itzultzaileok nola jokatzen dugun aztertzea. Iruditzen bait zait, alegia, nahiko jokaera ezberdina azaltzen dugula batean aritu ala bestean aritu. Adibideetarako hartuko ditugun esaldien jatorria lau liburu dira, bi erdaretatik euskaratuak: **Hadrianoren oroitzapenak** eta **Paskual Duarteren**

**sendia**; eta beste biak euskaratik gaztelaniara itzuliak —ez hori bakarrik, baizik eta, gainera, euskal bertsiorearen egileek berek itzuliak (edo)—: **Grande Placen aurkituko gara** eta, nola ez, **Obaba-koak**<sup>1</sup>. Haietan badirudi badirela zenbait konstante:

a) Euskarazkoan irudi zentzuz erabilitako esakeraren bat dagoe-nean halaxe itzultzen da ia beti erdarara, beste irudi batez, alegia:

### Grande Place...

- *eguzkiaren epeltasunak laztandua*
- acariciado por los tibios rayos de mayo
- *aho gusto lehorra ezabatzeko*
- para **borrar** el seco regusto
- *bere keinu guztiei zerien finezia*
- la delicadeza que **emana** de todos sus gestos
- *inor ez kalean, isiltasuna nagusi*
- calles desiertas donde **imperaba** el desierto
- *indar handiagoaz geratu direlako grabaturik*
- ...han sido **grabados** en mi corazón
- *alegrantziaz lehertuko nintzela*
- ...estallaría de alegría
- [loreak] *bere usain gozoaz kutsatzeko eta inundatzeko*<sup>2</sup> gauza *bait dira*
- incluso un lugar tan espacioso se **inunda** con su perfume

---

1. Dena dela, liburu hau itzuli duten bezala itzuli dutela, ez da lan arina adibideta-rako balio dezaketen esaldiak aurkitzea.

2. Irudi hau ezinezkoa zen euskaraz erdal **inundar** horren baliokideekin, usain batek ezin bait du plazarik **urpetu** edo **urez bete**, bi esamolde hauek garbiegiak bait dira —euskal lexikoaren errealismoari leporatu beharko—, erdal **inundar** opako horren aldamenean. Nonbait egilearentzat beste aditzak, **kutsatuk**, ez zeukan **inundar** horrek adinako indar espresiborik, eta irudiarekin batera erdal hitza ere mailegatu beharrean aurkitu da.

## Obabakoak

- *erabakia sendoa zen*
- era una decisión **firme**
- *bere libretari ere aitortzen ez ziona* [ohitura bat]
- una costumbre que ni siquiera se atrevía a **confesar** a su diario
- *altzairuzko ate berri eta zatar batek itxutzen baitzuen [...]*
- *arku fantasiatsua*
- una puerta de acero nueva y fea **cegaba** el fantasioso arco
- *esan zuen berak azkenez, bere golkorako bezala*
- **musitó** el director como para sus **adentros**
- *Duela hilabete edo, artean bere izenak zerbait esaten zion*
- Hace un par de meses su nombre **representaba** algo para él
- *Ez zion ikarari biderik egin behar*
- Lo importante era no **dejarse dominar** por el miedo
- *bere bizimodu aldaketaren oinarrian zegoen altxorra*
- el tesoro que **cimentaba** la Nueva Etapa de su Vida

b) Ordea, euskarazkoan berezko irudirik ez dagoen esakera askotan irudizko itzulpena ematen da erdaraz, edota dagoen irudiaren zama semantikoa indartu edo areagotu egiten da:

## Grande Place...

- *eta laurok elkartu gara besarkada mutu batean*
- y nos hemos **fundido** en un mudo abrazo
- *udal-etxeko dorrea, goian San Migelekin*
- la torre del Ayuntamiento, y San Miguel en su cima
- *sentsazio hori areagotzeko asmoz*
- con la idea de **agudizar** esa sensación
- *edifizio hau arkitekto batek egina ez izatea*
- no fueran **concebidos** por un sólo arquitecto
- *ze sentsazio arrotz multzoa sentitzen dudan*
- siento que me **invade** un **mar** de sensaciones
- *gutziz urduri eta nerbiosa jarriko nintzela*
- me **consumirían** los nervios

- *hitz lelo hutsez **betetako** bisita eta gutunetan*
- en cartas y visitas **preñadas** de palabras banales y vacías
- *gero esan zidatenez, ez **zerbait** morborik gabe*
- posteriormente me contaron, no sin una cierta **dosis** de morbosidad
- *dena tonu berde **honekin** orok politago, suabeago ematen du*
- todo es más suave y hermoso **bañado** con este color verde

### Obabakoak

- *libretan **egiten** zituen apunteak*
- las anotaciones que **confiaba** a su diario
- *baina berak ez zuen **konprenitzen** orratz haien zentzua*
- pero el significado de aquellas agujas **escapaba** a su comprensión
- *Mugatseko morroi **ttikiak** duda aurpegia **jarri** zion*
- el joven criado **esbozó** un gesto, entre la perplejidad y la desconfianza
- *goizeroko teatro haiek **toki berdinean egiten** zituen beti*
- sus representaciones **tenían siempre como escenario...**
- *gorputza dantzan **bezala** mugituz aldatu zen arropaz*
- se cambió de ropa moviendo el cuerpo y los brazos, **amagando** un baile
- *alegrantzia bizi batek **hartzen** zion bihotza*
- una viva alegría **inundaba** su corazón
- ***berritu** egin zitzaizkion lagunik lagunenari idazteko desioak*
- **renació** en ella el deseo de escribir a Su Mejor Amigo
- *bere bihotz **etsia** errebelatu egin zen*
- el despecho que **albergaba** en su corazón se rebeló
- *izenak hartu zuen ordurarte etsipenak **edukitako** lekua*
- la confusión que había **habitado** en ella dejó su lugar al miedo
- *eta aitorpen kutsu nabarmeneko lerroak **idazten** zituen*
- y **plasmaba** allí las reflexiones...

d) Erdal testuetan azaltzen diren irudizko esamoldeei oso gutxitan eusten zaie euskal itzulpenean:



### Paskual Duarteren sendia

- *en algunos pasajes demasiado **crudos** de la obra*
- idazlanaren gertakari **gordinegietan**
- *dónde habría de **cortar** [el relato]*
- non **moztu** beharko ote nuen
- *no tiene usted idea de la **impresión profunda** que ha dejado en mi espíritu, de la honda **huella**, del **marcado surco** que en mi alma produjeran*
- ezin jakin zenezake zenbaterainoko **zarrazta sakona** utzi duten nere barnean<sup>3</sup>, nolako **hatza** egin duten nere animan eta zein **ildo nabarmena** nere bihotz muinean
- *el odio tarda años en **incubar***
- gorrotoak denbora behar du **habia egiteko**<sup>4</sup>

### Hadrianoren oroitzapenak

- *prêt à en **rejeter** le blâme sur le jeune Iollas*
- horren errua [...] Iollas sendagile gazteari **leporatzen** zion
- *triste **amalgama** de lymphe et de sang*
- linfa eta odollezko **amalgama** triste bat<sup>5</sup>
- *un monstre **sournois***
- munstro **azpijale** bat
- *ma plus ancienne **expérience** de la mort*
- nire lehen **topaketa** heriotzarekin<sup>6</sup>

3. Hemen **espíritu** hitzaren euskal ordaina —ordain garbia, ez dezagun ahaztu— irudi bat da: **barnea**.

4. Jatorrizko irudi bera ez izan arren, haren aldamenekoa da.

5. Kontutan hartu **amalgama** hitza teknikoa dela sortzez, kimikaren alorrekoa, eta euskal hiztegieta sarrerarik ez zaiola ematen ia: Kintanarenean mailegua jasotzen da inolako azalpenik gabe; L.M<sup>8</sup> Mujikarenean kimikari atxekia azaltzen da soilik —hau da, irudizko zentzurik ez zaiola aitortzen, zentzu horretan guztiz euskaldunak diren **nahasketa** eta gainerako aldaerak aski direlako—; Plácido Mugicarenean agertu ere ez —nahasketa zentzua eta erabilera baino izango ez balu bezala—.

6. Ikus 4. oharra.

- *Nos Romans [...] s'inondent de sauces*
- Gure Erromatarrok [...] hainbat saltsaren **uholdetan ito...**<sup>7</sup>

e) Baina gehienetan zentzuaren araberako itzulpena egiten da, guztiz denotatiboa edo azalpenezkoa:

### Paskual Duarteren sendia

- *como quiero descargar mi conciencia*
- nere barrunbea lasaitzeko asmoz<sup>8</sup>
- *no se me oculta que mi recuerdo...*
- **badakit** nere oroitza...
- *el tiempo que he gastado*
- **erabili** dudan denbora
- *me corre un estremecimiento*
- dardaraz **jartzen** nau
- *solución que repugna a la veracidad de este libro*
- hau ez litzateke liburu honen egitasunari **dagokion joera jatorra izango**
- *estampando estas palabras*
- **idazten** dizkizut hitz hauek
- *para no precipitar el escándalo*
- iskanbilarik **sortu** ez dadin
- *no se le escapa detalle*
- ez zaio ezertxo ere **ikusi gabe gelditzen**

### Hadrianoren oroitzapenak

- *je t'épargne des détails*
- Ez dizut **aipatu nahi** [...] hainbat xehetasun
- *je ne lui marchande pas les soins nécessaires* [gorputzari]
- ez diot beharrezko dukeen inolako arreta eta txerarik **ukatzen**

7. Ikus 2. oharrean esandakoa.

8. Hemen **descargar** irudia hitz denotatibo batez itzuli da: lasaitu; aldiz, **conciencia** itzultzean irudi batez baliatu da (ikus 3. oharra).

- *peut-être n'ai-je été si économe de sang humain*
- giza odol ugari **alferrik isuri** ez badut
- *interminables histoires de chasse qui mettraient à l'épreuve la patiente de mes invités*
- erabat **agortaraziko** bait nuke [...] gonbidatuen pazientzia
- *il savait exactement [...] le point où ma volonté divorçait d'avec ma force*
- zein puntutan hasten zen nire borondatea nire ahalmenetik **be-reizten**
- *subitement vautés par la conquête dans les cuisines de l'Asie*
- bat batean, konkistak **direla medio**, zera bihurtu garen...
- *ses pâtés de faisans [...] témoignaient d'un art aussi exact que celui du musicien*
- haren faisai-pateek [...] bazuten musikari baten artearekin **alderatzeko bezainbat antzetasun**

Hona ekarri ditudan adibideak aski azaletik arakatu ondoren lortu dira, eta, jakina, askoz esanguratsuagoak topa nitzake, bai eta, nola ez, hauetatik ateratzen diren ondorioak ukatzen dituztenak ere. Alabaina, nik uste dut, eta uste horren indargarri itzultzeak eman didan esperientzia ere ekar nezake orriotara, nahiko joera nabarmenak direla aurreko esaldi hauek erakusten dituztenak, euskara dela tarteko egiten dugun itzulpenari dagokionez —eta oso datu jakingarria iruditzen zait, gainera, testu horien asmatzaile diren idazle bik holakoxe jokaera desorekatua erakustea hizkuntza batean eta bestean—.

Hau da, erdarak —gaztelerak zein frantsesak kasu honetan— askoz garatuagoa dauka irudi bidezko espresabidea, eta dexentez aberatsagoa da hitzen polisemian; ondorioz hizkuntza hauetan esakera konnotatiboak erruz topatuko ditugu. Egitate hau oztopo nabari bilakatu zaigu euskal itzultzaileoi, euskaratzen dugunean askotxo, eta errazegi beharbada, jotzen bait dugu azalpenezko itzulpenera, hau da, euskaraz ustez edo ez daukagu irudizko esamoldea baztertu, eta haren ordezkotako azalpen laua egitera. Honetan, gainera, euskal hiztegiak ere ez dira batere lagungarri gertatzen, gehienetan euskararen garbitasunaren ohorez irudigabeko edo azalpenezko ordainak baino ez bait dituzte ematen. Ondorioz zer datorkigun asmatzea ez

da zaila: itzulpen zuzenak, bai, baina jatorrizkoen aldean kolorerik gabeak, lauak, gezak.

Gehiegizko neurrian heltzen diegu *jarri, hartu, egin, esan, idatzi, jakin* eta beste «omnibus hitzei», aditzak soilik salatzearren. Baina ez bakarrik itzultzaileok; ikusi dugun bezala, euskal idazleek ere badute sail honetan zer jorraturik, eta gure gabezia honegatik beren erantzunkizunari aurre egin beharrik ere bai. Ikusi besterik ez dago gorago papereratu ditudan azalpenezko izenez bataiatu ditugun esaldien artean honelako zenbat «omnibus hitz» dagoen, oinarrizko lexikotik urruntzen ez diren zenbat hitz. Ez da harrigarria, horregatik, halako amildegi semantikoa egotea euskal liburu horien itzulpean, idazleek berek egindakoetan; izan ere, erdaraz —geurea ere den erdaraz, zehaztuko dugu— beste neurri bat erabiltzen dugu testuen literaturtasuna erabakitzeko, eta askoz ohitura sendoagoa dugu irudiez baliatzeko esan beharrekoak esatean edo idaztean.

Baina itzultzaileok ere erruan dugun geure zatiari ezin diogu ihes egin. Hainbat gutxiago, itzulpenak gure artean hartu duen munta ikusita, gehiegikerian erortzeko beldurrik gabe esan bait liteke gaur egun euskararen ereduaren bidea erabakitzeko adinako indarra hartu duela. Behin eta berriz errepikatuko dugu euskara eta erdara(k) erabat ezberdinak direla, eta batean (batzuetan) esaten dena ez dagoela zertan gurean ere erabilirik; hori egia da askotan, baina argudioa errepika eta errepika, azkenean geure burua zurrizteko ezin egokiagoa egin zaigu, ahaztuta daukagularik euskara ez dela orain hogeitabi urte Europako hizkuntzen artera zerutik jausitako hizkuntza bat, hau da, amankomuneko historia bat badugula beste hizkuntzekin, eta, are garrantzitsuagoa, amankomuneko historia bat daukagula zain.

Azken puntua ipini aurretik, ekar dezadan hona M. Vázquez Ayora-ren **Introducción a la traductología** liburutik ateratako pasarte txiki bat, artikulu honen izpiritua nolabait laburbiltzen duena:

Las traducciones explicadas destruyen todos los matices, sus soluciones no son intercambiables con las expresiones originales en las respectivas situaciones. El

procedimiento debe orientarse a producir un exponente intercambiable de verdad; es preciso buscar una equivalencia de la más elevada probabilidad. (320. orria)

## SINTESES

### El lenguaje figurado en la traducción

El empleo de palabras y expresiones con sentido figurado está muy extendido en todos los niveles del lenguaje. Se hace uso del valor expresivo de la imagen incluso sin apercibirse de ello. No se hace referencia aquí a las metáforas literarias, ni siquiera a las locuciones fijas con sentido convencional (*tomar el pelo*), sino a expresiones que, si bien están basadas en una metáfora, hoy en día se usan casi exclusivamente en sentido figurado (*el ojo de la aguja, la cordillera corre de norte a sur*). Estas últimas han sufrido primeramente una ampliación semántica y, posteriormente, un desplazamiento semántico, convirtiéndose en metáforas fósiles. De hecho, atendiendo a la etimología, se observa que la imagen subyace en gran cantidad de palabras (ej.: bertso < versus: «surco que se hace al arar la tierra»), aunque el hablante no sea consciente actualmente de las metáforas ocultas en ellas.

En todas las lenguas existen metáforas vivas y metáforas fósiles: las primeras se emplean como imágenes comparativas, las segundas son estructuras idiomáticas, que no se usan en su sentido originario.

El traductor no actúa normalmente del mismo modo ante unas y otras: las metáforas vivas se traducen normalmente usando la misma metáfora, o por medio de una imagen de análogo valor; las metáforas fósiles, por su parte, exigen conocer sus equivalentes en la lengua de destino, si es que éstos existen.

En cuanto a la traducción del euskara a otras lenguas o de otras lenguas al euskara, en el artículo se analizan varios textos, en los que se pueden observar ciertas constantes:

a) Cuando en euskara se emplea una locución con sentido figurado, se traduce casi siempre con el mismo sentido figurado.

b) Sin embargo, en muchas ocasiones, aunque en el texto en euskara no aparezca propiamente una imagen, se traduce también usando términos con sentido figurado, o se intensifica la carga semántica de la imagen.

c) En las traducciones al euskara sólo en escasas ocasiones se mantienen las locuciones con sentido figurado.

d) Por el contrario, generalmente se realiza la traducción al euskara atendiendo al sentido, de forma puramente denotativa o explicativa.

Estas constantes resultan aún más significativas si se tiene en cuenta que en el caso de las obras cuya traducción al castellano se analiza (**Grand Placen aurkituko gara y Obabakoak**), son los propios autores quienes han realizado esa labor: se observa un evidente desequilibrio entre el original y la traducción.

La expresión por medio de imágenes está mucho menos desarrollada en euskara que en las lenguas vecinas: la polisemia de las palabras, derivada casi siempre del uso figurado de determinados términos, es mayor en esas otras lenguas. Este hecho ha traído consigo el que el traductor al euskara recurra a la traducción explicativa, con lo que a menudo nos encontramos con traducciones que, siendo correctas, carecen del colorido del original y resultan insípidas.

## ABSTRACT

### *Figurative language in translations*

*The use of words and expressions with figurative meaning is very widespread at all levels of the language. The expressive quality of images is used unconsciously. Reference is not made here to literary metaphors nor even to standard phrases with a conventional meaning (to "pull" someone's leg), but to expressions which although based on a metaphor, are used nowadays almost exclusively in a figurative sense ("the eye of the needle"; the mountain range runs from North to South. The latter have experienced, firstly, a semantic expansion, and later, a semantic displacement, having been converted into fossil metaphors. In fact, taking etymological aspects into consideration, it can be seen that images underlie a large number of words (e.g., "bertso" < versus: "a furrow which is made when ploughing the earth"), although the speaker is not really conscious of the hidden metaphors it contains.*

*In all languages there are living metaphors and fossil metaphors: the former are used as comparative images, the latter are idiomatic structures which are not used in the original sense.*

*The translator does not normally act in the same way in each case: living metaphors are usually translated by using the same metaphor, or by means of one with a similar image value; fossil metaphors, on the other hand, require knowledge of their equivalent in the target language, if any.*

*With regard to translations from Basque to other languages or from other languages to Basque, in the article several texts are analysed in which certain constants can be observed:*

*a) When a phrase is used with a figurative meaning in Basque, it is translated almost always with the same figurative sense.*

b) Nevertheless, on many occasions, although it would not appear to be an image, in the proper sense of the word, in the text in Basque, it is translated using terms with a figurative meaning, or the semantic impact of the image is intensified.

c) In translations into Basque, phrases with figurative meaning are maintained on very rare occasions.

d) On the other hand, translations to Basque are usually made considering the sense in a purely indicative and explanatory way.

These constants are even more significant if it is borne in mind that the authors analyse translations of certain works into Spanish that they themselves have made (**Grand Placen aurkituko gara** and **Obabakoak**). A clear imbalance is observed between the original and the translation.

Expression by means of images is a lot less developed in Basque than in the languages of neighbouring countries, and the multiple meaning of words, derived almost always from the figurative use of specific terms, is greater in these other languages. This fact has meant that the translator into Basque resorts to an explanatory translation, and we often find ourselves with translations which, although correct, lack the colour of the original and seem insipid.





## **Testu itzuliaren organikotasuna**

Xabier Mendiguren

Glotodidaktikaren munduan, oro har, eta gure artekoan bereziki, mintzamenari eman izan zaio lehentasuna, eta idazmenaren kaltetan sarritan. Bestalde, hizkuntzaren alderdi komunikatiboak ere ilunpetan gelditu izan dira gutxiasko, gramatikazko zuzentasun antzuegi baten aldareetan lepo eginak. Eta guzti honek euskararen ikaste eta ezagutze autistiko edo solipsista samar batera eraman gaitu, askotan komunikazio-euskara egoki batek eskatzen dituen baldintzak gehiegi kontutan eduki gabe, lexiko-gramatikak beren baitan, inolako zertarakorik gabe, zurrunki eraikitako munduak bailiren hartzeraino, Saussurek egindako Hizkuntza eta Hizketaren arteko bereizketa eta ondoren Coseriuk “arau” nozioaz osaturikoa gutxietsiz. Bestela esateko, bizitza abstrakzioaz ordeztu dugun arren lasai samar geratu izan gara, hortik benetako komunikazioari sortzen zitzaizkion eragozpenak gainditzen gehiegi ahalegindu gabe.

### **Testu idatziaren ezaugarriak**

Baina ez dut auzi honi bere zabaleran ekiteko asmorik, eta oraingoz idatziaren alorrera mugatuko naiz, eta itzulpen idatziarenera zehazkiago.

Begibistakoa da zerbait idazten dugunean, gramatikaren arabera zuzen idatziriko perpaus sail bat bata bestearen ondoren ezartzea baino zerbait gehiago egiten dugula. Hau jakina bezain gutxi praktikatua dela esatera ausartuko nintzateke. Hainbestearaino arduratuko gara perpausaren komunztaduraz, aditzaren osagarriak ongi erabiltzeaz eta osagai sintaktikoen hurrenkeraz (Altube'tar Seber jaunak araturikoaz gehienbat), ezen ikasleek platerak bezalako begiak ireki izan bait dituzte gramatikaren kontrako akats bakar bat egin gabe testu baztergarri bat idatz litekeela eskolan esan izan diedan bakoitzean.

Beraz, ez da gaizki etorriko hemen gogora ekartzea idazten ari garenean idazleak behar adina denbora hartzen duela (edo beharko lukeela behintzat) nahi duen hori pentsatzeko, antolatzeko, hitzak eta esamoldeak aukeratzeko eta, azken finean, gogoan duen hori ahalik eta erarik egokienean komunikatu ahal izateko. Idatzia gehienetan egituratuagoa, konplexuagoa, loturatuagoa izan ohi da.

Hiztunak pentsatu ahala, bizkorrago jaulkitzen ditu ideiak, eta idazleak ez bezala intonazioa, keinuak, egoera jakin batean egoteaz baliaturik, testu idatzian nekez eta askotan inola ere adierazi ezin daitezkeen elementuekin jokutzen du bere komunikazioa lortzeko.

Hiztunak normalean aurrean izaten ditu solaskide edo entzuleak (telebista eta irratiko zenbait kasutan izan ezik) eta atergabeko atzelikadura edo "feed-back"az baliatzen da esaten ari den hori komunikazioaren eskakizunetara moldatzeko.

Azkenik, ez da alferrikoa izango hiztuna izateak ez duela derri-gorreetan idazten jakitea eskatzen esatea ere, eta azken teknika hau alfabetakuntzaren bitartez jasotzen dela eta sarri samar erabili eta garatu ezean murriztu eta erdi-galdu ere egiten dela gaur egun herrialde industrialduetan Marconiren galaxian hainbeste pertsonari gertatzen zaionez, horrela "analfabeto funtzional" deitzen armada motelean sartuz.

Egia da, noizbehinka betetzen eta sinatzen ditugun taloietatik hasi eta nobelagileak idazten duen elaberri orritsu edota doktoregoko tesi korapilotsuraino eguneroko kazetek eskaintzen dituzten era

guztietako albiste, iragarki eta idaztietatik igaroz, ia ezin sailkatuzko testu ugaritasuna dagoela, baina testuak, luzea zein laburra, sinplea zein konplexua izan, zuzen eraikitako esaldiak hurrenez-hurren ondozkatzeko soilak baino zerbait gehiago izan behar du eta behar batzuei erantzuteko sortua den heinean komunikazio-unitate bat eratzen du, hau da, bitariko koherentzia eta lotura mota baten jabe dena: testuaren eta hizkuntz sistemaren arauak sortutakoarena eta idazleak gogoan duen helburu edo xedearena.

### Testuaren lau mailak

Azter dezagun idazle edo testu baten egileak zer-nolako prozesua burutzen duen idatzi hori gauzatzean. Zerbait adierazteko premia sentitzean (inori zein bere buruari) aurrena eredu bat bilatuko du. Informazio baten formulazioa nabarmenki aldatzen da telegrama, gutun pertsonal edo formal, kazetako albiste soil zein irazkindu baten modua erabiliz komunikatu nahi denean. Ereduak zer genero edo azpigenero izango duen erabakitzeke orduan mezu idatzi horren irakurlea, beronen baldintzak, mezuaren zertarakoa eta abar bezalako alderdiak oso kontutan hartuko ditu eskupeta behar den jopuntura zuzentzeko eta testuak nahitaezkoa duen **egokitasuna** (alderdi pragmatikoa) zaindurik, komunikazio helburua lor dezan.

Ondoren, adierazi nahi dugun ideia edo ideiak pentsatu, hautatu, egituratu eta antolatu egin beharko ditu gutxienezko **koherentzia** batekin (alderdi semantikoa) eta azkenik ideia horiek esaldien bitartez adierazi behar dituzenez gero, perpaus jakin batzuk eraiki eta elkarri loturik, **kohesioa** duten pasarteak osatuko ditu, edukina eta formaren arteko lotura estuan (alderdi estilistikoa).

Guzti hau dagokion hizkuntzaren gramatika arauak betez erredaktatuko du, kasuan kasuko hizkuntz sistema eta arauetako **zuzentasunean** (korrektotasunean).

Ikusten denez, eta lehenago ere aipatu dugunez, azken urteotan testuaren eraikuntzan gehienbat kontutan izan eta azpimarratu dena, erpinetik behera deskribatu dugun piramide imajinario honen oina

izan da. Izan ere, edozein hizkuntzaren ortografia, puntuazioa, lexicoa eta egituren erabilera erregulatzen duten arauak oinarrizko eta ezinbestekotzat jotzen dira hortik gorako mailetan zertzen diren kohesioa, koherentzia eta egokitasuna gauzatu ahal izateko. Baina motz geratuko litzateke hori bete duelako gainerakoa berez datorrela uste duen idazlea. Horregatik, uste baino sarriagotan gertatzen da, edozein eratako idatzi zein itzulpenek sortzen digun desegokitasunezko efektuaren aurrean testua osatzen duten esaldiak banan-banan aztertzen hastea eta akatsik ez aurkitzea, nahiz eta irakurri dugun testuaren aurrean halako ondoez lauso bat sumatzen dugun. Agian zuzentasunarekin zerikusirik ez duen eta aipatu ditugun goragoko mailaren batean egon liteke gaitzaren berri emango digun gakoa.

### **Itzulpena eta idatziaren ezaugarriak**

Gorago aipatu ditugun testu idatziaren lau ezaugarriek garrantzi edo munta ezberdina dute itzulpenari dagokionean. Bistan dago egokitasuna eta koherentziari dagokienez, itzultzaileak jatorrizko testua ongi ulertu eta genero egokian kokatetik hasi beharko duela, ondoren xedeitzulpeneko literatur tradizioa eta usarioetara behar bezala aldaketa egin ahal izateko. Eta zer esanik ez dago, estadio eta garapen-maila ezberdinetan aurkitzen diren bi hizkuntza eta kulturaren arteko itzulpenak zenbait arazo planteiatzen dizkiola itzultzaileari sorburu-testuaren irakurlearen eta xede-testuaren irakurlearen artean ondorio antzekoak lortu nahi baldin baditu.

Bestalde, testua eratzeko egin duen ideien aukera eta ezarkerari dagokionez, literatur testua baldin bada oso arriskutsua gerta liteke “logika” arrazoizkoagoen edo ulerterrezagoen izenean jatorrizko testuko osagaiak beste era batera antolatzea. Iraganean behin baino gehiagotan ezagutu izan dira jatorrizko testua “hobetzeko” tentazio aitortuak, baita euskal itzultzaileen artean ere, eta ondorengo belau-naldiek ez ezik zenbait garaikidek ere ia beti eta gogor txarretsi izan dituzte jokabide paternalista hauek. Bide laban honetatik urratsen batzuk ematea zilegi bada, agian testu pragmatikoetan -eta didaktikoetan bereziki- izan liteke, izan ere testu hauetan alderdi semanti-

koak bait du nagusitasuna eta hizkuntz formulazioak normalean era monosemikoan interpretatzeko taiutuak direlarik, hizkuntza bakoi-tzak bere historian zehar garatuak dituen baliabide estilistikoen arabe-bera jatorrizko testuko mezua ematea zuribidetua ez ezik beharrez-ko ere gerta liteke. Vinay-Darbelneten *Stylistique comparée du français et de l'anglais* (1958) obra jadanik klasikoa eredu bikaina da, antzeko ikerketak beste hizkuntza-bikoteen artean burutzeko eta itzulpenak egiterakoan kontutan hartzeko.

Baina batez ere kohesioaren mailan planteiatzen zaizkio itzul-tzaileari arazo ugari eta jakinak, oraindik gramatika eta hiztegi-arauemailerik gabe dagoen euskara bezalako hizkuntza batek zu-zentasunaren mailan ere gorabehera eta eztabaidakizun bat baino gehiago izanik.

Dena den, eta gaurko lantxo honen helburuak mugatuz, kohe-sioaren alorra aztertzeari ekingo diogu.

### **Kohesioa Halliday-Hasanen (1976) arabera**

Aurrera Hallidayk (1970) proposaturiko hizkuntz sistemaren arabera, hizkuntzak hiru funtzio nagusi burutzen ditu: ideazionala, pertsonartekoa eta testuala. Ideazionalak proposiziozko harremanak eta kanpomunduarekiko gure esperientzia azaltzen du. Pertsonarteko-ak hizketa-rolak kodetzen ditu eta mezuaren "edukinarekiko" hiztu-nak duen jarreraren berri ematen du. Testuala, berriz, testugintza-rekin loturik dago eta kohesioa da berau gauatzeko moduetako bat.

Kohesioak zerikusi estua eta zuzenekoa du perpausak elkarrekin lotzeko moduarekin testua eratzeko. Osagai kohesioemaileak aztertzen ditu, (semantikoak zein sintaktikoak), berauen norantza (anaforiko-kataforikoa) eta distantzia osagai kohesioemailearen eta aipatzen duen elementuaren artean dauden perpaus kopuruaren terminotan.

Testuak adierazpidearen arabera ahozkoak eta idatzizkoak izan daitezke eta erabiltzen direneko helburuen arabera deskribatzaileak, narratzaile-argudiozkoak eta esposatzaileak izaten daitezke.

Halliday eta Hasanek (1976) azterketa sakonagoak burutu dituzte gerora kohesioari buruz eta ingelesari dagokionez bost mekanismo kohesioemaile berezi dituzte: Erreferentzia, Ordezpena, Elipsia, Juntagailua, eta Lexiko-Kohesioa.

**Erreferentzia:** (*Gizon bat ikusi dut. **BERAK** eman dit egunkaria.*) Elementu kohesioemaile gisa oinarri semantikoa du eta aurretik testuan aipaturiko pertsona edo gauza anaforikoki zein kataforikoki identifikatzen duen proforma bezala funtzionatzen du. Erreferentziaren barruan lau kohesio-lotailu daude: izenorde pertsonalak, erakusleak, artikulua mugatzailea eta konparaketa.

**Ordezpena:** (*Alkandora zaharturik daukat. Berri **BAT** behar dut.*) Kontakizun baten barruan aurretik xeheki esan diren gauzak ez errepikatzearen *hau ta hau esan dit, hola eta hola hitzegin zigin.*

**Elipsia:** (*Zer deritzezu poemei? (") Politak direla.*) Elipsiak esan nahi du perpaus batetik erraz berreskura daitezkeen elementu batzuk ezabatzea. Errepikapenari ihes egiteko edota arreta informazio berrira zuzentzeko erabiltzen da. Kohesio-lotailu gisa, elipsiak norma-lean anaforikoki funtzionatzen du eta elementu bat edo gehiago ezaba ditzake klausula baten subjektutik hasi eta klausula osoa eliditzeraino, polaritatea adierazten duen elementua izan ezik.

**Juntagailua:** (*Gogor lan egin du. **BERAZ** ongi ordainduko diote.*) Elkarren ondoan dauden bi perpaus lotzen dituzten markagailu esplizitoak dira juntagailuak. Esanahi ezberdinetakoak izan litezke: gehikariak, denborazkoak, aurkariak, kausazkoak, jarraikariak.

Sail honetan hamar bat multzo ezberdin eman genitzake euskarari dagokionez (Ikus Bergarako UNED, 1986, 186-189 or.):

- 1) Esanahi kontsekutiboa dutenak (*orduan, ba, beraz, honela, horrela, hala, horregatik...*).
- 2) Aurreko esaldiaren kontrako zerbait eta hurrengo esaldiaren hasieran gehienbat erabiltzen direnak (*hala ere, bestalde, haatik, hala eta guztiz ere, baina, alabaina, edozein eratan, dena den, dena dela, nolana ere, edonola ere, edozelan ere, zer esanik ez...*).

- 3) Aurreko esaldiaren argudio sendotuz, hurrengoaren hasieran jartzen direnak (*gainera, bestalde, modu berean, era berean, halaber...*).
- 4) Adibide edo azalpenak ematekoak eta aurrean, erdian zein atzean ezartzen direnak (*esaterako, esate baterako, adibidez, kasu, hau da, hots, hala nola...*).
- 5) Esaldi adbersatiboak lotzekoak (*ordea, ostera, aldiz, berriz, alderantziz, kontrara, aitzitik, baina, alabaina...*).
- 6) Azalpen edo argibide gisara atzetik erabiltzekoak (*hain zuzen (ere), noski, behintzat, bederen, behinpehin...*).
- 7) Aurreko izena azpimarratu nahiz aposizio erara erabiltzen direnak (*delakoa, izenekoa, aipaturikoa, deitua...*).
- 8) Galdegaiaren funtzioa arintzeko izenordain edo esaldi ordain erara erabiltzen direnak (*zera, hauxe, honakoa, ondokoa...*).
- 9) Nork bere eritzia duela adierazteko komodinak (*ene ustez, nire eritziz, ene gardiz, ene iduriko, uste dudanez, nik uste...*).
- 10) Aurretik esandako zerbaitetan oinarriturik argudiatzeko erabiltzen direnak (*dakigunez, esan bezala, esan denez, ikusten denez, ezaguna denez, jakina dugunez...*).

**Lexiko-kohesioa:** (*Kea eta zarata handia zegoen. KEA herritik zetorrela ematen zuen.*) Lexiko-kohesioa honako bost era hauetara lor daiteke: osagai bera (*Autoa bertan behera utzirik zegoen. Autoak zaharra zirudien.*), sinonimoa (*Kotxeak zaharra zirudien.*), gai-nordinatua (*Seatak zaharra zirudien*), osagai orokorra (*Traste zaharra egoera onean zegoen.*) edota albokidea (*Ez zegoen gidariaren aztarnarik.*) erabiliz.

Aipaturiko hauezaz gainera **Errepikapena** (narratzaileak aurreko perpausaren parterren bat berriro esatea), **Galde-erantzuna** (gehienbat ahozko testuetan aurkitzen dena) eta **Paraleloa** (egitura antzekoa sortu eta elkarren ondoan ezartzea) ere kohesioa egiten duten baliabidetzat jo daitezke.



Egia esan, alor honetan gauzak dagozkien bidetik eraman nahi baditugu, beharrezko zaigu euskal kohesioaren mekanismoak aztertzea eta azken urte hauetan testu sortu eta idatzietan nabari den zentrifugazioari aurre egitea.

## Zenbait erakustale

Amaitu aurretik erakutsi nahi nuke nola ardatz sintagmatikoa luzatzen ari den azken bolada honetan, ardatz paradigmaticoko zenbait elementuren kaltetan. Esaterako, usuarioz erabili izan diren *laguna du*, *aita nau* eta abar bezalako perpausen ordeztze *bere laguna da*, *bere aita naiz* eta gisa honetakoak ari gara egunero entzuten eta irakurtzen.

Bestalde, aditza destrinkotze joeraren ondorioz ere antzeko fenomenoak ari dira sortzen: *Aitari txapela erosi diot*, *Primeran etorri zaizkigu bezalako*en ordeztze *Aitarentzat txapela erosi dut* eta *Primeran etorri dira horiek guretzat* eta abar bezalakoak, *bere*, *beraren*, *beren*, *beraien*, *berorien*, *berauen*, *haien*, *horien*, *hauen* eta antzeko formen artean sekulako nahastea nabari delarik.

## Organikotasun testuala

Testu oro koherentzia ematen dion barne-logika baten arabera garatzen da. "Organikotasun testuala" deitzen dugun hori da testu-erakuntzaren armadura, estiloa beronen kanpo-itxura delarik. **Organikotik** eratorritako izperria den honek idiomatikoz aparteko barne-gaitasun bat adierazten du. **Gramatikalar**ekiko kontrajarririk, **idiomatiko** hitzak hizkuntzaren jeinu edo nortasun berezia adierazten du; aldiz, **organikotasunak** testu bateko elementu guztien elkardependentzia hierarkizatuaren aipamena egiten du, sarritan hitzak eta egitura banaka lantzean itzultzaileak galtzen duen ikuspegi orokorrak kontutan izan behar lukeen hori.

Esan duguna lortzeko maniobra ezberdinak burutu behar izaten dira testu itzulian. Honako lau hauek dira sarrien egiten direnak:



- a) Informazio elementuak **birbanatu** testuan zehar.
- b) **Kontzentrazioa**: adierazi bat baino gehiago kopuru txikiago batez adierazi.
- c) Informazio-elementuak **inplizitatu edo esplizitatu**.
- d) Lotailu edo **osagai kohesioemaileak** XHko testuaren logikaren arabera ezarri.

Zerrenda hau beste elementu eta jarduera askorekin luza liteke, seguraski, baina nolnani ere itzulpeneko testu berriaren logika eta organikotasun horrek aginduko du kasu bakoitzean jatorrizkoaren mimetismo mekaniko edo ia hitzez-hitzekeo batetik aldendu eta hizkuntz osagai ondozkatu multzo bat izan litekeen itzulpena egokitasuna eta zuzentasuna ezezik koherentzia eta kohesioa dituen testu organiko eta bizia izan dadin. Nire eritzian, euskal itzultzaileok orain arte baino arreta gehiago eskaini beharko genioke geure testuen alderdi honi, itzulpen irakurgarri eta ulergarriak egin nahi baditugu behintzat.

## SINTESIS

### El carácter orgánico del texto traducido

En el campo de la Glotodidáctica se le ha dado prioridad al lenguaje hablado, en perjuicio del escrito. Por otra parte, el aspecto comunicativo del lenguaje ha quedado en ocasiones a merced de una estéril corrección gramatical, sin que se hayan tenido en cuenta los problemas que se plantean en el verdadero acto comunicativo.

#### Características del texto escrito

La escritura supone algo más que la simple concatenación de oraciones gramaticalmente correctas. De hecho, es posible escribir un texto sin ningún error gramatical, pero que al mismo tiempo sea inaceptable.

El escritor, a diferencia del hablante, dispone del tiempo necesario para estructurar el mensaje que desea comunicar. Sin embargo, carece de algunos de los elementos de los que hace uso aquél: entonación, gestos... El hablante tiene normalmente ante sí al oyente, y se sirve continuamente del «feed-back», para adecuar el

mensaje a las exigencias de la comunicación. Ser hablante no significa, por otra parte, saber escribir: esa aptitud se obtiene a través de la alfabetización.

Un texto es una unidad comunicativa, que debe mantener una doble coherencia: por una parte, respecto a las normas del sistema lingüístico, y, por otra, respecto a la finalidad perseguida por el escritor.

#### Los cuatro niveles del texto

En primer lugar, el autor debe buscar el modelo adecuado para alcanzar su objetivo comunicativo (aspecto pragmático); seguidamente, estructurar las ideas que desea transmitir de una forma coherente (aspecto semántico); en tercer lugar, construir las oraciones adecuadas, con la debida cohesión (aspecto estilístico). Deberá, finalmente, redactarlas respetando las normas gramaticales (corrección).

Sean traducciones o no, nos encontramos en ocasiones con textos que nos transmiten una sensación de incorrección, aunque analizados frase a frase resultan ser gramaticalmente correctos. En tales casos, habrá que buscar la explicación en alguno de los restantes niveles.

En el campo de la traducción, no todos los niveles tienen la misma trascendencia. Así, en el nivel de la cohesión, objeto de análisis de este artículo, el traductor debe enfrentarse a problemas diversos.

La cohesión tiene relación directa con la forma de unir entre sí las distintas oraciones. Halliday y Hasan, con respecto al inglés, distinguen cinco mecanismos de cohesión: la referencia, la sustitución, la elipsis, la conjunción y la cohesión léxica.

En cuanto al euskara se refiere, se constata hoy en día una tendencia a prolongar el eje sintagmático a expensas del paradigmático (ej.: bere laguna *da* en lugar de *laguna du*, bere aita *naiz* en lugar de *aita nau...*).

#### Carácter orgánico del texto

El texto tiene carácter orgánico: los elementos que forman parte de él son jerárquicamente interdependientes. Así, si el traductor analiza las palabras y las estructuras aisladamente, pierda la visión global, que debería tener siempre en cuenta.

El carácter orgánico del texto exige que el traductor se aleje de un mimetismo mecánico, casi «palabra por palabra»; sólo de ese modo será la traducción algo más que un conjunto de elementos lingüísticos colocados en cadena, es decir, un texto que, además de la debida adecuación y corrección, presente la necesaria coherencia y cohesión.

## ABSTRACT

### *The organic nature of translated texts*

*In the field of language teaching priority has been given to spoken language, to the detriment of written language. On the other hand, the communicative nature of language has, on occasions, been at the mercy of a sterile grammatical correction, without any consideration being given to the problems which are posed by the true communicative act.*

#### *Characteristics of the written text*

*Writing represents somewhat more than a simple linking of grammatically correct phrases. In fact, it is possible to write a sentence without any grammatical error, but which, nevertheless, is unacceptable.*

*The writer, unlike the speaker, has sufficient time to structure the message which he or she wishes to communicate. Nevertheless, he or she lacks some of the elements of which the latter makes use: intonation, gesture, etc. The speaker normally has the listener in front of him, and he or she uses "feedback" to adapt the messages to the requirements of the communication. To be a speaker does not imply, on the other hand, an ability to read: that is a skill which is obtained through learning how to read and write.*

*A text is a communicative unit, which must maintain a double coherence: on the one hand, with regard to the standards of the linguistic system, and, on the other, with respect to the aim pursued by the writer.*

#### *The four levels of text*

*In the first place, the author must look for the right model to attain his or her communicative goal (pragmatic consideration); then, structure the ideas which he or she wishes to transmit in a coherent fashion (semantic consideration); thirdly, construct the appropriate clauses with sufficient cohesion (stylistic consideration). He or she must, finally, write them respecting grammatical rules (correctness).*

*Whether they are translations or not, we are faced on occasions with texts which seem to be incorrect, although when analysed sentence by sentence, they are grammatically correct. In these cases, an explanation must be looked for on some of the remaining levels.*

*In the field of translation work, not all levels have the same importance. Thus, at the level of cohesion analysed in this article, the translator must face many different problems.*

*Cohesion has a direct relation to the way different clauses are joined. Halliday and Hasan distinguish five cohesion mechanisms in English: reference, substitution, ellipsis, conjunction and lexical cohesion.*

*As far as Basque is concerned, a tendency can be noticed today towards lengthening the syntagmatic axis at the expense of the paradigmatic axis (e.g.: "bere laguna da" instead of "laguna du", "bere aita naiz" instead of "aita nau", etc.).*

***Organic nature of text***

*Text has an organic nature: the elements which form part of same are on independent hierarchal levels. Thus, if the translator analyses the words and structures in isolation, he or she loses the overall view, which must always be borne in mind.*

*The organic nature of the text requires that the translator avoid mechanical mimicry, almost "word for word"; only in this way will the translation be something more than a group of linguistic elements placed in a chain, i.e., a text that, in addition to the necessary adaptation and correctness, has the required coherency and cohesion.*

## **Baltasar Céspedes maisuaren itzulpen teoria**

Francisco Calero  
UNED (Madrile)

B. Céspedes humanista handiaren bizitza eta lana argitzearren osatu du Andrés doktoreak monografia garrantzitsu bat, behar bezala probetxatu ez dena ondoko ikerketetan; horrela, esaterako, Espainiako zein atzerriko itzulpengintzaren inguruko gaiei buruz bibliografia ugari egon arren, uste dut inork ez duela aipatu humanista espainiar honen itzulpen teoria; egite hau ez litzateke larriegia izango baldin eta haren ideiak munta gutxikoak balira, baina gertatzen da aztergai honen historia luzean idatzi diren ekarpen guztietatik interesgarrienetako bat dela harena. Haren pentsamoldearen punturik garrantzitsuenak nabarmendu nahi nituzke nik lan honetan, baina ezer baino lehen komenigarria dirudi haren bizitzaren laburpen bat egiteak, oraindik ez bait da oso ezaguna humanismo hispaniarraren panoraman; esandako Andrés doktorearen lanari jarraituko gaitzaizkio horretan.

### **B. Céspedesen bizitzaren laburpena**

Salamancara 1583an iritsi aurreko haren bizitzari buruz ezagutzen ditugun gorabeherak gutxi dira; bakarrik, Granadan jaio zela

eta Arte Maisu gradua Valencian eskuratu zuela. Salamancako unibertsitatera erakunde hartako figurarik gailenetako batek, Fray Luis de Leónek, aurkeztu zuen, ez dakigularik nola ezagutu zuten elkar. Fray Luisek esandako hitzek ondo asko argitzen dute humanista gazte hartaz zeukan oneritzia: «hombre eminente para la dicha re-gencia... y docto y muy apropiado para el servicio de la Universi-dad» (Andrés, 1965, 21. orr.). Era horretara, Gramatika Ikastegiko Superintendente edo Zuzendari izendatu zuten, baina bi hilabetez baino ez zen aritu kargu horretan, 1583ko eguberrietan Mateo Váz-quez de Lecca, Felipe IIaren idazkari zenaren idazkari izatera iritsi bait zen; nonbait ez zegoen oso gustura lanpostu berri horretan, ezen 1584ko irailean Salamancan aurkitzen dugu berriz ere. Baina segu-raski jasotzen zuen soldata eskasak bultzatu zuen Medina de Rioseco-ko Estudioan fortuna tentatzera; bera abiatu aurretik gertakari ga-rrantzitsu bat jazo zaitzaion: emaztetzat hartu zuen Antonia del Pe-so, Francisco Sánchez de las Brozas, unibertsitate hartako Erretori-ka Katedradunaren alaba. Medinan geratu zen 1587tik 1592ra arte, Valladolideko Akademiara igaro zelarik orduan; baina hor ere ez zuen bere azken geralekua topatu, zeren 1596an Salamancara itzuli bait zen berriro, «Prima de Gramatica» katedra eskuratu zuelarik, eta Grekerakoa 1609an. 1615ean hil zen.

Bizitza gorabeheratsu horretan bi gertakari erabakikor nabarmen ditzakegu: Fray Luisekin zeukan adiskidetasuna, eraginen bat edo beste jasoko bait zuen harengandik, eta Brocense deritzaionaren suhi bihurtu izana, zeinekin ez bait zen beti erabat ados egon.

### **Itzulpengintzak humanistarentzat duen baliagarritasuna**

Céspedesek humanistari egozten dizkion eginkizunen artean obra klasikoak itzultzea dago; lan horren aurrekari gisa Cicero ai-patzen du, grekeratik zenbait obra itzuli bait zituen:

Es también obra del humanista no menos principal que las otras y de muy grande utilidad el traducir los autores de una lengua en otra; ejercicio que hicieron los antiguos con mucho cuidado; y tenemos de Ciceron muchas traducciones griegas

como es todo el tratado que llaman *De universitate* que es traducido del *Thimeo* de Platon y todos los *Phenomenos* de Arato traducidos en verso exámetro y otras muchas cosas que recogio con gran curiosidad Henrico Estephano en el libro que llamo *Lexicon Ciceronianum*; traduxo también las dos contrarias oraciones de Demosthenes y Aeschines; la qual traducción se perdió y solo queda el proemio de ella que es el librito que se intitula *De optimo genere oratorum*, aunque el título es falso como se prueba por Asconio Pediano, al principio de la oración *Pro Milone*, de donde se colige que no es libro de Ciceron, aunque Fulvio Ursino en las notas quiere esforçar que sea de Ciceron aunque no puede; este exerciçio pues de la traduçion es de gran importancia para el que la haçe y a menester para el muchas partes que las tienen pocos de los que traduçen. (Céspedes, 1965, 250. orr.)

## Itzultzaile izateko betebeharrak

B. Céspedes izan zen hiru baldintzak, geroztik errepikatzen direnak, argi eta garbi ezartzen lehena: sorburu hizkuntza jakin, xede hizkuntza jakin, eta itzulgaia menderatu:

Las que todos communmente conocen son tres: La primera perfecta notiçia del lenguaje del hauthor (sic), la segunda gran conocimiento y uso de la lengua en que se tradduçe y la terçera inteligencia de la materia de que se trata de author porque en cualquiera facultad ay particulares terminos della y el que no lo sabe aunque traduzca bien conforme al rigor de la letra, no sera la traduçion inteligible para los de aquella facultad; no teniendo los terminos de ella que se an de tradduçir conforme al uso de ambas lenguas con propiedad. (Céspedes, 1965, 250-1. orr.)

Lehen biak jadanik Leonardo Bruni italiarrak ezarri zituen 1420an:

Recte autem id (sc. interpretationem) facere nemo potest, qui non multam ac magnam habeat utriusque linguam peritam. (Kloepfer-en aipatua, 1967, 39. orr.)

Hirugarrena, aldiz, Luis Vives-ek adierazi zuen lehen aldiz.

## Itzulpenari buruz Horatius-ek duen pasarte ospetsua- ren interpretazio zuzena

*Epistola ad Pisones* delakoaren 133-134 bertsoak («Nec verbum verbo curabis reddere fidus / interpres») alderantziz interpretatu dituzte komentari askok tradizio klasikoak zehar, eta oraindik ere berdin gertatzen da XX mendean; bertso hauen eta Cicerok itzulpenaz dituen pasartearen interpretazioari eskeini zion V. García Yebrak lan bat, non interpretazio zuzena ematen duen: «Parece que fue San Jerónimo el primero que atribuyó a las palabras de Horacio el sentido erróneo que luego se les ha venido dando desde la Edad Media hasta nuestros días» (García Yebra, 1979-80, 153. orr.). Izan ere, San Hieronimok *Epistola ad Pammachium* (Hieronimo, 1962, 491. orr.) hartan eskeintzen du interpretazio okerra; XV mendean Niclas von Wylek ideia berari eusten dio, Kloepfer-ek aipaturiko testuan agertzen den bezala (ikus Kloepfer, 1967, 20-21. orr.). Interpretazio horrek ondoko bi mendeetan iraun zuen, eta oraintsu arte ere defenditu dute aditu ugari; alabaina, nork asmatu ote zuen benetako interpretazioa? Seguraski horren loria gure autoreari dagokio, 1600. urtean ondoko hitz zorrotzak idatzi bait zituen:

...y mas creçe esta dificultad de traduçir por estar obligado el traductor a seguir la lengua del author palabra por palabra segun, enseña Horaçio en la Poetica diciendo: *Nec verbum verbo curabis reddere fidus interpres*. La qual sentençia la entienden ordinariamente al reves y quieren hacer decir a Horaçio que el fiel interprete no ha de traducir palabra por palabra y en este viçio caen ordinariamente los que toman las sentençias de los authores sacadas por otros y se fian de alegaciones ajenas no leyendo ni estudiando los authores en sus libros enteros; [...] Volviendo, pues, al verso de Horaçio, va tratando alli de la immitacion, dice en summa que el que uviere de immitar un lugar que no le traduzca palabra por palabra como el fiel interprete que esta obligado a esto. (Céspedes, 1965, 251-252. orr.)

Gure humanistaren testigantzak frogatzen du interpretazio okerra zela zabalduena, baina baita zenbaitek pasarte hori egoki interpretatzen zutela ere; Fray Luis edo haren aitagarreba ote? Baliteke hala izatea, baina ezin daiteke dokumentatu.



## Cicerok bere itzulpen lanez duen pasarte baten interpretazio zuzena

Ciceroren *De optimo genere oratorum*eko pasarte ezagun bat ere gaizki interpretatua izan da maiz:

Sententiis iisdem et earum formam tamquam figuris, verbis ad nostram consuetudinem aptis; in quibus non verbum pro verbo necesse habui reddere, sed genus omne verborum vimque servavi. (Cicero, 1964, 5, 14)

Lerroon itzulpena zaila da, eta horren froga gisa bi aditu handirenak emango ditut, nik proposatzen dudanarekin konparatu ahal daitezen. Hona hemen Sánchez Lasso de la Vegarena: «Traduzco los pensamientos; pero sus formas o, como podría también decirse, sus figuras, las traslado en una lengua ajustada a nuestra costumbre. Por eso no he traducido palabra por palabra, sino más bien el estilo general y el sentido de las palabras extranjeras» (Sánchez Lasso de la Vega, 1967, 95-6. orr.). Eta García Yebrarena: «Con las mismas ideas y con sus formas a modo de figuras, pero con palabras acomodadas a nuestro uso. No me pareció necesario volver palabra por palabra, pero conservé todo su estilo y su fuerza» (G<sup>a</sup> Yebra, 1979-1980, 140. orr.). Nik, aldiz, beste hau proposatzen dut: «Ideia berberekin eta haien forma eta itxuramenduekin, baina geure usadioarekin bat datozen hitzekin. Haietan ez nuen hitzez hitz itzultzeko beharrik izan; aitzitik, hitzen izaerari, oro har, eta haien esanahiari eutsi diet». Hiru itzulpenok konparatuz gero alde nabariak antzemango dira; irakurleak erabaki dezala zeinek adierazten duen hobeki jatorrizkoa, oraingoa ez bait da horretan luzatzeko momentua. Orain interesatzen zaidana zera da: Cicerok bereizten duela itzultzaile moduan itzultzea eta bere moduan, hau da, hizlari gisa, itzultzea. Cicerok bigarren modua aukeratu izanak ez du esan nahi benetako itzultzaileak halaxe egin behar zuela uste zuenik; horregatik, kontuz irakurri behar dira Kloepfer-en hitzok:

Erster Gegner der primitiven Wörtlichkeit und vielzitiertes Vorbild des ihr gegengesetzten Typus ist *Cicero*; bis in das 19., teilweise sogar bis in das 20. Jahrhundert ist er für die meisten Übersetzer der «Befreier» vom übergroßen Zwang der frem-

den Sprache. Der Übersetzungstypus, den er an die Stelle der «sklavischen Kopie» setzte, kann mit einigem Recht eine «freie Übersetzung» genannt werden. (Kloepfer, 1967, 22. or.)

Uste dut Cicerok aukeraturiko forma ez datorrela bat gaur egun itzulpen libretzat jotzen dugunarekin, eta, alderantziz, Quintilianus-ek eginiko formulazioa egokitu beharko litzaiokeela: «neque ego paraphrasin esse interpretationem tantum volo, sed circa eosdem sensus certamen atque aemulationem» (Quintilianus, 1975, X, 5,5). Baina hau gure oraingo asmorako beharrezkoa ez den zehaztasuna da, ezen Céspedes Maisuaren interpretazioa Ciceroren lehen esaldiari baino ez dagokio, eta bete-betean asmatzen du hartan:

...pruevase esto por un lugar de Ciceron que el que uviere de immitar un lugar que no le traduzca palabra por palabra como fiel interprete, que esta en el libro dicho *De optimo genere oratorum* donde hablando de la tradduccion que hizo de las oraçiones de Demosthenes y Aeschines y escusandose de que no fue fiel interprete dice estas palabras: *Nec converti ut interpres sed ut orator sententiis eisdem et earum formis tamquam figuris verbis ad nostram consuetudinem aptis, in quibus non verbum pro verbo necesse habui reddere*; de manera que si fuera interprete *necesse haberet verbum pro verbo reddere*. (Céspedes, 1965, 252. orr.)

## Estiloari eusteaz

Itzultzaileari jatorrizkoaren estilora moldatzeko beharra ezarri zion lehena Bruni italiarra izan zen, ondoko bi testu esanguratsu hauek erakusten duten bezala:

...sic in traductionibus interpres quidem optimus sese in primum scribendi auctorem tota mente et animo et voluntate convertet et quodammodo transformabit eiusque orationis figuram, statum, ingressum coloremque et linamenta cuncta exprimere meditabitur. Ex quo mirabilis quidem resultat effectus.

Rapitur enim interpres vi ipsa in genus dicendi illius, de quo transfert, nec aliter servare sensum commode poterit, nisi sese insinuet ac inflectat per illius comprehensiones et ambitus cum

verborum proprietate orationisque effigie. Haec est enim optima interpretationis ratio, si figura primae orationis quam optime conservetur, et neque sensibus verba neque verbis ipsis nitor ornatusque deficiat. (Klopefer-en aipatua, 1967, 40. orr.)

Kloepfer-ek aipatu gabe uzten duena Luis Vives da, espreski itzulpenaren ezaugarri honen aldeko azaltzen dena: «Quo et gratiam orationis servaris exactius, et propius fueris interpretatus ad verbum, hoc versio erit potior ac praestabilior» (Vives, 1536, 231. orr.).

Kloepfer-ek aipatu gabeko beste espainiar batek, Fray Luis de León-ek, oso era ederrean deskribatzen du berak nola itzultzen duen: «...y pretendí que respondiese esta interpretación con el original, no sólo en las sentencias y palabras, sino aun en el corriente y en el aire de ellas, imitando sus figuras y sus modos de hablar y maneras cuanto es posible á nuestra lengua, que á la verdad responde á la hebrea en muchas cosas» (Luis de León, 1798, XII orr.).

Céspedes Maisuaren aipamenik ere ez du egiten autore alemaniarrek, hura bada ere abiaburu hau hobekien adierazten duena:

Estas son las tres cosas que como dixe se requieren vulgarmente para traducir bien, ademas de las quales ay otra de gran importancia que por ser de muy gran dificultad veo que la guardan muy pocos; y es que se a de tradduçir de tal manera que sea el mismo estilo de la tradduçion que el de el original de donde se traduçe. Llamo estilo al character y idea de la oraçion, de tal manera que si el author tiene el estilo grave, aspero, suave o de otra forma la tradduçion guarde ni mas ni menos el mismo ayre y las mismas figuras, como diçe Ciceron (Céspedes, 1965, 252. orr.).

## Ondorioak

Laburra izanik ere, uste dut Céspedes Maisuaren itzulpen teoria Espainian gai honetaz idatzi denik zuhur, zorrotz eta sistematikoena dela, eta San Hieronimo, Leonardo Bruni eta Luther bezalako autoritate handien maila bera iritsi edo gailendu ere egiten duela. Hona hemen haren ekarpenik nagusienak:

1. Zuzen interpretatzen ditu Cicero eta Horatiusen pasarte klasi-koak, sarri askotan eta baita egun ere gaizki interpretatuak izan direnak.
2. Itzultzailearen hiru betebeharrak aipatu zituen lehena izan zen: sorburu hizkuntza jakitea, xede hizkuntza jakitea, eta itzulgaia menderatzea.
3. Itzultzaileak bete beharrekotzat jotzen du itzultitako autorearen letrari zintzoki jarraitzea.
4. Argi eta garbi adierazten du zer jotzen duen estilozat, eta oharrematen du itzultzaileak itzultitako autorearen estilo berari eutsi behar diola itzulpenean.
5. Autorearen obra osoaren berri jakin gabe haren esaldi solteak hartzen dituzten itzultzaileak kritikatzten ditu, autorearen benetako pentsaera inguratzerik ez bait dute horrela. García Yebra ere baliatzen da Horatiusekin eginiko interpretazio okerraz antzeko kritika bat egiteko: «Este famoso pasaje de Horacio es ejemplo de dos cosas: de cómo un texto sin contexto puede interpretarse erróneamente, y cómo afirmaciones equivocadas se aceptan y se transmiten sin crítica» (G<sup>a</sup> Yebra, 1983, 233. orr.).

## Bibliografia

- Andres, Gregorio de (1965): *El Maestro Baltasar Céspedes y su Discurso de las Letras Humanas*. Monasterio de El Escorial, Biblioteca de la Ciudad de Dios.
- Bruni, Leonardo (1957): *De interpretatione recta*. J. von Stackelberg-en bilketagatik aipatzen da: *Humanistische Prosatexte aus Mittelalter und Renaissance*. Tubinga.
- Céspedes, Baltasar (1965): *Discurso de las Letras Humanas*. Gregorio de Andrés-en edizioa. Monasterio de El Escorial, Biblioteca de la Ciudad de Dios.
- Cicero (1964): *De optimo genere oratorum*. A.S. Wilkins-en edizioa, Oxford, Clarendon Press.

- García Yebra, Valentín (1983): «Traducciones bíblicas y traducciones literarias», in *En torno a la traducción*, Madrile, Gredos, 227-236. orr.
- Horatius (1963): *Opera*. E.C. Wickham eta H.W Garrod-en edizioa, Oxford, Clarendon Press.
- Hieronimus, San (1962): *Cartas de San Jerónimo*. Daniel Ruiz Buenoren edizioa, elebiduna. Madrile, B.A.C., I lib.
- Klopefer, Rolf (1967): *Die Theorie der literarischen Übersetzung*. München, Wilhelm Fink.
- Luis de León, Fray (1798): *Traducción literal y declaración del «Libro de los Cantares» de Salomón*. Salamanca, Francisco Toxar (obra honen lehen argitalpena da).
- Quintilianus (1975): *Institutio Oratoria*. J. Cousin-en edizioa. Paris, Belles Lettres.
- Sánchez Lasso de la Vega (1967): «La traducción de las lenguas clásicas al español como problema», in *Estudios Clásicos*, XI, 50, 89-140. orr.
- Vives, Juan Luis (1536): *Rhetoricae, sive de recte dicendi ratione libri tres*. Basilea.

Koldo Bigurik itzulia

## SINTESIS

### La teoría de la traducción del Maestro Baltasar Céspedes

Este artículo tiene como punto de partida una monografía que el doctor Gregorio de Andrés dedicó en 1965 al Maestro Baltasar Céspedes, humanista español, natural de Granada, y que falleció en 1615.

La teoría de la traducción de Baltasar Céspedes no ha sido objeto de la atención que merece, a pesar del gran interés de su aportación a esta materia.

Así, por ejemplo, además de señalar la utilidad que la traducción tiene para el humanista, B. Céspedes fue el primero en establecer de forma clara los tres requisitos esenciales del traductor: conocimiento de la lengua de origen, conocimiento de la lengua término y dominio de la materia.

Igualmente, nos ofrece la correcta interpretación de sendos pasajes clásicos de Horacio y Cicerón sobre la actividad traductora, que han sido frecuentemente mal entendidos, incluso en nuestros días.

Exige del traductor, asimismo, la acomodación al estilo del original: «...de tal manera que si el author tiene estilo grave, aspero, suave o de otra forma de traducción guarde ni mas ni menos el mismo ayre y las mismas figuras, como diçe Ciceron», y critica a los traductores que toman frases sueltas de un autor, sin tener conocimiento de la obra entera, por lo que no pueden captar su auténtico pensamiento.

## **ABSTRACT**

### ***The theory of Maestro Baltasar Céspedes concerning the work of translating***

*This article is based on a book which Doctor Gregorio de Andrés dedicated in 1965 to Maestro Baltasar Céspedes, the Spanish Humanist, who was born in Granada and died in 1615.*

*The theory of Baltasar Céspedes on translation has not been given the attention it deserves, in spite of the great interest which his contribution to this subject has.*

*Thus, for example, besides pointing out the usefulness that translation has for the Humanist, B. Céspedes was the first to clearly establish the three essential requirements for a translator: a knowledge of the source language, a knowledge of the target language and a mastery of the subject.*

*Likewise, he offers the correct interpretation of two classic passages from Horace and Cicero on the task of translations, which have been frequently misunderstood, even today.*

*It requires that the translator adapt himself to the style of the original: "... in such a way that if the author has a grave, harsh or smooth style the translation must have exactly the same air and the same figures, as Cicero says", and criticises translators who take the isolated references of an author, without knowledge of the entire work, and therefore cannot capture its real meaning.*

**IRUZKINAK**





## **Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea**

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publié pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 34. No. 1/1988.

### **Sommaire — Contents**

#### **Articles**

JOSETTE M. COUGHLIN: Artificial Intelligence and Machine Translation: present developments and future prospects.

A. SHAIKEVICH and I. OUBINE: Translators and researchers look at bilingual terminological dictionaries.

GEORG TRÜBNER: Gottfried August Bürger und seine Übersetzungen aus dem Englischen.

IRINA CHEPIK: Tikhonov — perevodchik.

**Le monde de la Traduction — The World of Translation.**

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Sociétés membres de la FIT — FIT member societies.

Sociétés membres associées — Associate member societies.

Prix de traduction de la FIT — FIT translation prizes 1987.

Publications de la FIT — FIT publications.

Résolutions soumises au XIe Congrès de la FIT — Resolutions submitted to the XIth Congress of FIT.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

*Les contes du Perroquet; Les chants de Nezahualcoyolt: A. Bello, Naissance d'une pensée latino-américaine: S.-S. Orbéliani, La vérité du mensonge.*

### **Informations bibliographiques et lexicographiques Bibliographical and Lexicographical Information.**

J. DRASKAU AND J. HØEDT (eds): The World of LSP II

S. JANK, L.L. LECOMPTE (eds): Thésaurus: personne handicapée.

### **Forum.**

Interprète en langue des signes.

JOSETTE M. COUGHLINek lehenengo artikuluan, Intelijentzia Artifiziala eta Itzulpen Programen garapena azaltzen digu, eta etorkizunerako perspektibak erakusten. Batez ere, itzulpen programak nola hobetu diren intelijentzia artifizialaren estratejiez.

Inork dudarik balu, autoreak, argi eta garbi uzten du hobea dela gizonak

egindako itzulpena, makinak berak egin dezakeena baino. Honek, beti behar du itzultzailearen azken ukitua, itzulpen maila kalitatezkoa eskatzen bada, behinik behin. Hori bai, gizonak lagungarri du makina gaur informazio kopuruak egin duen gorakadaren aurrean.

Itzulpen makinetako bi sistema klase aztertzen ditu: zaharrenak, oinarri

sintaktikozko itzulpen sistemak (System, EUROTRA); eta oraindik esperimentalak diren oinarri semantikozkoak.

A. SHAIKEVICH eta I. OUBINEK aurkezten diguten artikuluak, AUCT (All-Union Translation Centre)-k, hiztegi terminologikoei buruz egindako inkesta baten berri ematen digu. AUC-Tekin lan egiten duten itzultzaile teknikoei eta SESBeko Zientzia Akademiako Institutoetako ikerlariari pasa zitzaizen kuestionarioa. Bertan, profesionalek eskura dauzkaten hiztegi terminologikoei buruzko eritzia eskatzen zitzaizen itzul-

tzaile eta ikerlariari, ze hiztegi mota behar dituzten, nolakoa izan beharko zukeen hiztegi espezializatu elebidun on batek, etab.

Inkesta honen emaitzetan garbi ikusi zen, (hiztegiaren aurkitzen diren hutsuneak hutsune, akatsak akats, etab.), hiztegia zeinek erabiltzen duen eritzi desberdinak daudela, eta hiztegiaren beharra ere desberdina dela. Beraz, artikulugileek diote, lexikografoek, erabilera orokorreko hiztegi gintzara dedikatu beharrean, nori erabiltzeko den kontutan hartuta egin beharko lituzketela hiztegiak.

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publiée pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 34. No. 2/1988.

## Sommaire — Contents

### Articles

**INA MARICA:** Before Babilla: interpreting Neolithic writing — and a dragoman's tale.

**MARLENE DOLITSKY:** The translation of nonsense.

**JUDITH ROSENHOUSE:** Occurrence of the passive in different types of text in English, Hebrew and Arabic.

**Le monde de la Traduction — The World of Translation.**

In Memoriam Márta Kormos-Radó.

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Sociétés membres de la FIT — FIT member societies.

Sociétés membres associées — Associate member societies.

Publications de la FIT — FIT publications.

FIT statement on the translating profession — La traduction: déclaration de la FIT sur l'état de la profession.

Programme de la FIT 1987-1990.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

*Textes sacrés et textes profanes de l'ancienne Égypte. Des Pharaons et des hommes* (UNESCO) — *The Lord of the Meeting Rivers. Devotional Poems of Basavanna* (UNESCO) — *Chants-Poèmes des monts et des eaux. Anthologie des littératures orales des ethnies du Viêt Nam* (Mireille Gansel) — J.M. Eça de Queiros: *Singularités d'une jeune fille blonde et autre contes* (UNESCO) — Horacio Quiroga: *Contes d'amour, de folie et de mort* (UNESCO).

**Informations bibliographiques et lexicographiques**

**Bibliographical and Lexicographical Information.**

ROBERT F. ILSON: *A Spectrum of Lexicography, Papers from AILA Brussels 1984*

J. NÖHRING: *Dictionary of Medicine.*

MARLENE DOLITSKYk, gaiari heldu aurretik, "nonsense" testu bat zer den definitzen, mugatzen ahalegindu da: ez da "zentzurik gabea", badu eta esanahia. "Hizkuntz jokoan" aritzeko irudimenezko bidea dela dio, eta joko

guztiak bezala bere arauak dituena. Kasu honetan, "nonsense"aren idazleak, arauak hautsi egin behar ditu; baina hausketa ondo burutzeko, hizkuntz arauak ondo menderatzen dituen idazleak behar du izan.

“Nonsense”a jenero literario gisa aztertzerakoan, bi kontuok jakintzat ematen dira: (1) “nonsense” testuaren sortzaileak badakiela arau linguistikoak hausten ari dela, hala erabaki bait du; eta (2) mezua jaso behar den muturrean dela esanahia pertinenteena, hau da, irakurle-entzuleak eman behar diola esanahia testuari.

Jenero honen azpian sailkatutako lanek, gehienetan hizkuntzaren arau fonetiko eta sintaktikoak betetzen dituzte, baina zenbait arau semantikori uko egin zaionez, gure munduaz daukagun ikuspegi komentzionala ahaztu beharrean aurkitzen gara. Badirudi, testu mota hauek marko semantiko baten barruan aztertu behar direla. Artikulu-

gileak, lau desbiazio semantiko mota bereizten ditu, “nonsense” testuetan: lexikoa, pragmatikoa, kontraesan semantikoa, eta fonetikoa.

Nola bideratu testu hauen itzulpena? M. DOLITSKYren iritziz, “nonsense”ak komunikazioarekin berarekin baino, zerikusi handiagoa du irakurle-entzulearengan sortzen duen efektu pragma-retorikoarekin, eta hain zuzen efektu hauxe da itzuli behar dena, hitzak berak baino gehiago. Hortaz, goian aipatutako sailkapeneko testu mota bakoitzaren itzulpenak, alde lexikoa, pragmatiko, fonetiko etabarrean sakontzea eskatuko du (kasuan kasukoa).

Artikulu honetan, idazlearentzat interesgarrienak izaki, lehenengo bi testu klasetako itzulpenak aztertzen dira.

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publiée pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 34. No. 3/1988.

## **Sommaire — Contents**

In gratitude to Dr. György Radó.  
Obituary.

### **Articles**

DAN SHEN: Objectivity in the translation of narrative fiction.

*TUNDONU AMOSU*: Sociology and the translator: Soyinka in translation.

W. BRIAN ALTANO: Translating dialect literature: the paradigm of Carlo Emilio Gadda.

EMILIO MANUEL SIERRA: El primer intérprete blanco en el Río de la Plata.

### **Le monde de la Traduction — The World of Translation.**

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Sociétés membres de la FIT — FIT member societies.

Sociétés membres associées — Associate member societies.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

*Pattern for a Tapestry* (UNESCO) — *Les Murs* (UNESCO) — *Songs for the Bride* (UNESCO) — *The Heart of a Boy* (UNESCO)

### **Informations bibliographiques et lexicographiques**

#### **Bibliographical and Lexicographical Information.**

MORTON BENSON, EVELYN BENSON and ROBERT F. ILSON (compilers): The BBI Combinatory Dictionary of English: A guide to word combinations.

Dictionary of Road Transport Terminology in four languages: English, French, German and Spanish.

JAMES MACLEAN: Elsevier's Dictionary of Building Construction.

MICHEL BALLARD: La traduction de l'anglais au français — Dictionnaire de prospection sismique—Dictionary of seismic prospecting.

## Forum.

### Memorandum.

György Radók, BABELeko Erredakzio Batzordeko Zuzendaritza utzi zuen 1988.go ekainaren 30ean, 1975 geroztik bere mende zegoena, emazte eta laguntzaile zuen Marta Kormos-Radoren heriotza gertatu ondoren.

Ale honetako lehen artikuluan, DAN SHEN, itzultzailearen objetibitate beharraz ari da, jatorrizko fikziozko narrazioak benetako baliokidea izango badi izulitako bertsioan. Objetibitate faltak, distorsioak sortzen dituela jatorrizko testuarekiko begi bistakoa da, eta halere, artikulugilearen ustez, oso gutxi erreparatzen zaio kontu honi. Pekingo Unibertsitatean Ingeleseko Departamentuan irakaslea den honek, Txinako narrazio batzuen ingelesezko itzulpenak aztertzen ditu, itzultzailearen subjektibitatearen azpian dauden arazoak erakutsi eta objetibitatearen beharra aldarrikatzeko.

TONDONU AMOSUK, itzultzaileak kontestuko kultura egoera ondo ezagutu behar duela dio, itzulpenak "zentsazio baliokideak" lortu behar

baditu XH-ko irakurlearengan. Puntu honi heltzen dio autoreak, Elisabeth Janvier-ek egindako Wole Soyinkaren, "The Swamp Dwellers, The Strong Breed and The Trials of Brother Jero" frantses itzulpenak aztertzeke. Hain zuzen ere, hankasartze nabarmenak daude frantsesezko testuan, itzultzaileak autorearen jatorri soziologikoa eta beronen ingurugiroa ez ezagutzeagatik.

Carlo Emilio Gadda (1893-1973), italiar literaturaren historian, dialektoz idatzi duen idazlerik aurreratu eta sofistikatua da. Azkenengo idatzi zuen liburuan, "Quer Pasticciaccio Brutto de Via Merulana",—italiar literaturaren XX mendeko garrantzitsuena kritiko askorentzat— Erroma, Milan, Venezia, Naples, Molise eta Siziliako dialektok nahasten ditu; eta ez bakarrik pertsonaien ahotan, baita ere, narrazioailearenean. W. BRIAN ALTANOk bere artikuluan, W. Weaver-ek 1965ean egindako ingelesezko bertsioa eta berea erakusten ditu.

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publiée pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 34. No. 4/1988.

## Sommaire — Contents

### Articles

BENCIE WOLL: Report on a survey of sign language interpreter training and provision within the member nations of the European Community.

SALAH SALIM ALI: Symbol, deviation, and culture-bound expression as a source of error in Arabic-English poetic translating.

JANA NIKOLOVA GALABOVA: Le style en tant que phénoménologie du discours littéraire et de la traduction.

DIMITER KIRKOV: Criteria for the appraisal of belles-lettres in translation.

### Le monde de la Traduction — The World of Translation.

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Sociétés membres de la FIT — FIT member societies.

Sociétés membres associées — Associate member societies.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

Alejandra Pizarnik: *Les travaux et les nuits* — *The Decade of Panipat* — Ts'ao Yü: *Pei-ching jen (Pekin Man)* — Nakae Chomin: *A Discourse by Three Drunkards on Government*.

### Informations bibliographiques et lexicographiques

#### Bibliographical and Lexicographical Information.

JEAN-PIERRE ATTAL: Grammaire et usage de l'anglais (John D. Gallagher).

A.D. SVEJCER: Übersetzung und Linguistik (Maurice Voituriez)



HÉLÈNE CHUQUET & MICHEL PAILLARD: Approche linguistique des problèmes de traduction anglais-français.

ANDREA CHITI-BATELLI: Communication internationale et avenir des langues et des parlers en Europe.

IRMHILD BARZ: Nomination durch Wortbildung (Klaas Willems).

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publié pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 35. No. 1/1989.

## Sommaire — Contents

### Articles

P.G. EMERY: Legal Arabic texts: implications for translation.

Y. MATHIEU: Translegs (un outil d'aide à la traduction).

W.A. VERLOREN VAN THEMAAT: Esperanto literature and its reception outside the Esperanto movement.

**Le monde de la Traduction — The World of Translation.**

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

Martin Sorescu: *Poèmes traduits du roumain* — Abû-al-'alâ' al-Ma'arrî: *L'Épître du pardon* — Hannah Mina: *Soleil en instance*.

### Informations bibliographiques et lexicographiques Bibliographical and Lexicographical Information.

DIMITRIJ DOBROVOL'SKIJ: Phraseologie als Objekt der Universalienlinguistik (L. de Grauwe).

R. VAN DEN BROECK (éd): *Literatuur van elders. Over het vertalen en de studie van vertaalde literatuur in het Nederlands* (Lieven d'Hulst).

JACQUES VAN ROEY, SYLVIANE GRANGER & HELEN SWALLOW: *Dictionnaire des faux amis français-anglais* (John D. Gallagher).

### Forum

Cours d'outils d'aide à la terminographie pour traducteurs (C. de Schaetzen)

Peter G. Emery, Bath-eko Unibertsitateko Itzulpen (Arabiera-Ingelesa) irakasle honen artikulua helburua, testu juridiko arabiarren ezaugarri linguistikoak ikertzea da, eta ingelesezko parekoekin konparatzea.

Paris VII Unibertsitateko Laboratoire d'Automatique Documentaire et Linguistique eta Salerno-ko Institut de Linguistique-k, hiru urte daramatzate elkar lanean, frantsesaren eta italianoaren sintaxia eta lexikoa aztertzen. Ikerketak, hizkuntza hauen "lexique-grammaire" bat eratzea du helburu. Eta "lexique-grammaire"-aren kontzeptua, ideia honetan oinarritzen da: hizkuntza batetan, gramatika arauen erabilera oso

lotua doala kondizio lexikalei. "Lexique-grammaire" a eratu aurretik, hiztegiaren proiektatutako hizkuntzaren deskripzio sintaktikoa egitea eskatzen du. (Ezaugarri sintaktiko berezi batzuk, item lexikal konkretuak osatzen dituzte —aditz, adjetibo, izen, etab.— eta emaitzak taula edo matritzetan ematen.) Dagoeneko, italiano eta frantsesaren egitura sintaktikoen azterketa konparatua bideratua dago. TRANSLEGS lanbulego tekniko (*une station de travail linguistique performante*) bat da, eta bi hizkuntza hauek datuak erabiltzeko aukera eskaintzen du. Erabileretako bat, noski, hizkuntza batetik besterako itzulpenean egin daitezkeen akats sintaktikoak galeratzea da.

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Publiée pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 35. No. 2/1989.

## Sommaire — Contents

### Articles

J.T. ASOBELE: Literary translation in Africa: the Nigerian experience.

EDNA APHEK and BETH UVAL: On the translation of "Talit aheret", a short story by S.Y. Agnon-1.

DEBE OSAJI: Problems of teaching French translation in a multi-lingual quasi-Anglophone Nigeria.

### Le monde de la Traduction — The World of Translation.

La vie de la FIT — The life of FIT.

Sociétés membres de la FIT — FIT member societies.

Sociétés membres associées — Associate member societies.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative works.

Jun Takami: *Haut le cœur* — Thor Vilhjalmsson: *Quick Quick Said The Bird* — Ozaki Kazuo: *Rosy Glasses - Poèmes d'un Voleur d'Amour*.

**Informations bibliographiques et lexicographiques  
Bibliographical and Lexicographical Information.**

LAURENT BOURBEAU & JOHN LEHRBERGER: *Machine Translation: Linguistic Characteristics of MT Systems and General Methodology of Evaluation* (Ian M. Pigott).

J.P. VANDENBERGHE (compiler): *Elsevier's Dictionary of Architecture in Five Languages*.

NÁNDOR MOLNÁR: *The Calques of Greek Origin in the Most Ancient Old Slavic Gospel Texts*.

MICHEL MARCHETEAU/LIONEL DAHAN PELLOUX/JEAN-PIERRE BERMAN/MICHEL SAVIO: *Dictionnaire de l'anglais économique, commercial et financier* (John D. Gallagher).

F. BEIGDEBER ATIENZA: *Nuevo diccionario politécnico de las lenguas española e inglesa* (Eugeen Roegiest).

J.T. Asobelek hemen aurkezten duen artikulu berau argitaratu zuen, Metaren 34. alean, 1989ko abenduan. Autoreak, itzulpen literarioa beharrezkotzat jotzen du Afrikan, jatorri kultural desberdinekoek beren kultura aberaste-ko aukera bezala, baina baita ere, jendearengana beren hizkuntzan iritsi eta mobilizatu arazteko bide bezala. Hiru puntu aztertzen ditu: a) Zergatik itzulpen literarioa Afrikan?. b) Literatur egokipen eta itzulpen arazoak: Kola Ogunmola-ren Lanke Omu kasua. d) Literatur itzulpenak: editore, afrikar unibertsitateak, kritikoak, etab.

Bigarren artikulua, hebraierazko "Talet aheret" ipuin laburraren lau itzulpeni buruzkoa da. S.Y. Agnonek, testu honen egileak, Nobel Saria jaso zuen 66an, eta hemen artikulugileek aukeratutako hau, bere idazkera multifazetiko eta elusiboaren adibide bat baino ez

omen da; erabiltzen duen hizkeraz, amaiera gabeko korapilo asoziatibotan sartzen delako tradizio juduan. Arazoa ez dira bakarrik hebraierazko hitzen denotazio, konnotazio eta elkarketak; doinuak eta letrak ere bai. Jerusalem-en Edna Aphekek 1986ko udaberriari emandako ikastaro batean, lau lagun aurkeztu ziren Agnon itzultza, lehenengo elkar lanean aritu eta itzulpen bat atera asmoz, baina laster konturatu ziren ezinezkoa izango zela. Azkenean bakoitzak berea egin zuen, eta hemen bi itzulpen eta Babeleko hurrengo alean beste biak argitaratuko dira.

Nigeria aldean ez daude gu baino hobeto, hizkuntz eta itzulpen egoerari dagokionean. Afrikako nazio hau, 120 miloi inguru bizilagunekin, hizkuntz-anitza da. 368 hizkuntza eta talde etniko zenbait daude, Federazioa osatzen duten 21 Estatuetan. Hizkuntzok honela

banatzen dira: 272, iparraldeko 10 estatuetan hitzegiten dira; 96, hegoaldeko estatuetan. Bertako hizkuntzen artean, ez dago bat lingua franca edo talde-arteko hizkuntza ofizialtzat erabiltzen denik (talde etnikoen arteko liskarrik ez sortzearen). Nigeriar gehienentzat, ingelesa da bigarren hizkuntza eta hizkuntza nazional ofizial gisa erabiltzen da (merkataritzan, administratitzan, lege kontutan, politikan...), baina esan

behar da ingelesez jende ikasiak baino ez dakiela. Nigeria inguratzen duten nazio gehienak frankofonoak dira, eta hauekin harremanak izan behar badituzte, frantsesa baztertu ezin daitekeen hizkuntza da Nigerian bertan. Ze gainera frantses itzulpengintzarako eskaera handia da. Arazoa frantses itzulpena irakatsi behar denean sortzen da, batez ere ingelesera edo ingelesetik itzultzeko irakasten delako, eta hau, berez, ez delako ikasleen ama-hizkuntza.

**META.** Journal des traducteurs. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Les Presses de l'Université de Montréal. Vol.34, N. 4, décembre 1989.

### Sommaire — Contents

The March of Mythinterpretation: Musings on Culture-bond Cause and Effect. *Ina Marica.*

Les flux d'information dans les réunions interlinguistiques et l'interprétation de conférence: premières observations. *Daniel Gile.*

Pour un index évolutif et cumulatif de cooccurrents en langue techno-scientifique sectorielle. *Philippe Thoiron & Henri Béjoint.*

La traduction et ses discours. *Antoine Berman.*

Translation Between Typologically Diverse Languages. *Donald Philippi.*

Literary Translation in Africa: The Nigerian Experience. *J. Timothy Asobele.*

Translation in Africa: A Literary Perspective. *Stella M.A. Johnson.*

Ad hoc Court Interpreters in the United States: Equality, Inequality, Quality? *N. Schweda-Nicholson.*

Selection Tests for Trainee Conference Interpreters. *David Gerver, P.E. Longley, J. Long & S. Lambert.*

La formation d'interprète: méthode cognitive. *Sylvie Lambert.*

### **Études terminologiques et linguistiques.**

La terminologie du thésaurus. *Sophie Janik.*

Notions fondamentales de mécanique. *Gilles Bélanger.*

Étiologie de certains brouillages terminologiques de la langue médicale. *Amal Jammal.*

### **Documentation.**

Bibliographie.

Comptes rendus.

### **Bloc-Notes.**

La métaphore traduisible. *Moshe Azar.*

La traduction comme révélateur de l'épi-linguistique chez l'apprenant de langue seconde. *Danielle Bailly.*

Stylistic Analysis in Poetic Translation. *Pamela Faber.*

METAk lau artikulu eskaintzen dizkio interpretaritzari ale honetan.

Interpretaria, komunikazio-giro propio batetan diharduten hizlari-entzule batzuren zerbitzura dago.

50 eta 60.eko hamarkadetan, interpretaritzari buruz lehen liburuak idatzi zirenez geroztik, giro hori asko aldatu da. Gaur, hitzaldiak ugariagoak dira, bariatuagoak, teknikoagoak; sektore pribatuak leku garrantzitsuagoa du nazioarteko organizazio eta ministerioek baino, eta interpretariaren lana ez da "gauza bitxi" bat, lan profesional berezia baino. Ho-

nek, Daniel Gile-ren ustez, interpretaritzari buruzko erreflexioan ere eboluzionatzea eskatzen du: interpretaritzan parte hartzen duten mekanismo mentalak sakonago aztertu behar dira eta kanpoko inguruneak duen eraginari erreparatu, hau da, hizlari-entzuleei eta beraien ingurune eta beharrei. Hain zuzen, konferentzia-interpretariak lan egiten duten hizkuntz anitzezko bileren sailkaketa modu batetik abiatzen da D. Giles, kasu bakoitzeko ezaugarriak deskribatu eta interpretariaren lana zertan den erakusteko.

Nancy Schweda-Nicholson-en es-  
kutik datorkigu interpretaritzari buruz-  
ko bigarren artikulua. Amerikar honek,  
hiru puntutan heltzen dio bere gaiari:

- a) EE.BB.etako auzitegiko ad hoc  
interpretaritzaren beharraz,
- b) zergatik den beharrezkoa auzi-  
tegi-interpretari ikasketa profesio-  
nala
- d) zein gai erakutsi behar diren  
ikasketa edo programetan.

Beste bi artikulua interpretarien  
heziketari buruzkoak dira. Lehenen-  
goan Londreseko Itzultzaile eta Inter-  
pretarien Zentru Politeknikoan eginiko  
test bati buruz ari zaizkigu; eta bigarre-  
nean, Silvie Lambert-ek bere semina-  
rioko programa aztertzen digu.

Aldizkari honetan artikulua interes-  
garria dator Antoine Bermanena itzul-  
pen teoriari buruz: LA TRADUCTION  
ET SES DISCOURS.

Dioenez: "Je me propose d'exami-  
ner ici les différents «discours» qui

existent déjà, et d'en proposer d'un au-  
tre."

«Diskurtso» horiek dira: LE DIS-  
COURS TRADITIONNEL SUR LA  
TRADUCTION, LES DISCOURS  
OBJETIFS SECTORIELS, LES DIS-  
COURS GÉNÉRAUX, LES DIS-  
COURS D'EXPERIENCE, LA TRA-  
DUCTIQUE eta LA TRADUCTOLO-  
GIE.

Itzultzaileak ez omen du nahi izaten  
"teoriaz" hitzegin. Horren gainean ida-  
tzita dagoenak ez du, tamainaz, handia  
izan behar: obra gutxi, notak, gutunak,  
etab... Badirudi itzulpena ez dela au-  
sartzen modu diskurtsiboan gauzatzen  
eta nahiz eta dagoena gutxi den, abera-  
tsa dela dio Bermanek; oso aberatsa eta  
irakurtzen ikasi behar dugu, ezagutzen.  
Oso eskas gabilza horretan.

Traduktika zer den esaten digu eta  
traduktologiarekin ere berdin. Azkenik,  
traduktologia batek betebeharreko ha-  
maika puntu zehazten ditu.





## Bibliografia

CHUQUET, H. - PAILLARD, M. *Approche Linguistique des Problèmes de Traduction (Anglais-Français)*, Ophrys, 1987, Paris.

Duela hiru hamarkada baino gehiago Vinay-Darbelnetek hizkuntza-bikoteen konparaketa linguistiko-estilistikoaren alorrean luberritu zuten alor emankorraren barrutian sorturiko beste liburu baten aurrean gaude. Parisko Eskolaren inguruan dagoeneko badira zenbait liburu asmo eta ildo beretik sortuak, ia beti ingelesa eta frantsesa konparatuz eta ia denak frantses-kanadiar ondarearekiko dituzten zorrak eta loturak aitortzetik hasten dira. 451 orrialde dituen liburu mardulak sarrera eta bi parte nagusi ditu: lehenak itzulpen-analisirako kontzeptu teorikoak eskaintzen ditu hiru ataletan banatuak:

a) Itzulpen-prozedurak (beronen

baitan transposizioa eta modulazioa lantzen dira arreta bereziaz)

b) Gramatika-eremua (hemen determinazioa eta izen multzoa, denborak eta aspektuak, modalitateak, antolamendu sintaktikoa eta aditz-erakuntzak azpisailak jorratzen dira).

c) Lexiko-eremua (lexiko-unitateak eta lexiko-semantikaren arazoak aztertzen ditu).

Liburuaren bigarren partean testu itzuli eta irazkindu sail bat dator. Guztira ingeles eta frantses idazle ezagunen eta ez hain ezagunen 30 testu dira, era guztietakoak, nahiz eta testu pragmatiko edo berriemaile dei ditzakegunak nagusi izan.

Aipatuaz gainera liburuak baditu hiru eranskin ere: puntuazioaz, maiuskulen erabilera ingelesez eta frantsesez eta frantsesa eta ingelesaren artean dauden zenbait ortografi ezberdintasuni buruz.

Liburuaren amaieran Taula sinoptikoen zerrenda, Adibideen Iturburuak, Bibliografia, Autoreen Aurkibidea eta Terminologi eta Lexiko-aurkibidea datoz.

Obra honen helburua itzulpenaren praktika intuiziozkoaren eta beste bide batzuetatik loturiko prestakuntza linguistikoaren artean loturak ezartzea da, horrela itzulpen-arazoei

buruz begirada zorrotzuz eta soluzio posibleak bilatzeko gaitasuna areagotuz, batez ere fokoratzen diren bi hizkuntzei dagokienez. Jacqueline GUILLEMIN-FLESCHEREk Hitzazurrean dioenez, liburuaren helburua ez dela pragmatikoa soilik, baizik eta itzulpenaren praktika esparru teoriko baten barruan begizatzen duela, eta horrela ikuspegi linguistiko zabalago batean kokatzen duelarik. Balio berdina du ingeles eta frantses-filologia-ko ikasleentzat eta bi hizkuntza hauen artean itzulpengintzan aritzen direnentzat.

X.Mendiguren

NEWMARK, P. *A Text Book of Translation*, Prentice Hall International English Language Teaching, 1988, London.

Newmark profesoreak argitaratu duen itzulpenari buruzko liburu berri honek graduko eta gradu-osteko ikasleak ditu gogoan. Liburuak bi parte nagusi ditu: lehena, printzipioei buruzkoa, eta bigarrena metodoei buruzkoa.

**Lehen partean** eta hurrenez-hurren honako aztergai hauek sakontzen dira: Testuaren azterketa, Itzulpen-Prozesua, Hizkuntz funtzioak, Testu-kategoriak eta Testu-motak, Itzulpen-metodoak, Itzulpen-unitatea eta Diskurtso-analisia, Itzulpen literala, Beste itzulpen-prozedura batzuk, Itzulpena eta kultura, Metaforen itzulpena, Anlisi konponentzialaren erabilera itzulpenean, Kasu-gramatikaren aplikazioa itzulpenean, Neologismoen itzulpena,

Itzulpen teknikoa, Literatura landua eta Baieztapen autoritatezkoen itzulpena, Erreferentzi liburuak eta berauen Erabilera, Itzulpen-kritika eta Beste zenbait puntu (hitza eta testuingurua, dialektoa, ordenadorea, eponimoak eta akronimoak, izen bereziak, hitz-jokoa, neurri, pisu, kantitate eta monetak...).

**Bigarren partean** 13 testu pragmatiko eskaintzen dira ingelesez, frantsesez eta alemanieraz, berauen itzulpenak sortzen dituen arazo ezberdinen irazkinarekin.

Liburuia amaitzeko Glosategia, Laburdurak, Autorearen Artikuluak, Medikuntza-Terminologia, Bibliografia, Izenen Aurkibidea eta Gaien Aurkibidea datoz.

Peter Newmarkek, beste zenbait liburu eta artikulutan azaldua duen argitasun eta sen didaktikoz, teoriarako sasitza nahasietan gehiegi galdu gabe, itzulpen-praktika burutu nahi duenarentzat probetxuzkoak diren aholkuak ematen ditu. Mundu anglosaxoian nagusitu den joera enpirikoko traduktologia baten ordezkaria da Newmark Profesorea eta itzulpen-jarduera luze baten eskarmentua didaktizatzen eta sistematizatzen jakitea du meriturik txalagarriena. Sarreran argi

eta garbi aitortzen duenez, liburuak elementu bateratzaileak baldin badu itzultzaileari probetxuzko gertatu nahi izatea da. Bestalde, autoreak dio, liburu hau aurretik argitara eman duen *Approaches To Translation* obraren alboan irakurri behar dela, izan ere zenbait puntutan haren hedapena, eta termino instituzionalen eta metahizkuntzaren tratamendua han sakonagoa delako.

X.Mendiguren

ZIMMER R. *Probleme der Übersetzung formbetonter Sprache (Ein Beitrag zur Übersetzungskritik)*, Max Niemeyer Verlag, 1981, Tübingen.

Zimmer profesorearen liburu honek abiagune garbia dut. Kloepfer, Sduns, Gütinger eta abarren lanak kontutan harturik eta itzulpen-jarduera posible dela ikusirik itzulpen-problematika bi sail handitan banatzen du: baldintza kulturazkoa duten itzulpen-arazoak eta baldintza hizkuntzazkoa duten itzulpen-arazoena. Lehen taldean herrialde ezberdinetan dauden errealtate edo erakunde ezberdinen itzulpenak sortzen dituen arazoak lantzen dira eta bigarrean, berriz, hizkuntzen berezko izaeratik sortzen diren ezberdintasunetan oinarritzen diren arazoak lantzen dira. Arazoen gradua neurria handi batean testu motaren baitan dago. Horrela, K. Reissek Bühler-en eredu organikotik abiatuz itzulpen-teorian erabilgarria den testu-tipologia bat landu zuen eta bertan lau tipogusi bereizten ditu:

1. Edukina azpimarratzen duten testuak.
2. Forma azpimarratzen duten testuak.
3. Apelazioa azoimarratzen duten testuak.
4. Testu audio-medialak.

Lehen bi tipoen artean gertatzen da kontrasterik nabariena eta K. Reissen hitzak erabiliz "Edukina azpimarratzen duten testuetan informazioarekin zerikusia duen formaren errealtatearekiko zuzentasunak du garrantzia. Edukina azpimarratzen duten testuak Semantika, Gramatika, Estilistikak neurturiko harreman formalean aztertzen dira eta berarekiko ikuspegitik itzultzen dira. Formara zuzenduriko testua Estetika, Estilistika, Semantika eta Gramatikak neurturiko

forma-erakuntzaz galdetzen du eta berari dagokionez itzultzen da". Bigarren tipo honetako testuek, oro har, zailtasun handiagoak sortzen dituzte itzultzeko orduan lehen tipokoek baino. Horregatik Heldu nahi izan dio Zimmer profesoreak arlo hau argitzeari.

Liburuak sei atal ditu:

- I. Interferentzia Fonetikoa itzulpen-arazo.
- II. Hitz-jokuen itzulpena.
- III. Izen Berezien itzulpena
- IV. Metahizkuntzaren itzulpena.
- V. Estraestrukturalismoen itzulpena (arkaismoak eta epokahizkuntzak, dialektismoak, sozioloektoak)

VI. Formara zuzenduriko literaturaren arinaren itzulpena.

Azken ondorio gisa, Zimmer profesoreak adierazten du biziki erlatibizatatu behar dela forma azpimarratzen duten hizkuntz elementuak ezin itzulizkoak edo ia itzulezinak direlakoak, baldin eta itzulpena zerbait dinamiko bezala hartzen bada eta behin betirako itzulpenik ez dagoela kontutan izaten bada.

Liburuaren amaieran bibliografia ugari dator.

## X. Mendiguren

DEDECIUS, Karl; *Vom Übersetzen*, Suhrkamp Taschenbuch, 1986, Frankfurt a. Main

Egilea 1921ean Lodzen jaio eta txikitatik elebiduna izaki, alemaniera eta polonieraz mintzatu izan da. Azken hamar urteotan Darmstadteko Alemaniari-Poloniari Institutuaren zuzendari da. Hogeitabost urtez literatura eslabarra itzuli, irazkindu eta editatu izan du, poesia eta prosa poloniarra batipat. Liburu honetan urte luze horietako esperientziaren floria eskaintzen digu atsegin bezain sakonki. Liburu gogoeta, hitzaldi eta artikuluz horniturik dago, baina ez kronologiaren arabera, baizik eta gaien berzeko logikaren arabera.

Obra hamar sailetan banaturik dago: Motti (Motiboak) izeneko sai-

letik hasten da eta bertan hitzegitea, idaztea, literatura, liburuak, autokontzientzia, hizkuntz trukea eta izendapena bezalako gai orokorrak lantzen ditu.

Ondorengo hiru ataletan Personalia, Itzulpena eta Gizartea, lirika eslabarra aipatzen ditu.

Bostgarren saila da liburuak daukan mamitsuena eta bertan "teoria eta praxia" izenburupean, itzulpenaren alorrean aintzinakoek, erromatarrek, anglo-saxoiek, alemaniarrek, errusiarrek eta poloniarrek eskaini dutenaren berri ongi umotua eskaintzen digu.

Hortik aurrerako ataletan literatur erreferentziak dira nagusi, 8. sailean

eskaintzen duen Itzulpenaren Abedea eta itzultzaileen erudizat jotzen duen Hieronimori buruzko gogoetak izan ezik.

Liburuak amaieran Ohar eta Iturburuen berri ematen du eta Onomastikoan Zerrenda dakar. 200 orrialdeetan zehar eslabiar poesia itzuliaren erakustale ugari dator eta horrela Dedeciussek bere itzultzaile-maisutasuna dastatzeko aukera bikainak eskaintzen dizkigu. Adibide bat emateko, Juliam Tuwimen "Jamby Politicne" aipatuko nuke. Karl Dedecius-en

liburu hau gozamen hutsa da, bai esaten duenarengatik eta bai esateko moduarengatik. Ez naiz harritzen *World Literature Today*-k baliagarritzat jotzea kritikari, hizkuntzalari, itzultzaile eta soziologoentzat duen orijinaltasun, freskura eta bizitasunarengatik, izan ere zaila baita pertsona bakar bategan kritika, literatur teoria, itzulpen-esperientzia, kultur soziologia eta gauzak esaten jakiteko halako zorrotasuna hain egoki elkarturik aurkitzea.

X. Mendiguren

LARSON, Mildred L.; *La traducción basada en el significado. Un manual para el descubrimiento de equivalencias entre lenguas*. Espainierazko bertsioa: Burns, Donald H, eta von Moltke, Rodolfo. Editorial Universitaria de Buenos Aires, 1989.

University Press of America, Inc. delakoak 1984. urtean Larsonen *Meaning-based Translation: A guide to Cross-language Equivalence* argitaratu eta arrakasta handia izan zuen Latinamerikan, gehienbat hango hizkuntza autoktonoak erabiltzen dituelako konparagai. Horren froga da hemen komentatu behar dugun espainierazko bertsio moldatua, joan den urtean Argentinan plazaratu zena. Bertsioaren egileek aitortzen duten legez, liburu honen asmoa kontinente guztietako hizkuntza gutxituen hiztun diren ehundaka itzultzailearen lanek emandako esperientziak mundu hispanoan ezagutzera ematea da. Oso garrantzizkoa da hasierako abiapuntu hau liburuaren planteiamenduak uler-

tzeko, 717 orritan zehar batez ere gazteleraren eta Ameriketako hizkuntzen arteko itzulpena erabiliko bait du aztergai, beste kontinenteetako hizkuntza gutxitu eta idatzizko kultura urrikoak ere etengabe azaltzen direlarik. Bestela esanda, gaztelera (eta baita ingelesa) bezalako kultur hizkuntza handi baten eta oso kultura eta zibilizazio ezberdinetako beste hainbat hizkuntzaren arteko itzulpenaren zailtasunak jorratzen dira itzulpenarako ikasbidea izan nahi duen lan mardul honetan. Ikuspegi honetan datza liburuaren izenburuaren gakoa, haren planteiamenduaren laburpena besterik ez dena.

Ulertzekoa da, horregatik, oso kultura ezberdinetako hizkuntzen ar-

teko itzulpenean formari (azaleko egiturari, hots: fonologia, gramatika eta lexikoari) ez, baizik eta esanahiari (sakoneko egiturari) eusteko beharra behin eta berriz defenditzea. Horrela, liburuan erakusten diren itzultzeko baliabide guztietan kontestu kulturalari berebiziko pisua ematen zaio, baina, haatik, ikasbide oso interesgarriak ere eskeintzen ditu itzulpen orokorrenzat, eta ez da eskasa lan honek euskal itzultzaileoi eman diezagukeen ikas-kizuna.

Liburua sei atal nagusitan banatu-ta dago:

1. **Itzulpen lanaren ikuspegi sinoptikoa**, non goian komentatu dugun ikuspegia luzaz azaltzen den.
2. **Lexikoa**. Hizkuntzek lexikoa antolatzeke modu guztiz ezberdinak erabiltzen dituztela erakusten du; horrela, hitzen esanahi ugaritasuna, irudizko zentzuak, hizkuntza batzu eta besteen sistema lexiko ezberdinak, SH eta XHan kontzeptu berberak ez daudenerako baliokide lexikoak, baliokide lexikoak bilatzeko arazoak, etab. aztertzen ditu.
3. **Perpauaren egitura**. Sistema gramatikal ezberdinek planteatzen dituzten arazoak: perpau moetak (gertakari bat edo egoera bat azaltzen duten, eta hizkuntza batzu eta besteean horrek dakartzan zailtasunak), haien barruko osagaien artean ezartzen diren harremanak, irudizko perpauak (metaforak eta irudiak).
4. **Komunikazio harremanak**. Mintzaldiaren egitura semantikoan komunikazio-unitateen artean gertatzen diren harreman semantikoak (ez gramatikalak): harreman kronologikoak eta ez kronologikoak; orientatzeko eta argitzeko harremanak eta harreman logikoak (mezua ulertzeko informazio gehigarriak); eragingarri-erantzuna harremanaren rola.
5. **Testuak**. Perpau multzoek osatzen dituzten diskurtsoak eta diskurtso zatiak, haien arteko lotura edo kohesioa, diskurtso moetak, komunikazio-egoerak, hizkuntza eta estilo ezberdinen informaziozama edo edukina (hizkuntza edo estilo batzuek askoz erritmo azkarragoan eman dezakete informazioa beste batzuek baino: nominalizazioak erritmo biziagoa ematen bait du, esaterako).
6. **Itzulpen programa**. Itzulpen asmo bat tajutzeke behar direnak, itzul lanaren zortzi faseak (prestatzea, azterketa, transferentzia, lehen zirriborroa, lehen zirriborro horren berrikuspena, itzulpena egiaztatzea, itzulpena orraztea, eta argitaratuko den azken izkribuaren prestatzea).

Azkenik, hamabost orri eskeintzen dizkio bibliografiari, gehiena area anglosaxoikoa bada ere.

**Koldo Biguri**

**BERRI  
ETA  
ALBISTE**





## EXPOLINGUA 1990

Expolingua, Europako hiririk haundienetan egin ohi den komunikazioari buruzko topaketa da: Bruxelles, Frankfurt, Ginebra, Lisboa, London, Milano, Paris, Viena, Madril.

Madriilen «III Congreso Internacional» izenpean martxoaren 30etik apirilaren 2ra ospatu da. Bi zati haundi izan ditu: bata ERAKUSKETA, eta bestetik AGERPENAK.

### 1. Erakusketa

Erakusketari dagokionez, hiru atal nagusi bereiz zitezkeen:

Atalik nagusia, hizkuntzen metodologiari eta didaktikari esleitutako standek betetzen zuten. Berrikuntza haundirik eskaintzen ez zuten bertaratutako hizkuntz irakaskuntza-zentruak ziren, ia beren zentruetako ikas-moduluen eta ikastaro-egutegien berri ematera mugatzen zirelarik. Ez teknologi mailan —Rank Xerox-ek eskaintzen zuenaz aparte ez zegoen ezer— ez metodologi/metodo-mailan ez zen ikusi ahal izan arnasberrikuntzarako baliabiderik.

Erakunde ofizial batzuk ere baziren. Baina, bertaratze hutsera mugatu nahi izan zutela ematen zuen.

Teknologi mailan aipatzeko bakarra, esan daiteke, SIEMENS, S.A. izan zen: datu-banku terminologikorako eta itzulpengintza automatikorako «Metal» izeneko softwaregintzan egiten ari den ahalegina aurkeztu zuen. Bera izan zen erakutsia eta irakatsia bateratu zituen: erakusketakoan egindako probak hitzaldi-aretoan ihardunaldietan osatu zituen.

## 2. Hitzaldi-agerpenak

Esan bezala, erakusketaz aparte, egungo munduan komunikazioari buruz ageri den hainbat ikuspegi entzun ahal izan zen.

Hiru atal nagusitan banatu zen guztia:

- Itzulpengintza eta interpretaritzza.
- Hizkuntzen irakaskuntza: alemana eta frantsesa.
- Mintegiak planteamendu eta teknologia berriez.

Garrantzirik haundiena Itzulpengintzari eta Interpretaritzari eman zitzaion. Gainera, hiru atalak paraleloki tratatu izan zirenez, eta lerro hauen sinatzailea lehenengo atalean ibili zenez, beste biak aipatu hutsean utziko dira.

Beraz, ondoko lerrook «Itzulpengintza eta Interpretaritzza» atalari lotuko zaizkio.

Lehenik, interbentzio asko izan zirela esan behar. Hain zuzen ere, ostiral arratsaldetik igande iluntzera, 19 hitzaldi eta mahainguru. Denak, noski, ez kalitate berekoak; asko gainera oso eskasekoak; baziren, ordea, onak ere.

Bigarren, aipatu hitzaldiak gai nagusi hauen inguruan gauzatu ziren:

- EEEko itzulpengintza.
- Hizkuntza berezitueto itzulpengintza.
- Itzulpengintzaren zer-nolakotasuna: dokumentazioa, itzulpen literarioa, kultur erreferentziak.
- Itzultzaileen formazioa.
- Itzultzaile eta interpretarien estatutu profesionala.

Hirugarren, antolaketari buruz, hauxe azpimarra daiteke: interbentzio guztiak gaztelaniaz nahiz frantsesez izan ziren; horrek asko mugatu zuen korrante diferenteen ordezkapena: ez ingelesik, ez alemanik, ez...; bapateko itzulpen-bideragarritasunik ez zegoenez, hizkuntza horietako ordezkarien beharrik ez zegoen.

## Konklusio gisa

Erakusketa, oso eskasa izan zen. Gorago esandakoari, leku-falta erantsi behar zaio; standek bata bestearen gainean bildu behar izan zuten.

Hitzaldi-agerpenei dagokienez, egitaraua oso trinkoa izan zen. Hitzaldi bakarren batek edo bestek goi-maila harrapatu zuen; baina, orohar dibulgazio-maila guztiz apalean geratu zen guztia.

Hartara, topaketari emandako izenari, «Congreso Internacional», handi-mandi samarra deritzogu.

Dionisio Amundarain

## Euskarak badu zinpeko itzultzailerik

SENEZ aldizkari honen aurreko zenbaki bikoitzean Carmen del Río, zinpeko interpretari eta Atzerri Ministraritzako Hizkuntz Interpretaritzarako Bulegoko funtzionariak ematen zigun zinpeko interpretaritzaren berri: zer den, Espainian nola araututa dagoen, eta abar. Artikulu hartan, hala ere, ez zen zehazten Espainian oraintsu arte gazteleraz gain hizkuntza gailegoak eta katalanak baino ez zutela zinpeko itzultzaile edo interpretaririk, edo, bestela esanda, euskal zinpeko itzultzaile batik ere ez zegoela. Errua bilatzen jartzekotan, Ministraritzara bertara jo beharko genuke, baina baita gure hemengo erakunde politikoaren axolagabekeriara ere, ezen Euskararen Normalkuntzarako Legeak zinpeko itzultzaile titulua euskal erkidego autonomoaren ahalmentzat jo eta Auzitegi Konstituzionalak ahalmen hori ukatu zionez geroztik, bazirudien hemengo erakundeek beren eskutik guztiz utzita zeukatela arlo hori, haren beharra sumatzen bazen ere.

Euskal Itzultzaileen Elkarteak ez zuen etsi, hala ere, eta zenbait kontakturi esker gainditu ahal izan ziren euskal zinpeko itzultzaile azterketak antolatzeko zeuden oztopoak, eta hala egin ere egin zen azterketa joan den urteko azaroaren 2an, Madrilen. Agian ustekabean, 65 itzultzailek eman zuten izena, eta 55 bertaratu.

Azterketan gorabeherak egon ziren jarritako bi testuak zirela eta ez zirela, zehazkiago haietatik lehena, hiztegiaren laguntzarik gabe itzuli beharrekoa, Jean Etxepareren *Buruxkak* liburuko testu bat zelako, literarioa nolabait eta, gainera, behenafarreraz idatzia, inortxok ere espero ez zuelarik horrelakorik. Bigarrena, aldiz, Balio Erantsiaren Zergari buruzko testu teknikoa zen, euskarara itzulia, nahiz eta, teoriarik behintzat, jatorrizko hizkuntzan idatzitako testuak baino ezin ziren jarri. Testuen hautaketa Hizkuntz Interpretaziorako Bulegoak berak Madrilen aurkitutako lankideek egin zuten, eta hortxe bilatu behar testu horiek halako azterketa horretarako ustez desegokiak izatearen arrazoia. Dena dela, testuen egokitasuna ala egokitasunik eza eritzi kontua baino ez da, eta, jakina, zenbat buru hainbat aburu.

Geroztik, urak berera etorri, eta aurtengo martxoaren 16an eman zituen Epaimahaiak deialdian sartutako hizkuntza guztien azterketen ondorioak, hil bereko 22.eko BOEan argitaratu zirelarik. Ebazpenaren arabera, aurkeztu zirenetatik zortzi itzultzailek gainditu zuten proba, hau da, estatistiken alderako joera dutenentzat, %14,5ek; beste hainbat hizkuntzen azterketetan gainditu zuten baino portzentaia handiagoa, beraz.

Izendapen ofiziala aldizkariaren zenbaki hau kaleratu orduko egina egongo da, eta orduan zinpeko itzultzaileek estatu osoan egin ahalko dute lan, hau da, Euskal Herritik kanpo beharra gertatuz gero ere zereginik eduki ahalko dute. Aldez aurretik, hala ere, izendatutakoek zeinek bere herrialdeko Gobernu Zibilaren edo Gobernu Ordezkaritzaren erroldan sartu beharko dute, bertan luzatuko zaielarik zinpeko itzultzaile karneta. Orduantxe hasi ahalko dira ziurtapen beharreko itzulpen edo interpretaritzak lanak egiten auzitegietan edo auzitegientzat, Administrazioarentzat, edota partikularrentzat. Denborak esango du, beti bezala, itzulpengintzaren alor honek nolako bilakabidea eta nolako garrantzia izango duen gure artean.

**Koldo Biguri**

## Bedita Larrakoetxea hil zaigu

Aita Bedita Larrakoetxea, Shakespeare-ren euskaratzailea, Uztai-lean hil zen Oñatin, 96 urte zituela. 1894ean jaio zen Zeanurin, eta nahiko gazterik lotu zitzaion erlijio bizitzari Oñatiko komentuan. Bizitza ibiltari samarra izan zuen, gerra garaian Oñatitik irtenda atzerrira abiatu zelako Eusko Jaurlaritzak Ingalaterrara bidalitako ume euskaldunen arduradun. Ingalaterran egon zen 1939ra arte, urte horretan Uruguayra bidali bait zuten bere komentuko nagusiek. Pare bat geroago, aldiz, Argentinan egongo zen irakasle lanetan. 1972ra arte ez zen itzuli Oñatira.

Larrakoetxearen itzulpengintza lanak benetan erraldoi batenak dira: nahiko gazterik hasi zen, gainera, eta jadanik gerra aurrean grekeratik egindako itzulpenak egin eta *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratu zituen 1926tik 1928ra arte. Baina bere itzulpenik handi eta aipagarrienak, ordea, Shakespeare-ren antzerki-lanenak dira: 37 lan euskaratu zizkion hainbat urte luzetan, ematen zituen eskolen arteko orduetan. Argentinan, esaterako, *Macbeth*, *Lear Errege* eta *Ekatxa* itzuli zituen 1957tik hasita 1959ra bitartean. Kardaberaz bildumak jasoak ditu Larrakoetxearen itzulpen hauek sei bat liburukitan. Lana, esan dugun bezala, erraldoia egin zuen Larrakoetxeak, baina, hala ere, nahiko oihartzun gutxi izan du gure artean, eta sari hobea gorenik merezi zuen, ordea, Shakespeare-ren literatura eta sinbologia eta hari lotutako kultura bera gure hizkuntza jartzeko egindako ahalegin horrek.

Tamalez, Larrakoetxearena ez da gure arteko kasu bakarra; Xabier Mendigurenek 1988ko otsailaren 11an DEIAN Larrakoetxeari eskeini zion artikuluan zioenez, «berdin esan genezake Zaitegik Platonen obrez egindako itzulpenez edo beste batzuzenez. Harako iturri zigitatuak dirudite lan izugarri horiek. Eta ondorioa berez dator: euskaldunok kulturaren eta artean baditugu erraldoi eta langile bakartiak, baina zenbateraino hedatzen eta baliatzen dugu gainerakook fruitu hori?».

Guk, Zaitegi edo Larrakoetxea bezala, itzulpengintzan aritzen garenok are arrazoi gutxiago dugu aurrekoek egindako bidea sasiz betetzen uzteko. Hil ondoko omenaldiak alferrekoak ematen badute ere, baliu bezate lerrook, ez gure kontzientzia lasaitzeko, hunkitzeko baizik.

## ARTIKULUGILEENTZAKO OHARRAK

SENEZ aldizkarian euskal terminologia eta itzulpengintzari buruzko artikulua eta, oro har, itzulpengintzari buruzkoak onartuko dira. Idazlanak Koldo Biguriri bidali behar zaizkio EIZIE elkartearen helbidera (Etxague jenerala kalea, 6, behea. Donostia, 20.003).

Testugileek beren izen-deiturak, helbidea eta harremanetarako telefonoa adierazi beharko dituzte lanari erantsitako orri batean. Lanaren kopia bat bidal daiteke, hari buruzko orribeteko laburpena eginik gaztelaniaz. Arren eskatzen dugu, gainera, bidali aurretik ahalik eta hobekien zuzentzeko egindako lana, idazketa hutsak gutxitzeko.

Bestalde, testua idaztean ondoko arau hauek hartu beharko dira kontutan:

- aipamen luzeak aparteko ahapaldian jarriko dira, letra txikiagoan eta sangratuan;
- aipamen laburrak testuan bertan joango dira, letra borobilean eta kakotx artean ("..." edo «...»). Hitz edo esaldi motzen itzulpena kakotx bakunez ('...') jarriko da dagokionaren ondoren; adib.: apain 'elegante';
- esaldi edo ahapaldi itzulien gonbarazioa egitean, aparteko ahapaldietan, letra txikiagoan eta era sangratuan joango dira; hizkuntzak, gainera, bereizturik agertuko dira, aparteko lerroetan eta letra borobilean hizkuntza bat eta etzanean bestea, bi baino ez direnean; gehiago direnean, jatorrizkoaren itzulpena hizkuntza bat baino gehiagotan agertzen denean azken hauek beste sangratu batean joango dira; haietan hitzen bat edo beste ere markatu nahi bada, letra beltza erabiliko da. Adib.:

*Ma plus ancienne expérience de la mort*

- nire lehen **topaketa** heriotzarekin
- mi primera **experiencia** con la muerte
- zentzu metalinguistikoz markatu nahi diren hitzak, hitz zatiak, eta, halaber, beste hizkuntzetako hitzak letra etzanetan jarriko dira; adib.: «-elako atzikia», «*feed-back* batean bezala».
- liburu eta aldizkarien izena ere letra etzanean jarriko dira; artikuluenak, aldiz, kakotx artean. Haien argitalpen daturik garrantzitsuenak erantsi beharko dira, aparteko bibliografian edota orripeko oharretan.

Azkenik, ahal den neurrian, idazlanak paperean ez ezik, ordenagailuetarako disketean ere bidali behar dira, dentsitate gutxiko 3,5"ko disketetan, Word Perfect programan edota ASCII sisteman idatzita. Mcintosh erako ordenagailua erabiltzen dutenek ere bidal dezakete disketea.

ERREDAKZIO BATZORDEA









# 1-2

## Gaiak

Ale honetan / Obabakoaken itzulpenaz / Euskal interpretaritzaren errealitate mingotsa / Euskal erakunde publikoak eta itzulpengintza: Eusko Legebiltzarraren Auzitegietako interpretaritza / Itzulpena auzitaratzen / Arrue eta bere garaia / Komaren erabilera / Irudizko hizkera itzulpenean / Testu itzuliaren organikotasuna / Baltasar Céspedes maisuaren itzulpen teoria / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / Bibliografia: CHUQUET, H. - PAILLARD, M.: Approche Linguistique des Problèmes de Traduction (Anglais / Français / NEWMARK, P.: A Text Book of Translation / ZIMMER R.: Probleme der Übersetzung formbetonter Sprache (Ein Beitrag zur Übersetzungskritik) / DEDECIUS, Karl: Vom Übersetzen / LARSON, M.I.: La traducción basada en el significado. Un manual para el descubrimiento de equivalencias entre lenguas / Expolingua 1990 / Euskarak badu zinpeko itzultzailerik / Bedita Larrakoetxea hil zaigu